

**Euskadin talentuari dagokionez
dauden premiei buruzko
azterketa
Begirada jarrita 2020an**

AURKIBIDEA

SARRERA	3
METODOLOGIA	5
EMAITZA NAGUSIAK	10
ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK ETA HORREN ONDORIOAK	11
EZAGUTZAN OINARRITUTAKO GIZARTEA	29
Prestakuntza-jarduerari dagokionez herritarrek dituzten joerak	29
Biztanleriaren formakuntza-maila	35
Gaineratiko kualifikazioaren edo okupazio gutxiegiaren fenomenoa	42
ESKAINITZA ETA ESKARIAREN ARTEKO DOIKUNTZA	45
TALENTUARI DAGOKION PREMIEN EREMUAK: ORAINA ETA ETORKIZUNA	48
Unibertsitate-tituludunen banaketa ezagutza-esparruka	48
Euskadiko Barne Produktu Gordinaren azterketa (BPGd)	56
I+G erako jardueretako joerak Euskadin: enplegua eta gastua	63
ENPLEGUAREN EGOERA EUSKADIN: BANAKETA SEKTOREKA	73
Enpleguaren bilakaera: populazio osoa eta goi mailako ikasketen jabe den populazioa	73
Barne Produktu Gordinaren bilakaeraren eta enpleguaren arteko harremana	84
Unibertsitate-tituludunen okupazioa sektoreka	86
Joerak kontratazioan	93
EUSKADIN TALENTUARI DAGOKIONEZ DAUDEN PREMIEN INGURUKO HURBILKETA KUANTITATIBOA	120
UNIBERTSITATE-TITULUDUNEI ESKATUTAKO GAITASUN ETA TREBETASUNAK	135
EUSKADI TALENTUA ERAKARRI ETA ATXIKITZEKO POLO MODURA	136
ONDORIO NAGUSIAK	138
Bibliografia	154

SARRERA

SARRERA

Une historiko honetan, ingurune ekonomikoak baldintzaturik, sarritan zaila izaten da epe laburreko planteamenduetatik harago joatea. Haatik, ezinbestekoa da epe ertain eta luzera bilatzen den Herrialde-eredua eraikitzea ahalbidetuko duen galderei erantzutea.

Horrela, eraiki dugun gizarte-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko xedez, derrigorrezkoa da haren sostengu izango den ekoizpen-eredu bat bermatzea.

Txosten honekin Bizkaia Talent ekimenetik ildo horretan planteaturiko kezkei erantzun nahi zaie. Beharrezkoa izango den ekoizpen-eredu hori identifikatzea baino, eraldatzean ari den ekoizpen-eredu bat "elikatu" ahal izateko talentu aldetiko premiak identifikatzea da asmoa.

Horrela, 2020. urtera so dagoen agertoki batekin, ezinbestekoa da ezagutza-esparru ezberdinetan egungo sistemaren bilakaerari eutsi ahal izateko beharrezkoa izango den profesional kopuruari buruzko gogoeta egitea, izan ere, argi dago efektu demografikoek eraginda, derrigorrezkoa izango dela egun lanean dagoen populazioaren zati bat birjartzea.

Halaber, enpleguaren sorrerarekin lotuta, joera-aldaketa bat izango dela igar daiteke. Egoera horri, enplegu-eskaintzetan goi mailako tituludunen eskaera gero eta handiagoa dela gaineratzen badiogu, pentsa daiteke gaurtik eta 2020. urtera bitartean premiazkoa izango dela goi mailako tituludun gehiago "ekoizten" jarraitzea, baina, zenbat? Zein ezagutza-esparrutan? Horiek dira txosten honetan erantzun nahi diren galderak, prestigio handiko hainbat iturritatik hartutako datu historikoen azterketan, arlo horretako erreferente sozialetan egindako kontsultan eta enpresetan (hala erabiltzaile finalistak, nola bitartekaritzakoak) hautaketa egiteko ardura dutenei egindako inkestetan oinarriturik.

METODOLOGIA

METODOLOGIA

Ikerketa paraleloan hedatu diren hainbat fasetan garatu da:

- Dokumentu-iturrien azterketa.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Lan-merkatuari (eskaintza) buruzko Zentsuko mikrodatu-fitxategien azterketa
- Elkarrizketa sakonak enpresetako eta teknologia-zentroetako sailetako, unibertsitateko eta administrazioko arduradunekin.
- Langileak hautatzeko enpresetara eta 10 langile baino gehiago dituzten enpresetako Giza Baliabideetako sailetara bideratutako inkestak

Dokumentu-iturrien azterketa

Unibertsoa:	Euskadi, Espainia, Europa
Dokumentu-iturriak:	<p>Estatistika-iturriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eurostat • Eustat • EIN • Gradudunen lan-egoerari buruzko estatistika Lanbide, Eusko Jaurlaritza • Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Lan-merkatuari (eskaintza) buruzko Zentsua • Hezkuntza-sistema ez unibertsitatekoaren estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. • Ikasleen estatistika. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. <p>Txostenak (ikus bibliografia xehetasun gehiagorako):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eustat • Eusko Jaurlaritza • KES • Lanbide • Bizkaia Talent • Deustu • Etab.

Elkarrizketa sakonak

Unibertsoa:	Unibertsitateak, Giza Baliabideetako Sailak, administrazioa
Laginak:	<p>Enpresak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • IDOM: GGBB Saila • HUMANITY AT WORK MONDRAGON: GGBB Saila • SENER; GGBB Saila <p>Ikerketa- eta teknologia-zentroak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • CICBIOGUNE: GGBB Saila • TECNALIA: GGBB Saila • IK4: GGBB Saila <p>Unibertsitatea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • DEUSTU: Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko errektoreordetza Komunikazioko, Eleaniztasuneko eta Gizarte Berrikuntzako errektoreordetza • EHU: Unibertsitate-Enpresa Harremanetarako errektoreordetza • MONDRAGON UNIBERTSITATEA: Goi Eskola Politeknikoaren Koordinazio Orokorra <p>Administrazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • EUSKO JAURLARITZA, LANBIDE: Kabinete teknikoa • EUSKO JAURLARITZA: Unibertsitateen Zuzendaritza • BEAZ: Antolakuntza arloko Zuzendaritza
Datak:	2014ko maiatza eta ekaina
Gidoia:	Adimenek egina eta Bizkaia Talentek gainbegiratu eta baliozkotua

Enpresetara bideratutako inkestak

Unibertsoa:	-Langileak hautatzeko enpresak -10 langile baino gehiago dituzten enpresetako GGBB Sailak																												
Lagin-errorea:	$\pm 9,5$; % 95ko KM baterako, inkestatutako enpresa guztiak aintzat hartuta. Dena den, langile-multzoaren tamainaren eta kontratazio-ahalmenaren ondorioz, lan-merkatuaren bilakaera aztertzeke halako ikerketetan lagin-errorea murriztu egiten da.																												
Lagina:	-21 inkesta langileak hautatzeko enpresei -103 inkesta enpresetako GGBB sailei: horien artean, 60 enpresetan 50 langile edo gehiago dituzte eta, 32 enpresetan 100 langile edo gehiago.																												
Haztapena:	Lagina ekoizpen-ehunduraren errealitatera doitzeko xedez, haztapen hau burutu da, Enpresen Direktorio Nagusian (EIN) Euskadirentzat adierazten diren datuetatik abiatuz: <table border="1" data-bbox="509 1102 1362 1489"> <thead> <tr> <th></th> <th>Lagin teorikoa</th> <th>Lagin errealia</th> <th>Haztapen-koefizientea</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Industria</td> <td>36</td> <td>47</td> <td>0,7659574</td> </tr> <tr> <td>Energia/hondakin hornidura</td> <td>2</td> <td>1</td> <td>2,0000000</td> </tr> <tr> <td>Eraikuntza</td> <td>10</td> <td>2</td> <td>5,0000000</td> </tr> <tr> <td>Merkataritza</td> <td>11</td> <td>13</td> <td>0,8461538</td> </tr> <tr> <td>Garraioa</td> <td>5</td> <td>7</td> <td>0,7142857</td> </tr> <tr> <td>Zerbitzuak</td> <td>39</td> <td>33</td> <td>1,1875000</td> </tr> </tbody> </table>		Lagin teorikoa	Lagin errealia	Haztapen-koefizientea	Industria	36	47	0,7659574	Energia/hondakin hornidura	2	1	2,0000000	Eraikuntza	10	2	5,0000000	Merkataritza	11	13	0,8461538	Garraioa	5	7	0,7142857	Zerbitzuak	39	33	1,1875000
	Lagin teorikoa	Lagin errealia	Haztapen-koefizientea																										
Industria	36	47	0,7659574																										
Energia/hondakin hornidura	2	1	2,0000000																										
Eraikuntza	10	2	5,0000000																										
Merkataritza	11	13	0,8461538																										
Garraioa	5	7	0,7142857																										
Zerbitzuak	39	33	1,1875000																										
Inkesta-datak	2014ko apirila eta ekaina bitartean																												
Kontrolak:	Galdetegien % 100 gainbegiraturik Datuen irmotasun estatistikoaren kontrola.																												
Galdetegia:	Adimenek egina eta Bizkaia Talentek gainbegiratu eta baliozkotua																												

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Lan-merkatuari (eskaintza) buruzko Zentsuko mikrodatu-fitxategien azterketa

Unibertsoa:	Urte osoan edo urteko zati handiengan ohiko bizileku modura erabilitako familia-etxebizitzetan bizi diren 16 urtetiko gorako pertsonen multzoa.																								
Lurraldea:	Euskal Autonomia Erkidegoa																								
Lagina:	<p>Egungo laginak Autonomia Erkidegoko 14.500 etxebizitza baitaratzen ditu. Laginaren diseinua etapa bikoia eta autohaztatua da, LMZren enplegu-eskualde eta tipologia bakoitzaren barruan.</p> <p>BJAk bezala, LMZk panel gisa funtzionatzen du; beraz, eragiketa honen beste oinarritzko balio bat 16 urtetik gorako biztanleriari dagozkion aldaketei buruzko epe luzerako informazioa eskaintzea da.</p> <p>Urtean inkestatutako biztanleria osoaren lagina:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Urtea</th> <th>Lagina</th> <th>Urtea</th> <th>Lagina</th> <th>Urtea</th> <th>Lagina</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>2001</td> <td>40271</td> <td>2005</td> <td>31462</td> <td>2009</td> <td>26528</td> </tr> <tr> <td>2002</td> <td>39356</td> <td>2006</td> <td>31210</td> <td>2010</td> <td>26629</td> </tr> <tr> <td>2003</td> <td>38256</td> <td>2007</td> <td>30947</td> <td>2011</td> <td>26317</td> </tr> </tbody> </table>	Urtea	Lagina	Urtea	Lagina	Urtea	Lagina	2001	40271	2005	31462	2009	26528	2002	39356	2006	31210	2010	26629	2003	38256	2007	30947	2011	26317
Urtea	Lagina	Urtea	Lagina	Urtea	Lagina																				
2001	40271	2005	31462	2009	26528																				
2002	39356	2006	31210	2010	26629																				
2003	38256	2007	30947	2011	26317																				
Inkesta-datak	Urtero 2001-2003, 2005-2007 eta 2009-2011 bitarteko datuak eskuragarri daude																								
Organismo arduraduna:	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak lagatako fitxategia																								

Hauek dira, ezagutza-esparruaren eta datuak jaso diren urtearen arabera (Kapitulua: "Enpleguaren egoera Euskadin: Banaketa sektoreka"), sektore ekonomiko ezberdinetan okupaturik diren pertsonen azterketa egiteko Lan-merkatuaren (eskaintza) Zentzuan aintzat hartutako oinarriak:

	2001	2002	2003	2005	2006	2007	2009	2010	2011
Teknikoak	1057	1062	1056	797	744	763	824	795	723
Sozialak eta Juridikoak	2250	2279	2370	1919	1845	1894	1662	1633	1530
Humanitateak	439	421	442	352	382	364	347	326	297
Osasuna	544	601	564	457	426	400	425	430	404
Esperimentalak	222	219	238	195	192	207	168	177	158


EMAITZA NAGUSIAK

ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK ETA HORREN ONDORIOAK

Europako biztanleriaren zifrei begiratzen badiegu, azken hamarkadetan aldaketa demografiko nabaria eman dela ikus daiteke, biztanleriaren zahartzearekin eta jaiotze-tasaren jaitsierarekin lotutako fenomenoak azaleratuz.

Euskadiri gagozkiola, egoera hori are nabarmenagoa da Espainiako Estatuan baino, izan ere, biztanleriaren batez besteko adina 43,77 urtekoa da gurean, Espainian baino zertxobait zaharragoak gara beraz, bertan batez bestekoa 41,5 urtekoa baita.


Seme-alaben batez besteko kopuruak ere nabarmen eta etenik gabe egin du behera azken "baby boom" fenomenoaren emana zenetik. Fenomeno hura gertatu eta bi hamarkada beranduago, halako susperraldi bat izan zen, besteak beste, etorkinek bultzatuta. Haatik, 2012an berriro beherakada etorri zen, ugalkortasun-tasa (emakume bakoitzak erditutako seme-alaba kopurua) 1,35ekoa izanik.



Iturria: Eurostat

Immigrazioaren fenomenoak, neurri batean, jaiotze-tasaren beherakada arindu egin du. Horrela, adin ugalkorreetan ziren 1000 emakume etorkin bakoitzeko 63 jaiotza izan dira, eta Euskadiko emakumeen kasuan, 37,6koa da jaiotza kopurua adin ugalkorreetan ziren 1000 emakume bakoitzeko (EIN, behin-behineko datuak). Haatik, arintze hori eteteko arriskuan da, nagusiki, etorkinak jatorrizko herrialdeetara itzultzen direlako edota, krisiaren ondorioz, beste leku batzuetara mugitu direlako lan bila.


Migrazio saldoa (1.000 biztanleko)



Iturria: Eurostat

Alde batetik, jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa eta, beste alde batetik, migrazio-mugimenduak aintzat hartuz, biztanleriaren saldo erreala negatiboa dela ondorioztatzen da, Espainiako batez bestekoaren azpitikoa. Egoera horretan, batez ere, migrazio saldoak du eragina, izan ere, hazkunde begetatiboa zerokoa da.


Biztanleriaren saldo erreala 2012an (1.000 biztanleko)



Iturria: Eurostat (EB-28 orokorrerako daturik ez)

Euskadin biztanleriaren saldo erreala Espainiako emaitzen azpitikoa izan da azken hamarkadan zehar. Bi testuinguru horietan 2007-2008 ekitaldia inflexio-puntua izan zen. Dena den, Espainiarentzat ondorioak negatiboagoak izan ziren eta Euskadin 2012an izandako saldo negatibotik gertu kokatu zen.


Biztanleriaren saldo errealaren bilakaera 2001-2012 bitartean (1.000 biztanleko)



Iturria: Eurostat


Biztanleriaren datuek, adinaren arabera emanda, 2013. urterako EBko 28 herrialdeekin alderatzen baditugu, Euskadiren egoera kezagarria berresten dute, izan ere, rankineko azken postuan kokatzen da, 19 urte bitarteko pertsonen portzentaje txikienarekin eta 64 urtetik gorako biztanleriaren portzentaje handienekin, Letonia, Italia eta Alemaniarekin batera.

Biztanleriaren banaketa adin-tartearen arabera (2013)



Iturria: Eurostat (2013. urterako Erresuma Batuetako eta Errumaniako datuak ez daude eskuragarri)

Bilakaera aztertzeko datuetan ikus daitekeenez, 2001. urteaz geroztik Euskadin adin nagusiko pertsonen proportzioak segmentu gazteena gainditzen du. Badirudi joera hori errepikatu egingo dela Espainian, eta baita EBko 28 herrialdeen batez bestekoan ere, nahiz eta oraindik ez den halakorik gertatu.



Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz


Biztanleriaren joeretan eman daitekeen etorkizuna ezagutzeko, Eustat erakundeak (Euskal Estatistika Erakundea) hainbat proiektio diseinatzen ditu. Horretarako, biztanleriaren hazkundera eragina duten fenomeno demografiko bakoitzaren (heriotza-tasa, ugalkortasuna eta migrazioak) balizko bilakaera-hipotesien konbinazio jakin bat hautatzen du.

Modu horretan, biztanleria osoaren datuek etengabe behera egiten dutela eta pixkanaka biztanleria zahartzen ari dela berrets daiteke. Gaurtik 2020 bitartera, Eustat erakundeak biztanleria % 2,4 jaistea aurreikusten du eta datozen bost urtetan jaitsiera hori %2koa izango dela uste du.

2020. urtera arte 65 urtetik gorakoen biztanleria % 10 haziko da eta bariazio hori biderkatu egingo da 2025 inguruan. Biztanleria gazteak ez du hazkunde hori orekatuko. Aitzitik, 2020. urtean 0-19 bitarteko biztanleria mantendu egingo dela aurreikusten da eta, 2025. urterako nabarmen jaitsiko da, zehazki esatera, % 4,5 inguru.


Lanerako bizi-zikloan dagoen biztanleriari dagokionez ere (20-64 urte), aurreikuspenaren arabera, aipatutako bi denbora-tarte horietan, jaitsiera nabarmena izango da.

Biztanleriaren proiektzioak (Eustat)



Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak)

Biztanleriaren igoera edo jaitsiera (%)



Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak)

Dena den, Eustat erakundeak 7 agertokiren arabera ateratzen ditu biztanleriaren proiektzioak, bilakaera demografikoan eragina duten aldaeren arteko konbinazio ezberdinen baitan. Agertoki horietan erreparatuz eta Eustat erakundearen udal estatistika kontuan hartuz, zazpi agertoki horietatik lautan biztanleria jaitsi egingo dela aurreikusten da, bai horizonte gertukoenean (2020) eta baita urrunekoenean (2025) ere.

Horrela, agertoki ezkorrena hartzen badugu, biztanleria % -4,1 jaitsiko da 2020. urterako eta % -9,2 jaitsiko da 2025. urterako. Aitzitik, agertoki baikorrenean % 1,1eko igoera aurreikusten da 2020. urterako eta % 2,1eko igoera 2025. urterako.

Etorkizun baikorragoa planteatzen duten agertokiei kasu eginik ere, argi dago biztanleria zahartzen ari dela. Agertoki baikorrenean, 19 urte bitarteko biztanleriak % 4,1ko igoera izango du 2020. urtera arte (% 6,2koa 2025. urterako). Hala ere, hazkunde hori apal samarra da 65 urtetik gorakoen bilakaerarekin alderatuta, izan ere, azken kasu horretan igoera nabarmena da 2020. urterako (% 7,9), eta 2025. urteari so portzentajea bikoiztu egiten da (% 18,6).

Agertoki ezkorrena hartzen badugu, egoera lastu egiten da nabarmen. Horrela, biztanleria gaztea 2020. urterako % 14,6 jaitsiko dela aurreikusten da eta beheranzko joera hori bikoiztu egiten da 2025. urterako (% 31). Adin nagusiko biztanleen artean,

ordea, kontrako fenomenoa gertatzen da, izan ere, 2020. urterako % 8,2 igoko dela aurreikusten da eta 2025. urterako portzentajea bikoiztu egiten da (% 19,6).

Horrenbestez, arazo demografikoa agerikoa da, demografia hori baldintzatzen duten aldaeren bilakaera edozein izanik ere. Beraz, argi dago adin nagusikoen bariazioa fenomeno saihestezina dela. Dena den, adin-tarte gazteenean hobetzeko aukera handiagoa da, biztanleriaren zahartze horren ondorio negatiboak arin ditzakeena.


Gauzak horrela, 20-64 urte bitarteko biztanleria jaistean, logikoki, Euskadiko biztanleria aktiboa ere jaitsi egingo da. Horrek eragin garrantzitsua izango du lan-merkatuaren premiak doitzera.

EIN institutuaren datuak eta Eustat erakundeak lan-merkatuari dagokion egungo egoera aztertzerakoan interesgarriak diren bi adin-tarteen inguruan egindako proiektzioak aintzat hartuta ikus daitekeenez, gaur egun 15-64 urte bitarteko 3,16 pertsona daude lan-merkatutik irtetzen den 64 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

2002. urtetik aurrera egoerak okerrera egin du. Orduan, aurrez adierazitako tasa hori 3,9 pertsonakoa zen eta, Eustat erakundearen proiektzioen arabera, egoerak okerrera egingo du eta lan-merkatutik irtetzen den pertsona bakoitzeko 2,5-2,09 pertsona baino ez dira izango lan egiteko adinean (biztanleriari buruzko agertoki baikorrenaren edo ezkorrenaren arabera).

Horrenbestez, Eustat erakundeak egindako proiektzioetan argiro ikus daiteke potentzialki aktiboa den biztanleriaren beherakada.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria potentzialki aktiboa proiektzio-urteko, adin-multzoaren arabera (milaka). 2014-2026




Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak)

Horrela, 2020. urtera arte biztanleria aktiboa % 7,3 jaitsiko dela ikus daiteke, eta hurrengo 7 urtetan % 6,6 gehiago.

Beharakadak 20-49 urte bitarteko biztanleria potentzialki aktiboarengan du eragina. Aitzitik, adinagatik erretiroa hartzetik hurbil dauden pertsonen portzentajeak goranzko joera erakusten du.

Euskadiko biztanleria potentzialki aktiboaren bariazioa adin-multzoaren arabera (2014-2026)



Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak)

Piramide demografikoaren iraulketa kezkarria da belaunaldien arteko elkartasunean oinarritutako ongizate-sistema ahuldu egin dela aintzat hartuta, are gehiago horri sistema hori mantentzeko diru-sarrerak murriztea eragiten duen ekonomia-krisia gaineratzen badiogu. Literatura asko idatzi da gai horri buruz, ebazteko arazo nagusi modura.

Haatik, elkarrizketatutako pertsonen biztanleria zahartzearen ondorioz pentsio-sistemak bizirauteko zailtasunak izango dituela adierazteaz gain, hutsik geratzen ari diren lanpostuak bete ezinik geratzearen arazoa azpimarratu dute, izan ere, lanpostu horietan ez da belaunaldien arteko txanda-hartzerik gertatuko.

Adostasuna agertu dute bizi dugun momentuan aldaketa demografikoa saihestezina dela adieraztean. Horrela, erretiroa hartzeko adinean jende gehiago izango da lan-merkatuan sartzeaz dagoena baino. Ordezkapen horretan izango den gabezia ukaezina da dagoeneko eta egoera hori orekatuko duen doikuntza-plan baten premia nabarmendu dute.

Dena den, horri dagokionez iritzi ezberdinak daude, batzuek besteek baino hurbilago ikusten baitute arazoa.

Epe laburrera ondorio negatiboak aurreikusten dituztenen iritzia urtero 65 urte betetzen dituzten pertsonen kopuru gordinean oinarritzen da, jende hori lan-merkatutik at geratzen baita. Horrela, kopuru hori urtero 24 urte betetzen dituzten pertsonen kopuru gordinarekin (lan-merkatura sartzeko batez besteko adina) alderatzen dute.

Oinarritzko azterketa horrekin, biztanleriaren saldo errealaren balizko bariazioak ez baitituzte kontuan hartzen, argi geratzen da 2009az geroztik bi adin-tarte horiek parekatu egiten direla kopuruari dagokionez eta, hortik aurrera, bien arteko aldea areagotu egiten da. Hala, 2025. urtean 24 urteko 19.000 pertsona inguru izango ditugu, lan-merkatutik irtengo diren 34.000 pertsonen txanda hartu beharko dutenak. Dena den, puntu horretan ez dira baloratzen belaunaldien artean (eta horien barnean, sexuen arabera) enplegu-tasetan agertzen diren aldeak.

Errealitate sozial hori enpresetan islatuko da, bertan ere demografia zaharkiturik izango baita, izan ere, elkarrizketatutako aditu batek adierazten duenez "baby boom izenez ezagututako fenomenoan jaiotakoen adin-tartea kontuan hartzen bada, 2020. urtean lan-merkatuan izango diren pertsona gehienek 44 urte inguru izango dituzte".

Horrela pentsatzen dutenek krisiari leporatzen diote aipatutakoa oraindik ezkutuan dagoen arazoa izatea. Hala ere, egoera ekonomikoak onera egin ahala arazoa azaleratzen joango da. Modu horretan, 20 urteren buruan lan-merkatuan 200.000 pertsona gutxiago izango dira, egun dagoen langabezia gainditzen duen zifra. Berez, aurreikuspen hori Eustat erakundeak 2026. urterako egindako biztanleria potentzialki aktiboaren proiektziora hurbiltzen da, izan ere, proiektzio horren arabera, 179.000 pertsona gutxiago izango dira.

Egoera horretatik eremu ekonomiko guztietan eta maila profesional guztietan pertsona kopuruak behera egingo duela eta talentua baitaratzeko borroka emango dela ondoriozta daiteke.

Ez da egoera berria izango, izan ere, 2006 inguruan titulazio tekniko jakin batzuen gabezia nabarmendu zen. Haatik, kasu horretan ongialdi ekonomikoarekin lotutako arrazoi ezberdinen, ekoizpen-ehunduran teknologia sartzearen edota eraikuntza-sektoreak zuen indarraren ondorioz eman zen egoera hura, eta garai hartan lan-merkatura sartzen zirenak gehiago ziren irteten zirenak baino.

Horrenbestez, Euskadik egoera berria du aurrez aurre, Alemania edo Holandan aspaldidanik bizi dutena eta talentua erakarriz gainditzen saiatzen direna.

Iritzi hori dutenen arabera, Euskadin talentua baitaratzeko borroka izango da eta enpresen arteko lehiakortasuna ez ezik, herrialdeen artekoa eta, batez ere, eskualdeen artekoa ere izango da, izan ere, ingurune fisiko horretan garatzen dute langileek beren lan-bizitza eta familia-bizitza, hots, hori da langileen habitat naturala.

Bestaldetik bestelako aurreikuspena aipatzen da. Aldaketa demografikoa gertatu egingo dela, biztanleriaren zahartu egingo dela eta etorkizunean pentsio-sistemaren iraunkortasuna bideragarria izan dadin pentsiodunak birjartzeko arazoa izango dela aitortzen dutenen multzoa da.

Horiek, ordea, talentua baitaratzeko borroka ez dute horren argi ikusten, hainbat arrazoi direla medio:

- Susperraldi ekonomikoa oso motela izango da, eta susperraldi horrek ez du berekin ekarriko talentua nabarmen galtzea, are gutxiago, 2020-25 epealdiari begira, garai horretan pilatutako zorrak kitatzeko ahaleginean murgildurik egongo baikara.

Langabezia-indizeak eta eskulan-gaineratikoa egoera hori oraindik oso urrun dagoenaren adierazle dira.

- Garapen teknologikoak eragindako ekoizpen-indizeari esker eskulanaren balizko gabezia hori konpentsatu egingo du, izan ere, industriak aurrera jarraitzen du enplegurik sortu ez arren. Elkarrizketatutako adituetako baten ustetan, enplegua BPGd balioaren % 2tik gora sortzen dela dioen ekonomiaren esakunea hautsi egiten da, izan ere, % 1aren azpitik egiteko ahaleginetan gaude, baina aipatu garapen teknologikoaren ondorioz hori ez da beharrezkoa.

Horrenbestez, korrante horretatik adierazten denari kasu eginez, Euskadik aurrez aurre izango duen arazoak ez du biztanleriarekin zerikusirik, lanaren banaketarekin eta ekiteko moduekin baizik; izan ere, garapen industrialaren eta ekoizpen teknologikoaren ondorioz eskulana ez da horren premiazkoa izango ikuspegi kuantitatibo batetik so, eta horrek prestakuntzarik gabeko pertsonengan izango du

eragina, gehienbat. Eta egoera horrek merkatua eta sektore espezializatu baten eskaerari erantzuteko trebetasunak berrantolatzea eskatuko du.

Elkarrizketatutako zenbait adituren arabera, orain ekintzak abiarazi ahal izateko, duela 15 urte aztertu beharreko problematika baten aurrean gaude, izan ere, egoera horren gaineko kontzientzia izan arren, ez zaio arazoari orokorki heldu. Horrela, heldutasun sozial falta nabaritzen da problematika horri eta hura gainditzeko arau eta legeei dagokienez.


Sentsibilizazioa, ezagutzaren sorrera, diagnosis, balorazio soziala, arau-aldaketak eta arau-aldaketa horien funtzionamendua ezaugarri izango dituen prozesu baten premia azpimarratu da.

Haatik, eta ikuspegi aldetiko ezberdintasunak ezberdintasun, elkarrizketatutako pertsona guztiak (unibertsitatekoak, administraziokoak eta enpresetakoak) bat datoz adieraztean badirela eskulanaren gabezia orokorra eta unibertsitate-tituludunen gabezia zehatza arintzeko alternatibak.

Hauek dira lan-merkatuaren gainean biztanleriaren piramideak eragingo duen talka arintzeko aipatutako moduak:

- 1) Alde batetik, Euskadin une honetan lan-merkatutik kanpo dagoen biztanleria-multzoa berreskuratzeko ahalegina burutuko litzateke:
 - Lanik gabe dagoen biztanleria berreskuratzea, ahal den neurrian, Euskadin lanean den biztanleriaren multzoan barneratzeko.


Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren (eskaintza) arabera, 2011. urtean lanik gabe zegoen 16-64 urte bitarteko (lan egiteko gutxienezko legezko adina eta lan-merkatutik irteteko adina) biztanleriaren portzentajea % 27,8koa zen. Gainera, portzentaje horretan emakumeak gehiengoa ziren, nabarmenki.



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Eurostat bulegoari esker Euskadin 2013an langabeen tasa (15-64 urte bitarteko biztanleria aintzat hartuta) zenbatekoa zen ezagut dezakegu. Hala, Europako batez bestekoaren azpitiko indizeak ematen dira gurean, langabeen tasa baxuena duten herrialdeen zerrendan 11. postuan kokatuz.

Langabeen tasa (15-64 urte bitarteko biztanleria), 2013




Iturria: Berezko sorkuntza, Eurostat beluegoaren datuetatik abiatuz

Unibertsitateko hezkuntzaren jabe den biztanleriaren kasuan, kontuan hartuta horien kasuan laneratzea beranduago gertatzen dela, tasa nabarmen jaisten da, erditik behera. Gainera, portzentajeak parekoak dira gizonentzat nahiz emakumeentzat. Haatik, datuek erakusten dutenez, unibertsitate-titulua lortzen duten 10 pertsonetatik bat baino gehiagok lan-merkatutik kanpo geratzea aukeratzen du eta ez du enplegurik bilatzen (Espainiaren eta EB28 herrialdeen kasuan datu horiek

argitaratzen ez direnez, ezinezkoa da Euskadin goi mailako prestakuntza duen biztanleriaren multzoan langabeen egoera erlatiboa ezagutzeko alderaketa egitea).

Zehaztugabeko arrazoiez gain (% 39), 2011. urteko inkestan aipatzen diren arrazoi nagusien artean ikasketak egitea (% 33), pertsonen zainketan aritzea (% 15) eta gaixotasuna eta ezgaitasuna izatea (% 8,3) agertzen dira. Emaitza horiek ikusirik, beren borondatez eta ikasketekin zerikusirik ez duten arrazoen ondorioz lan-merkatutik urruntzen diren unibertsitarioen kolektiboa erakartzeko ekintzak abiatzearen zilegitasuna eta komenigarritasun zalantzan jar daiteke, izan ere, 2011. urtean 20.000 pertsona baino gehiago ziren egoera horretan.

Unibertsitateko hezkuntza egindakoen arteko langabeen tasa (25-64 urte bitartean)



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


- Prestakuntzarik eta enplegurik gabeko biztanleria: elkarrizketatutako pertsonen artean gehien errepikatzen den gogoetako bat zera da, goi mailako prestakuntza kualifikatuaren esparruan inbertsio handiak egiten diren bitartean, lanik egiten ez duten eta, are, prestakuntza-jarduerarik burutzen ez duten pertsonen (gaztelaniaz “Ni-Ni” izendatuak) problematika alde batera uzten dela.

Arazoa derrigortasun aldia amaituta ikasketak uztean hasten da. Ondoren, lan-merkatutik at geratzen dira eta, azkenik, beren burua baztertzen dute.

Ikasketak burutu ez eta lanik ere egiten ez duten gazteen portzentajea handi samarra da hainbat herrialdetan, izan ere, biztanleriaren ia laurdena dago egoera horretan. Herrialde horien artean dago Espainia, zerrendako seigarren postuan.


Profil hori ez da horren ugaria Euskadin, Europar Batasunaren batez bestekoaren azpitik eta Finlandiaren parean kokatzen baita. Hala, ikasketak egin ez eta lanik ere egiten ez duten gazteen portzentajea % 12,6koa da gurean.

Ikasketak egin ez eta lanik ere egiten ez duten 18-24 urte bitartekoek biztanleria (%)



Biztanleria-segmentu horren bilakaera aldakorra izan da urtetan zehar. Horrela, 2008-2009 bitartean eta 2010-2012 bitartean nabarmen ugartu zen portzentajea, maila altuenera iritsiz. Dena den, ondoren % 12,6ra murriztu zen berriro portzentaje hori.

Ikasketak egin ez eta lanik ere egiten ez duten 18-24 urte bitartekoek biztanleriaren bilakaera (%)



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz

Jorratzen zaila den helburua dela uste den arren (prestakuntzaren arlotik kanpoko kausalitatea duen problematika izaki), kualifikatu gabekoen multzoa murrizteko premia ikusten da, izan ere, Espainiako Estatuan arazoa horren larria izan ez arren, arazoak badu eraginik eta etorkizunean beharrezkoa izango den eskulana berreskuratzeko ahaleginean jorratu beharreko beste elementu bat izango litzateke.

Elkarrizketan parte hartu duten batzuen arabera, egungo krisi-egoeran, ikasketarik egin ez eta lanean ere ez daudenen multzoa unibertsitate-tituludunengana ere iritsi da. Horiek, gradua amaitu ostean, gelditu egiten dira, ez dute prestakuntzarekin jarraitzen, ez dira beren kabuz lanean hasten eta ikasketarik egin ez eta lanean ere ez daudenen multzoan sartzen hasten dira. Gainera, haiek utzitako lekua ondorengo belaunaldiak betetzen dute.

Kasu guztietan ezinbestekoa da problematika prestakuntza arloan galdutako inbertsioztat planteatzea.

- Iraupen luzeko langabeak, 40-45 urte bitartekoak, esperientzia profesionala dutenak eta bi egoera mota agertzen dituztenak:
 - Kualifikazio apala izanik eta zaharkitutako ezagutzekin, sistematik kanporatu egiten dira eta berriro sisteman sartzeko aukera gutxi izaten dute, izan ere, jaso dezaketen prestakuntzarekin ezinezkoa zaie berriro laneratzeko gaitasun eta trebetasun berriak baitaratzea.
 - Goi mailako prestakuntza: adina dela medio lan-merkatutik kanporatutako pertsonak, esperientzia eta goi mailako prestakuntza izan arren.

Elkarrizketatutakoen iritziz, bi kasuetan, egoerak okerrera egiten du, batez ere, hurrengo belaunaldiak gaingitu egiten dituztelako. Egoera horretan, beren burua baztertzera jo ohi dute eta beren gaitasunen gaineko konfiantza galdu egiten dute. Horregatik, kolektibo horiekin prestakuntza-planak lantzeaz gain, "ilusioa" ere landu behar da. Pertsona horiek prestatzeko formulak bilatu behar dira, aldi berean, lan egiteko aukera ematen zaien bitartean, prestakuntza amaitzen duten unean hastapeneko puntura itzul ez daitezten.

Esku-hartzeen barruan, enpresetan ere mentalizazio-lana burutu behar da, halako pertsonak har ditzaten, haien adina eta bizi duten uneko egoera kontuan hartu gabe. Elkarrizketatutako pertsonen arabera, enpresak ez daude kolektibo horiekin lan egiteko mentalizaturik, are gehiago, hutsik dauden lanpostuak betetzeko profesional gazteen harrobia eskuragarri izanik.

Hala ere, enpresak justizia sozialeko sistema baten barnean badaude, zenbait irizpide, enplegarritasunerako zenbait parametro, aldatu egin beharko lituzkete, Erantzukizun Sozial Korporatiboaren teoria praktikan jarritz. Gainera, etorkizunean eskulana beharko dela kontuan izanik, aukera horren alde egin dezakete.

- Elkarrizketatutako batzuek uste dutenez, ezinbestekoa da erretiratutako pertsonekin lotutako pentsaera aldatzea, izan ere, pertsonok, gaur egun, onura sozialak ekartzen dituzte (bilobak zainduz, Gobernu Kanpoko Erakundetan lan eginez, etab.) inolako ordainsaririk jaso gabe. Horrek, modu arautuan, urte gehiagoan lan egin dezaketela pentsarazi dezake.

2) Lan-merkatu eskulana ekartzearen ikuspegiari helduz, bi ekintza-lerro aipatzen dira:

- Unibertsitateen talentua erakartzea: kopuru ez handiegian, mundu osotik etorria, sistema instituzional, ekonomiko eta sozialari ezagutza eta balioa gaineratzeko.

Aurreko alternatibaren aurrean, kanpotik talentua erakartzeko borondatea berresten da, baina are gehiago azpimarratzen da kanpotik ekarritako talentua urria izan behar dela, izan ere, tokiko talentua babesten da herrialdearen trakzioa ahalbidetuko duen protagonista modura.

- Ekoizpen-sisteman etorkinak sartzea, baina tokiko biztanleriari ematen zaion tratamendu berarekin. Dena den, elkarrizketan parte hartu duten alor ezberdinetako adituek bi pertsona mota bereizi dituzte aipagai dugun eskulanaren barnean:

- Teknikari arras kualifikatuak, sisteman oso ongi txertatzen direnak eta lehiakorrek direnak.
- Inolako prestakuntzarik gabe iristen diren etorkinak, egoera berean itzultzen direnak inolako alternatibarik eskaini ez zaielako. Pertsona horiek, gainera, beste balio batzuekin etortzen dira eta horrek are gehiago zailtzen du beren laneratze-prozesua. Sistematik "kanporatu" egiten dira.

Azken kasu horretan, tokiko kolektiboekin aplikatzen den esku-hartzea berbera errepikatuko litzateke, integrazioarako bi aldeek egin beharreko ahalegina gaineratuz.

Ildo horretatik, Deustuko Unibertsitateak, Euskadik Zahartzeari eta Lan-merkatuari dagokienez bizi duen egoerari buruz egindako ikerketa batean, bi jarduketa-ildo nagusi proposatzen ditu biztanleriaren zahartze-prozesuaren ondorioak arintzeko: Lan-eskaintzan bertan esku-hartzea eta ekoizpen-ereduaren gainean egiturazko eraldaketa bat gauzatzea, laneraturiko biztanleria gutxiagoz egungo ekonomia-jardueraren mailak mantentzea ahalbidetuko duena.

1) Lan-eskaintzan bertan esku-hartzeari dagokionez, ikerketa honetan migrazio-fluxuen gainean ere eragiteko premia barneratzen da. Dena den, hainbat baldintza ezartzen dira, etorkin motak horien kopuruak baino garrantzia gehiago duela dioen berrespenari jarraituz:

- Lanerako adinean den biztanleriak osatutako migrazio-fluxua
- Biztanleria atzeritarra denbora luzez bertan finkatzea, are, betiko finkatzea.
- Bertako biztanleriaren batez besteko jarduera-tasaren pareko jarduera-tasa.
- Bertako biztanleriaren okupazio-tasaren pareko okupazio-tasa. Horretarako, diskriminazioarekin eta distantzia kultural eta linguistikoarekin lotutako eragozpenak gainditu beharko dira.
- Ikerketa horretan, era berean, etorkin horien giza kapitala bertako langileen berbera edo handiagoa izatearen baldintza zehazten da.

Jarraian txostenean lan-merkatua aldarazteko proposatzen diren beste zenbait neurri zerrendatzen dira:

- Lan-merkatuko partaidetza areagotzea: Jarduera-tasak areagotuz, erretiroaren adina atzeratuz eta enplegu betearen egoerara itzuliz.
- Lanaldia areagotzea.
- Giza kapitala areagotzea, helburu hauek dituzten esku-hartzeen bidez: Eskola-porrotaren mailak murriztea eta hezkuntza ez derrigorrezkoari dagozkion ikasketak (unibertsitatekoak izan zein ez) egiten dituzten ikasleen portzentajea areagotzea; lanean etengabeko prestakuntza-prozesuetara bideratutako denbora eta baliabideak areagotzea; langabetuak prestatzera bideratutako lan-merkatuko politika aktiboak garatzea.


2) Ekoizpen-ereduaren egiturazko eraldaketa gauzatzeko neurriei dagokienez, hauek proposatzen dira:

- Kapital-stocka areagotzea: ekoizpen-eredua eraldatzea suposatzen duena, kapital faktorearen erabileran askoz ere gehiago eragiten duen eredu batera aldatuz.
- Ezagutza sortzera bideratutako baliabideak areagotzea: dagoeneko lanean diren enpresa eta sektoreek garatutako berrikuntza-jarduera areagotuz eta sektore berritzaileen jarduera eta garapena sustatuz.
- Ekoizpen-faktoreetako ekoizpen-ahalmena areagotuz.

EZAGUTZAN OINARRITUTAKO GIZARTEA

Prestakuntza-jarduerari dagokionez herritarrek dituzten joerak

Euskadin, 2012an, biztanleria osoa aintzat hartuz, ikasleen portzentajea Europar Batasunean ematen den portzentajearen parekoa zen. Dena den, Espainiako portzentajea baino zertxobait apalagoa erakusten du, besteak beste, biztanleriaren zahartzearen ondorioz, Euskadin nabarmenagoa baita fenomeno hori.




Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz

(*) UE-28 osoari dagokion 2012ko datua ez dago eskuragarri. 28 estatu kideen baturaren arabera kalkulatua.

Goi mailako hezkuntzan sartzeko eta bertan izateko adin-tartean den (18-24 urte) biztanleriaren datuak kontuan hartuz, hirugarren mailako prestakuntzan diren ikasleen portzentajea kalkulatzen da (*). Adierazle horren arabera, Euskadi hirugarren postuan dago EB-28 rankingean, Esloveniarekin batera, izan ere, adin horretako biztanleriaren % 63,3 goi mailako prestakuntza egiten ari da.

Hirugarren mailako prestakuntzan diren ikasleen portzentajea (%) 18-24 urte bitarteko biztanleria osoa aintzat hartuz (2012)




Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz.

(*) Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Adierazle horrek, orokorki, goranzko joera erakusten du. Are gehiago Euskadiko gazteen kasuan, izan ere, 2001ean portzentajea % 46,3koa zen eta 2012an % 63,3koa.

2009-2011 bitartean nabaritu da gorakadarik adierazgarriena.

Hirugarren mailako prestakuntzan diren ikasleen portzentajearen bilakaera 18-24 urte bitarteko biztanleria aintza hartuta




Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Euskadin lan-merkatuaren barneko eskaintza eta eskariaren arteko doikuntzari buruz hitz egitean, ezin da aipatu gabe utzi Lanbide Heziketaren garrantzia, izan ere, garrantzi handia hartzen du Autonomia Erkidego honetako ekoizpen-ehunduran.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu ondoren, ikasketekin jarraitzea erabakitzen duen biztanleria kontuan hartuz, unibertsitaterako joera handiagoa dela ikus daiteke. Haatik, azken urteetan unibertsitate-ikasketak egiteko joera hori ahuldu egin da, Lanbide Heziketaren alde eginez.


LH eta Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak



Iturria: berezko sorkuntza, unibertsitatekoa ez den hezkuntza-sistemaren estatistiketatik abiatuz. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

2008-2010 bitarteko ikasturtetan areagotu ziren gehien Lanbide Heziketako matrikulazioak, hala maila ertainean nola goi mailan. Hurrengo ikasturteetan unibertsitatean erregistratutako matrikulazio kopuruak apur bat behera egin du; aitzitik, Lanbide Heziketan matrikulazioak gora egiten jarraitzen du, 2011-2013 bitartean gehienbat.

Matrikulazioen bariazioa Lanbide Heziketan eta unibertsitatean



Iturria: berezko sorkuntza, unibertsitatekoa ez den hezkuntza-sistemaren Estatistiketatik abiatuz. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Finean, argi dago Lanbide Heziketa indartu egin dela derrigorrezko hezkuntzaren osteko aukeren artean, nahiz eta unibertsitatera sartzeko eskaerak oraindik gehiago izan.

LHn matrikulatutako ikasleen urtez urteko bilakaera (guztira maila ertainean eta goi mailan)




Iturria: berezko sorkuntza, unibertsitatekoa ez den hezkuntza-sistemaren Estatistiketatik abiatuz. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Lanbide Heziketan matrikulazioak gora egin duela eta unibertsitateko matrikulazioak mantendu egin direla adierazten duten datuei, jaiotze-tasa jaitsi egin dela gaineratzen badiogu, eskola uzteari dagokion tasa murrizten ari dela ondoriozta daiteke.

Horrela, lehenik eta behin, Euskadin 18-24 urte bitarteko gazteen artean % 8,8ak ikasketak utzi zituela ikus daiteke, tasa hori Europar Batasuneko 28 herrialdeen azpitikoa da, eta Espainiako portzentajetik oso urrun dago, zeina buruan kokatzen den Europako herrialdeen artean.


Eskola uzteari dagokion tasa (2013): derrigorrezko hezkuntza egin ostean edo graduatu aurretik ikasketak utzi zituzten 18-24 urte bitarteko gazteak



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz

Eskola uztearen tasaren joerari dagokionez, Euskadin egoera hobetu egin dela ikus daiteke, batez ere 2009. urtearekin alderatuta, orduan 2001az geroztik erregistratutako tasa handiena erregistratu baitzen (% 16).

Eskola uzteari dagokion tasaren bilakaera derrigorrezko hezkuntza egin ostean edo graduatu aurretik ikasketak utzi zituzten 18-24 urte bitartekoen artean



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz


Biztanleriaren formakuntza-maila

Biztanleriaren formakuntza-maila kontuan izanik, Eustat erakundeak 10 urtetik gorako biztanleriarentzat emandako datuek lehen hezkuntzako ikasketak edo apalagoak dituen biztanleriaren bilakaera nabarmena erakusten dute 1986. urtetik. Gainerako, formakuntza-mailek, ordea, gora egin dute, batez ere, unibertsitatekoak.

Unibertsitate-ikasketaren jabe den biztanleriak 1991-2001 hamarkadan egin du gora gehienbat, % 65,6eko hazkunde batekin; 2001-2011 hamarkadan ere goranzko joera mantendu egin da, nahiz eta ez horren sendo (% 20,1)

Aitzitik, Lanbide Heziketaren jabe den biztanleriak % 10,8 egin zuen gora 1991-2011 bitartean. Dena den, aztertutako azken hamarkadan (2001-2011) hazkunde hori bikoiztu egiten da (% 21,6).

10 urte eta gehiagoko biztanleria hezkuntza-mailaren arabera




Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz. Unibertsitate-hazkuntzan hauek sartzen dira: Unibertsitate-eskolak, Eskola Teknikoak, Unibertsitateko Fakultateak, Goi mailako Eskola teknikoak, Bestelako goi mailako ikasketak, Doktoregoak eta graduondoak.

25-64 bitarteko adin-tarteari dagozkion datuak jasoz (unibertsitate-ikasketak burutu ostean lan-merkatura sartzeko batez besteko adina 24 urtekoa dela ulertuta), hirugarren mailako prestakuntzak Euskadin garrantzi gehiago hartzen duela ikus daiteke Europako batez bestekoarekin alderatuta, EB-28 barneko herrialde guztiak gaindituz.

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestatutako Unibertsitate-plana 2011-2014 txostenean 2014. urterako finkatutako helburua (% 45) gainditu egiten da, 2020. urterako finkatutako jomugara hurbilduz (% 50).


Hirugarren mailako hezkuntzaren jabe den 25-64 urte bitarteko biztanleria (2013)



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Unibertsitate-ikasketen jabe den 25-64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzia areagotuz joan da etengabe hala Espainian nola Europa osoan. Haatik, hori nabariagoa da Euskadin, izan ere, 2001-2013 bitarteko epealdian igoera % 14,5koa izan da.


Hirugarren mailako hezkuntzaren jabe den 25-64 urte bitarteko biztanleriaren bilakaera



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Bere proiektzioak garatzeko Eustat erakundeak, adinagatik (0-23 urte), indarrean den hezkuntza-sistemako edozein mailatan barnera daitekeen norbanako oro hartzen du kontuan. Proiektzio horrek hezkuntza-maila bakoitzeko balizko ikasle kopuruari dagokion bilakaeran agertzen diren joerak erakusten dizkigu. Jaiotze-tasa etengabe jaisten ari da eta, jakina, horrek ikasleen kopuru osoa murriztea ekarriko du, batez ere, eskolaurreko (0-5 urte) eta lehen hezkuntzako (6-11 urte) adinean. Aitzitik, unibertsitatean eta bigarren hezkuntzan nahiz LHn izateko adinean den pertsonen kopuruak gora egingo du.


Eskola-adinean den EAEko biztanleria (milaka)



Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Etorkizunera so, eskola-adinean izango den biztanleriaren banaketa kontuan hartuz, 2020. urtera arte unibertsitatean izateko adinean den biztanleria apur bat jaitsi egingo dela ikus daiteke (unibertsitateko matrikulazioetan gaurdaino ikusitako joerekin bat etorriz, biztanleriaren piramideak eraginda). Haatik, hurrengo epealdiari begira, Eustat erakundeak biztanleria horretan gorakada bat aurreikusten du, % 10,4koa, gainerako hezkuntza-mailei dagozkien adinen kaltean. Horrenbestez, inguruabar horrek irakurketa bikoitza erakusten du. Alde batetik baikorra, balizko unibertsitario berrien kasuan orain arte izandako joera negatiboa hautsi egingo delako. Beste alde batetik ikuspegi ezkorra dago, etorkizunean unibertsitatean barnera daitekeen biztanleria-oinarria galdu egingo baita eta, horren ondorioz, arazoa larriagotu egingo da aurrerago.

Eskola-adinean den biztanleriaren bariazioa formakuntza-mailen arabera




Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak). Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz (Biztanleriaren proiektzioak). Adinagatik indarrean den hezkuntza-sistemako edozein mailatan barnera daitekeen norbanako oro sartzen da. Argitalpen-tauletan, Eustat erakundeak 23 urterekin ematen ditu amaitutzat unibertsitate-ikasketak. Adin hori izango litzateke, iraupen luzeena duten karreretako seigarren maila hasteko gutxieneko adina.

Biztanleria aktibo osoa aintzat hartuta, hirugarren mailako-ikasketen jabe den biztanleria aktiboaren portzentajeari dagokionez, Euskadin lehen postuan agertzen da berriro (% 53), EB-28 barneko herrialdeen batez bestekotik oso gora.


Horrenbestez, kualifikazio handiko eskulanerako oinarria dago gurean, 2001tik % 13 areagotu delarik.

Hirugarren mailako hezkuntzaren jabe den 25-64 urte bitarteko biztanleria aktiboa (%) (2013)



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Hirugarren mailako hezkuntzaren jabe den 25-64 urte bitarteko biztanleria aktiboaren bilakaera (%)



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako)

Goi mailako prestakuntzan horren adierazle nabariak dituen herrialde batean, zalantza bat planteatzen da, hau da, dagoen tituludun multzoa baitaratzeko adinako ezagutzamailla izango den ekoizpen-egituran.


Zalantza horren aurrean, elkarriketatutako pertsonen goi mailako prestakuntzaren alde egiten dute. Hori adierazteko Euskadi ekonomia aurreratua dela erabiltzen dute argudio modura, non kualifikazio urriko lanpostuak murriztu egingo diren teknologiaren garapen etengabeak eraginda. Horrela, balio erantsi eskaseko lanetarako gero eta eskulan gutxiago beharko da. Finean, euskal industria balio erantsi gehiago dute ondareak ekoiztera bideratuko dela espero da, non zama teknologikoa handiagoa izango den.

Iritzi horiek bat datoz CEDEFOP (Lanbide Heziketaren Garapenerako Zentro Europarra) zentroak egindako *Future skill needs in Europe - Focus on 2020* ikerketarekin. Ikerketa horretan adierazten denez, kualifikazio urriko lanpostuak nabarmen jaitsiko dira, hala, 1996an lanpostuen herena kualifikazio urrikoa bazen, 2020an soilik % 18,5 izatea espero da. Kualifikazio ertaina lanpostuen % 50ean eskatuko da eta goi mailakoa, eremu tekniko eta zientifikoetan nagusiki, lanpostuen % 31,5ean eskatuko da.

Iritzi horiek Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak ere jasotzen ditu *La adecuación del Sistema Educativo a las necesidades de la Actividad Socioeconómica de la CAPV* izeneko ikerketan.

Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren (eskaintza) datuei so, aurreikuspen horiek berretsi egiten dira, izan ere, 2011. urtean zeuden enpleguen ia erdia enplegu kualifikatuak ziren eta horri lantaldeen gaineko nolabaiteko lidergoa eskatzen duten enpleguak batuta, proportzioa Euskadin okupaturik dauden pertsonen % 80ra areagotzen da.

Kualifikaziorik gabeko enpleguak beheranzko joera erakusten du. Horrela, 2005ean jo zuen goia enplegu mota horrek, izan ere, orduan halako enpleguak ziren enplegu guztien % 30a. Gaur egun, ordea, portzentaje hori % 19,3koa da.




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Enplegu kualifikatua prestakuntza-maila handia eskatzen duen enplegu modura kokatzen duen ezaugarria argiago ikusten da unibertsitateen artean, lanpostu teknikoek garrantzia berezia izanik, enpleguaren erdia baino gehiago hartzen baitute.

Unibertsitate tituludunen artean beteriko kualifikatu gabeko lanpostuaren portzentajeak 2005-2007 bitartean jo zuen goia. Orduetik, ordea, maila apalenetara jaitsi da portzentajea.

Enpleguaren kualifikazio-maila unibertsitate-tituludunen artean



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Horregatik, unibertsitate-tituludunen goranzko joera ez da kontu kezkarria elkarrizketatutako pertsonen aburuz, izan ere, kualifikazio eta ahalmen handiagoa duen gizarte baten isla dela irizten dute. Berez, kualifikazio urriko eskulan asko erabiltzen duen enpresa-eredua dagoeneko oso zalantzarria da, eta nekez iraungo du. Elkarrizketatutako zenbait pertsonen arabera, halako enpresek ezagutza gehiago baitaratzeko ahalegina egin behar dute, pertsona berriak hartuz eta egungo ekoizpen-sisteman zentzu gero eta gutxiagoko lanak egiten dituzten prestakuntzatik gabeko pertsonak birkualifikatuz.

Horrela, kontsultatutako adituen iritziz, aldaketa teknologikoak ez du eragingo eskulana alde batera uztea. Aitzitik, rol-aldaketa bat eragingo du, makinaren erabilpenean kualifikazio handiago baterantz. Makina horiekin gero eta gehiago balioetsiko da efizientzia, berrikuntza eta egokitzapena. Gauzak horrela, gizakiak bestelako eginkizun bat beteko du, ez horrenbestez ekoizpen-lerroarekin lotuta, baizik eta makinaren diseinu, programaketa eta erabakiekin lotuta.

Gaineratiko kualifikazioaren edo okupazio gutxiegiaren fenomenoa

Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren 2011. urteko datuek agerian uzten dute prestakuntza-maila eta kategoria profesionala bikain uztartzen direla enplegu teknikoetan, unibertsitate-tituludunek betetzen dituztenak hamarretik bederatzitan.

Aitzitik, bi alderditan nabaritzen da uztartu ezina, nagusiki:

- Kualifikazio gutxiegia:
 - Alde batetik, zuzendaritzako postuetan, non 10 enplegutik 2 bigarren mailako ikasketak edo apalagoak dituzten pertsonak betetzen dituzten.
 - Beste alde batetik, enplegu kualifikatuaren laurdena lehen mailako ikasketak edo apalagoak dituzten pertsonak betetzen dituzte.
- Gaineratiko kualifikazioa: Kualifikatu gabeko enpleguen % 10 goi mailako ikasketak dituzten pertsonak betetzen dituzte.

Formakuntza-mailaren eta kategoria profesionalaren arteko uztarketa (2011)


	Ez kualifikatua	Kualifikatua	Enkargatuak	Teknikoak	Zuzendaritzako kideak
Lehen hezkuntzako ikasketak edo apalagoak	%42,8	%25,2	%15,3	%0,4	%18,5
Bigarren Hezkuntzako ikasketak	%20,2	%15,5	%11,3	%2,0	%12,9
Lanbide Heziketa	%26,9	%41,9	%43,0	%8,1	%22,6
Unibertsitate Hezkuntza	%10,1	%17,5	%30,4	%89,5	%46,1

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentsuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Lanbidek 2005-2008 bitartean hiru euskal unibertsitateetan graduatutako pertsonen laneratzeari buruzko ikerketa bat burutu zuen (titulazioa lortu eta hiru urtera burutua). Ikerketa horretako datuek erakusten dutenez, betetzen dituzten funtzioen eta eskatutako unibertsitate-tituluen arteko uztarketa handia da.

Haatik, promozio guztietako datuetan ikus daitekeenez, gaineratiko kualifikazioa ematen da hamar gradudunetatik bitan.

Betetako funtzioen eta lanposturako eskatutako unibertsitate-tituluen arteko uztarketa (2008, 2009, 2010 eta 2011)



Iturria: Lanbide

Berez, eskaintza eta eskaeraren arteko doikuntzaren gaiari heltzen zaionean, gaur egunera arteko egoera nahiz etorkizunari begira izango dena aztertuz, kontsultatutako unibertsitate eta entitateek unibertsitarioaren enplegagarritasunean aldaketa bat eman dela aipatzen dute. Halaber, unibertsitario kopuruak goranzko joerarekin jarraitzen badu, unibertsitario horietako zenbaiten kasuan modu saihestezinean gaineratiko kualifikazioa emango dela adierazten dute.

Gizartearen oinarrizko ezagutzan emandako aldaketaren ondorioz, dagoeneko oso gutxi dira unibertsitatetik edo Lanbide Heziketatik at geratutako pertsonak. Horrek zera ekarriko du:

- Enplegagarritasuna eta okupazio gutxiegia: lan-merkatuaren barnean aukera gutxiago, profil baxuagoko lanak, soldata murriztuak, iguripenak betetzeke geratzea, etab.
- Unibertsitarioaren gaineko beste kontzeptu baten sorrera, normalizatu egiten duena eta lehia estuagoan murgilarazten duena, duela zenbait hamarkada zegoen egoerarekin batere antzik ez duen egoera bat sortuz.

Are, unibertsitate-tituludunak proletario bilakatuko direla aipatzen da, baita gaurdaino unibertsitarioen artean "kasta pribilegiatuen" parte izan direnak ere (medikuak, ingeniariak, etab.), gaur egun dagoeneko soldatapekotzat baino ez direlarik hartzen, are gehiago ekonomia-krisiak eta horrek ekarri duen unibertsitate-tituludunen gehiegizko kopuruak eraginda.

Unibertsitarioarengan eman den rol aldaketak, era berean, Lanbide Heziketa amaitu duen tituludun batek egiten duen lan bera eta lan-baldintza beretan betetzea dakar, baina balio erantsia emanez. Are gehiago, unibertsitate-tituludunak lan horietan barneratzean, Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleei zuzendutako esparruetako ezagutzek eta kompetentziek duintasunean irabazten dutela aipatzen da.

Berez, Lanbide Heziketaren (goi mailakoa) eta Unibertsitatearen arteko bateratasuna argi samar ikusten dute elkarrizketatuek, bai antzeko enpleguak betetzeari dagokionez eta baita ezagutza-mailari dagokionez ere: LHko goi mailako gradu teknikoak, pentsamendu espekulatiboko garapen gutxikoak, baina teknikaren gainean duten ezagutza aintzat hartuz, unibertsitate-prestakuntza beharko dutenak.

Horrenbestez, Euskadin izango diren enpleguen profila betetzeko ezinbestekoa izango da Lanbide Heziketa eta unibertsitate-tituludunak behar bezala uztartzea. Horrek, industria-ingurunera beha dagoen ekoizpen-sistema ekonomikoa jarraitzen ari den bidearekin koherente izateko, Lanbide Heziketako tituludunei unibertsitarioei baino garrantzia gehiago aitortzea esanahi du, orain arte gertatu denaren aurka. Gogoeta hori bat dator

Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak "Hezkuntza Sistema, EAEko Jarduera sozioekonomikoen beharrei egokitzapena (2011)" ikerketan hautemandako desdoikuntzekin.

Lanbide Heziketaren bultzada justifikatzeko enpresen sektoretik ematen duten beste arrazoi bat berrikuntza ekoizpen-prozesuaren fase guztietan txertatzeko premiarekin lotutakoa da, izan ere, prozesu hori aurrerantzean ez da soilik teknologia-zentroen esku egongo. Eta, hain zuzen, Lanbide Heziketako goi mailako prestakuntzak berrikuntzarako gaitasun sendoagoa ekar dezake.

Dena den, elkarrizketatutako pertsonen iritziz, unibertsitarioei ere nolabaiteko garrantzia aitortzen jarraitu behar da (% 30-35 aipatzen denez), modu horretan, bi profilak izate aldera, protagonismo osagarria izango baitute:

- Unibertsitarioak: ikuspegi eta orientazio zabalagoa eta pentsamendu espekulatiboa; helburuak eta jarraitu beharreko bidea finkatuko dituzte.
- LH: oso prestatuak teknologiari eta proiektu jakin batzuei dagokienez, lehenengoen segidan kokatu behar dira.

Azkenik eta osagarri modura, dagoeneko lan-merkatuan txertatuta daudenez, bizitzan zeharreko prestakuntza aipatzen da; etorkizuneko bilakaera egokituko diren prestakuntza-planak eratu behar dira, aldaketa teknologiko eta metodologikoak aintzat hartuz nahiz jarduteko eta lan egiteko moduak aintzat hartuz: kudeaketa-planak, malgutasuna, etab. Hori guztiori enpresan ekarpenak bizitza osoan zehar egin ditzaten, une jakin batean erosotasunean amildu beharrean, gizarteari eman ahal dien balioa galduz.

ESKAINZA ETA ESKARIAREN ARTEKO DOIKUNTZA

Kontsultatutako enpresa eta teknologia-zentroek, momentuz, ez dute talentuaren balizko defizitarekin lotutako arazoa planteatu. Kutsu teknologikoko entitateak izatean, ez zuten profil teknikorik eta horrek talentua hautematea zailtzen zuen, bai arrazoi kuantitatiboak zirela medio eta baita titulazio ezberdinetako hautagaiak baitaratzeak soldata aldetik eskatzen zituen betekizunen ondorioz, batik bat hauekin lotuta...

- Espezialitate ezberdinetako ingeniariak.
- Aparejadoreak.
- LADE


Haatik, entitateek horien prestigioa eta marka kontuan hartuta, arazo horrek ez zien gehiegi eragingo, izan ere, unibertsitateekin zuten harreman estuari esker bermaturik zuten beren profil-eskakizunetara egokitzen ziren tituludun gazte askoren harrobia. Baina egoera hori ezin da Euskadiko enpresa guztietara hedatu.

Berez, gaur egun, elkarrizketetan erreparatuz, oso gutxi dira kontratazioan arazoak dituztela aitortzen duten enpresa eta teknologia-zentroak. Edozein kasutan, unez uneko kontuak izaten dira, proiektu oso zehatzak betetzeko premiarekin eta prestakuntza oso espezializatuekin lotuta: Nanoteknologia, doitasun-ingeniaria, ingeniari mekatronikoak, elektronikako ezagutzak dituzten ingeniariak edota mekanikako ezagutzak dituzten ingeniari elektrikoak. Beharrian horiek betetzeko, orain arte, beste herrialde batzuetako pertsonak hartu dira edo zentroan bertan prestatzen dituzten tituludun jeneralistak baliatu dira.

Horrenbestez, elkarrizketatutako enpresen artean, guztiak kutsu teknologikokoak, profil jakin batzuk kontratatzerakoak dituzten zailtasunak ez dute hainbesteko zerikusirik titulazioarekin, baizik eta esperientziadunak izango diren eta, curriculumetik harago, gaitasun eta trebetasun batzuk izango dituzten tituludunak hautematearekin. Dena den, gai horri aurrerago helduko zaio.

Gai hau orokorki aztertuz, inkestetatik lortutako datu kuantitatiboekin, zera ondoriozta daiteke, oro har, enpresek goi mailako tituludun edota gradudunekin lotuta eskaintza eta eskariaren arteko doikuntza egokia dela berresten dutela, batez ere eskaintza kuantitatiboari dagokionez, kualifikazioari buruz kritikoago azaltzen direlarik.


Eskaintza/eskariaren arteko doikuntza unibertsitate-tituludunei dagokienez



Oinarria: 103 enpresa

Hautagaiak baitaratzekoan dauden arazo zehatzetan sakontzean, kontsultatutako enpresen % 16,5ak unibertsitate-tituludunak aurkitzeko zailtasunak aipatu ditu. Gehienbat zerbitzuen alorrean aritzen diren enpresek aipatu dute hori.


Unibertsitate-tituludunak kontratazeko zailtasunak



Oinarria: 103 enpresa

Kutsu teknikoko titulazioak, erizaintzakoak eta enpresa arlokoak dira gehien aipatzen direnak kontratatzeko zailtasunekin lotuta, nagusiki tituludun gutxi dagoelako, esperientzia falta delako, espezializazioa falta delako eta hizkuntza ezberdinak menderatzen ez dituztelako.

Hautemateko zailak diren titulazioak



Oinarria: 103 enpresa

Horrenbestez, kontsultatutako langileak hautatzeko enpresen herenak arazoak izan ditu unibertsitate-tituludunak kontratatzerakoan, nagusiki titulazioa baino ez duten ingeniariak ala hizkuntzak menderatzen dituzten edota profil komertziala duten ingeniariak kontratatzerakoan.

Honatz aipatutako beste zenbait profil: erosketa ingeniariak, alemana menderatzen duten Proyectak, teknikariak oro har, Hizkuntzak, Marketina, gizarte arloko gradudunak.

Langileak hautatzeko enpresen kasuan, eskatzen diren ezagutzak dituzten tituludun gutxi izatea da kontratatzerakoan aurkitzen duten oztopo nagusia.

Langileak hautatzeko enpresek profil jakin batzuk aurkitzerakoan duten zailtasun handiago hori kontuan hartuta, ez da harrizkoa euskal unibertsitateen eskaintzarekin kritikoen agertzen direnak izatea, bai tituludun kopuruari dagokionez eta baita horien kualifikazioari dagokionez ere (kontsultatutako 21 enpresetatik zazpi eta sei, hurrenez hurren, tituludunen eskaintza eta eskariaren artean desdoikuntza dagoela adierazi dute).

TALENTUARI DAGOZKION PREMIEN EREMUAK: ORAINA ETA ETORKIZUNA

Unibertsitate-tituludunen banaketa ezagutza-esparruka

Orain arte, lan-merkatuak ez du tituludunen eskaintza arautu, izan ere, edozein izanik ere horien ezagutza-esparrua, askok lortzen zuten laneratzea. Elkarrizketatutako zenbait pertsonak uste dutenez, hori ikusirik azken 15 urtetan gazteek deieraz unibertsitate-ikasketak aukeratu dituzte, enplegarritasunean gehiegi erreparatu gabe. Egoera horren ondorioz, unibertsitate-titulu ezberdinetako eskaintza eta eskariaren arteko desdoikuntza gertatu da, ongialdi ekonomikoan agerian geratu dena; dena den, egungo krisiaren eraginez arazo hori ezkutuan geratu da, izan ere, merkatuak tituludun ugari baitara ditzake esparru ezberdinetan.

Haatik, etorkizunean hori aldatu egingo da:

- Ekonomiak gora egingo duelako.
- Jaiotze-tasa jaistearen ondorioz goi mailako tituludunen kopurua murriztu egingo denez, ezagutza-esparruen garrantzia iraganean bezala banatzen bada, litekeena da ekoizpen-ehunduraren eta ehundura sozialaren egiatzko beharizanen eta esparru jakin batzuetako tituludunen eskaintzaren artean desdoikuntza gertatzea.

Horrela, kezka nagusia Euskadin ardatz izango diren eta Euskadiren ardatz izango diren esparruetan fenomeno horrek ahalik eta eragin gutxiena izatearekin dago lotuta. Talentua baitaratzeko borrokaren berehalakotasunaren ondorioz desadostasunak eta eztabaidak sortzen diren moduan, Euskadi bide jakin batera begira jarri eta ikuspegi desiragarria zehazteko premiaren inguruan adostasuna dago. Modu horretan, herrialdeko ekoizpen-egitura zein izango den zehazteko eta egitura horri erantzuteko zein ezagutza-esparru eta espezialitate beharko diren zehazteko.

Gauzak horrela, elkarrizketatutako guztien aburuz, hein batean unibertsitate-titulazioen eskaintzak lehenetsi eta ekoizpen-ehundurari eta ehundura sozialari dagozkion oraingo eta etorkizuneko beharizan horiei so jartzeko premiaz hitz egin behar da.


Haatik, arestian aipatutakoak ezin du eragotzi pertsonak beren prestakuntza libreki hautatu ahal izatea. Gainera, ezinbestekoa da titulazio bakoitzeko gradudunen artean nolabaiteko lehiakortasuna izatea.

Gizarte-zientzietan tituludun asko dagoela ikus daiteke, gizartearen eskariarekin justifikatu ezin dena. Hala, elkarrizketatutako pertsonen arabera, teknologia eta zientzia arloko tituludun gehiago behar dira, enpresek egindako eskariak aintzat hartuta, eta

kontuan izanik Euskadiren ekonomia nazioartean bere lekua bilatzen asmatu duen industrian oinarritzen dela neurri handi batean.


Biztanleriaren gaineko datuek hori berresten dute, arlo sozial eta juridikoan unibertsitate-titulua duten pertsonen portzentajeak arlo teknikoak tituludunen portzentajea bikoizten baitu eta, gainerako diziplinetan bezala, joera hori mantendu egin da gutxienez 2001. urtetik.

Unibertsitate-titulua duen biztanleria (64 urtera artekoak), banaketa ezagutza-esparruka



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Hala ere, goi mailako ikasketak amaitu eta lan-merkatuan sartzeko ustezko adinean diren pertsonak aintzat hartuz, aukera sozial eta juridikoetan halako jaitziera bat izan dela ikus daiteke, aukera teknikoan alderantzizko joera batekin, batez ere 2007. urtetik aurrera. Dena den, hurrengo urteetan arlo teknikoari dagokionez joera hori mantendu baino ez da egin, eta arlo sozial eta juridikoko karreretan berriro igoera nabaritu da.




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Unibertsitateko matrikulazioetan erreparatuz, alde batetik, ezagutza-esparru bakoitzaren garrantziari dagokionez dagoen joera ikus daiteke. Horrela, titulazio sozial eta juridikoak lehenesten dira, arloko teknikoko titulazioetatik urrun.

Baina, beste alde batetik, kutsu teknikoko titulazioen kasuan emaitzak ez dira horren onak, izan ere, arlo sozial eta juridikoetan gertatzen den moduan, garrantzia galdu dute titulazio guztiak aintzat hartuta.


Ezagutza-esparruen garrantzia matrikulazioetan. Gradu-ikasketak eta lehen eta bigarren zikloak.



Iturria: berezko sorkuntza, ikasleen estatistiketatik abiatuz. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 2006-2007 ikasturteko datuak ez

Urtez urteko bariazioetan erreparatuz, ezagutza-esparru guztietan ikasle kopuruak behera egin duela ikus daiteke, 2005-2009 ikasturteen artean gehienbat. Horrela, 2008-2010 ikasturteen artean izan ezik, arlo sozialetan ikasle kopuruak gora egin baitzuen, titulazio horietan nahiz titulazio teknikoetan matrikula kopuruak behera egin du ikasturtez ikasturte. Soilik osasunarekin lotutako diziplinetan egin du gora matrikulazio kopuruak ikasturtez ikasturte.

Bariazioak matrikulazioa, ezagutza-esparruka. Gradu-ikasketa eta lehen eta bigarren zikloak.



Iturria: berezko sorkuntza, ikasleen estatistiketatik abiatuz. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 2006-2007 ikasturteko datuak ez

Ildo horretatik, elkarrizketatutako pertsona batzuek RIS3 estrategia eta Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Saila aipatzen dituzte erreferente gisa posizionamenduarekin eta sektore estrategikoen aldeko apustuarekin lotutako erantzunak eskuratzeko. Estrategia batek zehaztutako lehentasunetara so dauden deierak sortzeko premia planteatzen da, estrategia horretan lehentasunak metodologia baten arabera ezarrita. Metodologia horretan hauek kontuan hartuz:

1. Indargune hautemangarriak: enpresa-ehundura lehiakorra, berrikuntzak esplotatzeko gaitasuna duten sektore traktoreekin.
2. Gaitasun zientifiko eta teknologiko bereizgarriak.
3. Gizartearen erronkei eta merkatuko eskariei erantzuteko gaitasuna.
4. Babes espezifiko tresnak izatea, hots, babes-programak eta arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak izatea, zehaztutako estrategia garatu ahal izateko.

Hau da, espezializazioa lehiakorrak eta bereizgarriak izan daitezkeen gaitasunetan.

RIS3 estrategia ZTBP 2015 planean zehaztutakotik abiatzen da, 2015. urtetik aurrera egun indarrean den ZTBP ordeztzeko "Euskadiko ZTBP 2020ren oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak" izeneko dokumentuan jasotzen dena. RIS3 estrategian espezializazio adimentsuarekin lotutako hiru lehentasun zehazten dira, hauekin zerikusia dutenak:

➤ **Fabrikazio aurreratua:** sektore industrialetara bideratutako ikerketa eta garapena jasotzen da, funtsean produktu berriak sortu, material berriak baitaratu eta fabrikazio-prozesuak hobetzeari begira. Jomuga diren sektoreak: Garraioa (Automobilgintza, Aeronautika, Tren eraikuntza, Ontzigintza), Ekipamendu-ondasunak (makina-erreminta, lanabesak, beste ekipamendu-ondasun zenbait), Metala eta Sektore anitzekoa (adimena, materialak eta prozesuak, efizientzia, zerbitzuak).

Helburua: soluzio industrial lehiakoragoak sortzeko premiarekin lotutako erronkei erantzuna ematea (nazioarteko lehia gero eta handiagoaren aurrean), baliabide eta lehengaiak efizienteki erabiltzea eta ekoizpen iraunkorra.

➤ **Energia:** Euskadin energiaren sektorean, esparru ezberdinetan eta balio-kateko etapa guztietan (sorrera, garraioa, biltegitratzea, banaketa nahiz horiekin lotutako industria laguntzailea), I+G arloarekin zerikusia duten jarduera guztiak barneratzen dira.

Helburua: Guztiontzako izango den energia garbi eta merke bat lortzeko premiarekin lotutako erronka eta aukerei aurre egin ahal izatea, iraunkortasunaren aldeko borrokan aurrera egitea eta hiri-eremuetako alternatiba energetikoak hobetzea.

➤ **Biozientzia-osasuna binomioa:** Ekonomiaren dibertsifikazioaren alde egiteko gaitasun handia duen sare zientifiko eta teknologiko batera eraman gaituen estrategia iraunkorrerako apustu batetik eratorrita. Jarduera nagusia giza osasunaren segmentuan pilatzen da, zahartzaroari osasunaren (eta teknologien) ikuspegitik heltzen diona.

Helburua: Gure gizartean osasunarekin eta biztanleriaren zahartzearekin lotuta etorkizunean izango ditugun erronka handiei erantzutea

Gainera, heldutasun-maila ezberdineko hainbat nitxo identifikatu dira, **lurraldearekin** zerikusia dutenak, neurri handi batean barne-eskariak egiten dituzten bezeroei (batez ere, Euskadiko herri-administrazioak) begira dauden gaitasun eta ezagutzak (zientzia arlokoak edo hura aplikatzearekin lotutako esperientziari dagozkionak) baitaratzen dituztenak. Izaera ezberdineko hiru segmentu nagusi identifikatzen dira:

- Hiri-plangintza eta -birsorkuntza: ingurumenaren birsorkuntza, hiri-plangintza eta -soluzioak, ondarearen birsorkuntza (historikoa, industrial), etab.
- Ekosistemak: Uren tratamendu eta deskontaminazioa, lurzoruen birsorkuntza eta berreskurapena, arrisku ekologikoaren monitorizazioa.
- Aisia eta entretenimendua: hizkuntzaren industria, sormen-industriak (aisialdi digitala, edutainment, multimedia, etab.)

Helburua: gure gizartean urbanizazioarekin eta klima-aldaketarekin lotuta etorkizunean izango ditugun erronkei erantzutea

Orobat, RIS3 strategiaren barnean gaitasun zientifiko eta teknologiko adierazgarriak identifikatzen dira, Europar Batasunak Horizon 2020 programan zehaztutako 'Key Enabling Technologies' (KET) izenekoak bereziki azpimarratuz: material aurreratuak, bioteknologia industrial, nanoteknologia, mikroelektronika eta nanoelektronika, fotonika eta fabrikazio aurreratuko teknologiak.

Gaitasun horiek behar bezala garatu eta orientatzen badira, hainbat soluzio aurreratu eta lehiakortasuna ekar ditzakete estrategian identifikatutako enplegua, balio erantsia eta aberastasunak sortzen dituzten enpresa-sektoreentzat.

Bestalde, Gai Sozioekonomikoetarako Lehendakariaren Aholkularitza Kontseiluak 2010ean prestatutako Euskal Sektore Estrategikoak eta horien Etorkizuna izeneko txostenean Euskadirentzat bereziki garrantzitsuak izango diren makrojoera globalak zein diren aztertzen da, soziodemografiaren, ekonomiaren, teknologiaren eta zeharkakotasunaren ikuspegitik. Hauek hautematen dira:

- Biztanleriaren zahartzea
- Konektibitatea areagotzea
- Berrikuntza, sormena eta ekoizpenaren garrantzia berezia
- Globalizazioa
- Heziketa eta talentua abantaila lehiakor modura
- Mundu digitala
- Teknologia garbiak ("Clean Tech")
- Iraunkortasuna eta kontzientzia soziala
- Gobernatzeko modu berriak

Joera horiek kontuan hartuta eta hainbat adierazle gaineratuta, txosten horretan sektore ezberdinak Euskadiko sektore garrantzitsuen edo sektore estrategikoen arabera sailkatzen dira.

Horrela, osasun-zerbitzuak, energia, gizarte-zerbitzuak, IKTak eta elektronika nahiz biozientziak sektore estrategiko modura kokatzen dira, hautemandako makrojoerak aintzat hartzen baditugu, hazteko aukera handia dutenak. Horien posizionamendua, beren posizioaren arabera, hainbat adierazletan banatzen dira:

- Eragin handikoak: zama ekonomiko handia eta eduki teknologiko handia duten sektoreak, sektore aldetiko zeharkakotasuna agertzen dutenak eta nazioarteko makrojoera nagusiekin bat datozenak: Energia, IKTak eta elektronika.
- Katalizatzaileak: gaur egun zama ekonomiko gutxiago dute euskal ekonomian: Biozientziak.
- Tokiko eskaria: zama ekonomiko handiko sektoreak, nazioarteko makrojoerekin lotuta aukera handiak eskaintzen dituztenak, baina, nagusiki, tokiko eskariari heltzen diotenak eta nazioarteko lehiaren eraginaren aurrean horren zaurgarriak ez direnak: Osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak.

Gainerako sektoreak sektore garrantzitsu modura kokatzen dira, nahiz eta horien posizionamenduari erreparatuz ere badiren aldeak:

- Hazteko gaitasuna: hazteko aukera gehien duten sektoreak: Turismoa, Garraioa eta logistika, Aeronautika.

- Garapen berrirako gaitasuna: beren jarduera merkatuan dauden abagune berrietara birbideratzeko aukera handiak dituzten sektoreak: Automobilgintza, Ontzi-eraikuntza, Kimika, Makina-erreminta, Tren-eraikuntza.
- Garapen berrirako premia: oro har, zama ekonomiko adierazgarria izanik, hazteko edo garapenerako aukera gutxiago duten sektoreak, nazioarteko makrojoerei lotuak: Metala, Etxetresnak, Papera

Kontsultatutako enpresa eta ikerketa-zentroei so, hein batean, estrategia politikoak hartzen ari diren norabidea berresten da, izan ere, alderdi ekonomiko hauetara begira egiten dituzte mugimendu guztiak:

- ✓ Energia: etorkizunean sakon ikertzeko alderdia da, energia berriztagarriak bultzatuz erregaiaren erabileraren aurrean. Horri energia-kontsumoa murriztearekin lotutako garapena gainera dakioke.
- ✓ Eraikuntza iraunkorra: obra zibila egiteko moduak hobetzearekin zerikusia duen guztia barneratzen da, izan ere, obra zibilak abagune handiak eskaintzen ditu garapenean diren beste herrialde batzuetan eta hirien garapenean parte hartzea suposatuko luke (smartizazio kontzeptua).
- ✓ Industria: perspektiba hobek eskaintzen dituen sektorea, eta Euskadin fabrikatzen jarraitzeko apustu garrantzitsuekin, azpisektoreen arabera aldeak egon arren. Beherantz doa industria astuna eta, errobotika, berriz gorantz (errobot eta pertsonen arteko lankidetzak ekoizpen-lerroan).
- ✓ Mugikortasuna: industriarekin batera, garraioa da ekonomia eta enplegua ekar ditzakeen alderdia, elkarrizketatutako pertsonen arabera.
- ✓ Osasuna: bioteknologia-osasuna. Biztanleria zahartzen ari denez, osasun arloan bultzada bat izango dela aurreikusten da.
- ✓ IKTak: Edozein eremutan lekua dutenez, eta beste edozein industriatan osagarri modura, bultzada izango dute: zerbitzuak, fabrikazioa edota komunikazioa. Etorkizuneko edozein gizarerentzat alderdi erabakigarria izango dela uste da eta etorkizunean, batez ere, gizon-gailu bitartekari eginkizuna beteko du.

Haatik, elkarrizketatutako pertsona batzuek arreta guztia enpresa-ehunduran ipintzen duen diskurtso bat hartzeak duen arriskuaz ohartarazten dute, izan ere, horrek

ekonomiaren zati handi bat balioetsi gabe uztea dakar, hau da, beharrian sozialari dagokiona, elkarrizketatutako batzuek azpimarratzen dutena, lehiakortasunaren estrategian barneratzen ez den arren:

- ✓ Herrialde baten aberastasunean eragin zuzena dutelako.
- ✓ Eragin zuzen hori ez izan arren, herrialde baten kohesio sozial eta kulturala sustatzen dutelako: "Herrialde bat ez da soilik ekoizteko makina bat, beste zerbait da".

Ildo horretatik, herri-administrazioko langile-multzoaren zahartzapena azpimarratzen da, hezkuntza eta osasun arloan, adinaren batez bestekoa handi samarra delako eta erretirotik hurbil dauden promozio ugari dagoelako, erreleborako dagoen premiarekin batera. Hiru alderdi horiek protagonismo handia dute Euskadiko sektore ekonomikoan.

Gaur egun oreka berreskuratzeko unean gaude, krisiaren murrizketen ondorioz lanpostuak amortizatzeko premia dagoelarik. Dena den, elkarrizketatutako adituen iritzi, amortizazio hori ez da aski izango gauzatu beharreko ordezkatzeko-efektuari eusteko. Zehazkiago esatera, arazo hori nabarmendu egingo da osasunaren sektorean eta administrazioan, lehenengoan biztanleriaren zahartzapenak eraginda eta bigarrengoan langile-multzoaren zahartzapenak eraginda. Bestalde, hezkuntzari dagokionez birdoitze bat gauzatu beharko da eskari urriak eraginda (jaiotze-tasaren jaitsierak eratorria).

Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuei esker osasunaren, hezkuntzaren eta herri-administrazioaren sektoreetako eskulana zein egoeratan den jakin dezakegu, adinaren arabera. Horrela, 2011. urtean jasotako datuen arabera, egun sektore horietan dauden langile-multzoak hartuta, hurrengo datuak ondorioztatzen dira 2020. urteari begira:

- Herri-administrazioa: 2020. urterako batez besteko adina 46,05 urtekoa izango da eta lanean izango diren pertsonen % 41,8ak 55-64 urte bitartean izango ditu.
- Heziketa(*): 2020. urterako batez besteko adina 42,7 urtekoa izango da eta lanean izango diren pertsonen % 33,1ak 55-64 urte bitartean izango ditu.
- Osasuna(*): 2020. urterako batez besteko adina 43,8 urtekoa izango da eta lanean izango diren pertsonen % 34,7ak 55-64 urte bitartean izango ditu.

(*) Esparru publiko eta pribatua batzen dira osasunaren eta hezkuntzaren sektoreetan.

Euskadiko Barne Produktu Gordinaren azterketa (BPGd)


Etorkizunari begira zein estrategia kontuan hartu behar diren zehazteaz gain, zein profil mota eskatuko diren jakite aldera, komenigarria da orain arte sektore ekonomikoetan izan diren joerak ezagutzea, bai Barne Produktu Gordinari egindako ekarpenari dagokionez eta baita enpleguari egindako ekarpenari dagokionez ere.

Balio Erantsi Gordinaren (BEGd) gainean eskuragarri dauden datuetatik abiatuz, industria-sektorearen ekoizpen-egitura aztertu eta bere bilakaera ikus daiteke.

Horrela, 2001-2011 bitarteko epealdia hartzen badugu, "bitartekaritza finantzarioarekin, higiezin jarduerekin eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuekin" lotutako sektorea Euskadin BEGd orokorrean ekarpen handiena egin duen sektorea dela ikus daiteke 2008az geroztik, "industria eta energiaren" kaltean. Azken bi horien ekarpena nabarmen jaitsi zen 2008tik 2009ra eta, geroztik, antzera mantendu egin da. Haatik, zehaztu behar da industriaren garrantzia Barne Produktu Gordinean eta enpleguan egiten duen ekarpen zuzenetik haragokoa dela, izan ere, berrikuntzari bultzada ematen dio eta eginkizun garrantzitsua betetzen du industria eta enpresetara bideratutako zerbitzuekin zerikusia duten jardueren sorreran nahiz garapenean.

Eraikuntzari dagokionez, datuek igoera bizkorra erakusten dute 2007. urtera arte. Urte horretatik aurrera, Balio Erantsi Gordinean egiten duen ekarpena mintzagai dugula, atzerakada nabarmena eta jarraitua da, etenik gabe. Aitzitik, "merkataritzaren, konponketen, ostalaritzaren, garraioen eta komunikazioen" garrantzia erlatiboa areagotu egiten da. Joera hori are argiagoa da "Zerbitzuko beste jarduera batzuk" sektorean, batez ere, Barne Produktu Gordinean egiten duten ekarpenarekin lotuta, hezkuntzan, osasunean eta herri-administrazioetan nabari den hazkundeari esker.

*EAEko Balio Erantsi Gordina (BEGd) sektoreka (eskaintza)
Prezio arruntak (mila euro)*




Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

Kontuan hartuta Barne Produktu Gordin errearen urtez urteko bariazioa sektore guztien gainean, goranzko joera antzematen da 2002-2006 bitartean, 2007. urtean amaitzen dena atzeraldi leun batekin, 2008an hazkundeak abiadura galtzen duelarik modu nabarmenean, 2009. urtean gertatuko zenaren atariko modura, Barne Produktu Gordina % 3,9 erorita. 2010. eta 2011. urteetan gorakada bat nabaritu zen, baina sendoa izan gabe. Horrela, 2012an balio negatiboak itzuli ziren, % 1,6ko erorita.


Kanpoko testuinguruaren oinarritzko agertokitik abiatuz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekonomiak Euskadin egonkortzera egingo duela aurreikusten du 2014. eta 2015. urteetan, batez ere, barne-eskaria berreskuratzeari esker. 2014an ekonomia % 1,0 haztea eta 2015ean % 1,7 haztea espero da, nahiz eta oraindik krisiaren aurretiko zifretatik oso urrun.

BPGd errearen urtez urteko hazkunde-tasa, bolumen-indize kateatuaren arabera neurtuta



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa (eskaintza), sektoreka (prezio arruntak)



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

2001-2012 epealdiari dagokionez erreferentziazko esparru nagusietan balio erantsiak izandako bilakaeran, balio arruntetan, erreparatzen badugu, oso balio ezberdinak ikusiko ditugu hazkunde-tasetan.

Lehen sektorea da urteetan zehar portaera aldakorrena izan duena. Hainbat igoera eta jaitsiera izan ditu, joera argirik erakutsi gabe. Sektore horretan atzeraldi nabaria izan zen 2008. eta 2009. urteetan, baina ondorengo urteetan egoerak hobera egin zuen. Dena den, sektoreak Euskadiko ekonomiaren BPGd orokorrean ekarpen oso gutxi egiten duenez (2012an % 0,9), mugimendu horiek oso eragin eskasa dute sektore guztiei

dagozkien emaitza ekonomikoetan. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren arabera, 2014an % 3 haziko da lehen sektorea. Haatik, 2015. urtean tasa negatiboak izango ditu (% -1,7).

“**Eraikuntzaren**” sektorean bi garai ezberdindu behar dira. Alde batetik, 2001-2007 bitartean hazkundea etengabea izan zen, goranzko tasa aldakorrek. Egoera horrek 2007. urtean jo zuen goia (% 17,4). Hortik aurrera, ordea, atzeraldia etorri zen, aztertutako azken urtera arte mantendu zena, eta ez dirudi egoera asko aldatuko denik. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenek adierazten dutenez, 2014an behera egingo du sektoreak (% -1,5), 2015ean egoera apur bat hobetuko delarik, tasa negatiboekin jarraitu arren (% -0,2).

“**Industriari**” dagokionez, 2004. urtean jo zuen hazkundeak goia (% 9,3). Haatik, urte horretatik aurrera atzeraldia nabaria da, eta hazkundearekin lotutako datuak askoz ere apalagoak dira. Horrela, 2008. urtea izan zen azken urte positiboa, oso apala. Ondoren, 2009an, beherakada bortitza izan zen, % 19 galdua. Hala ere, egoera hori momentukoa dela dirudi, izan ere, 2010. eta 2011. urteetan susperraldia oso argia izan zen, 2012an mantendu ez bazen ere. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenetan erreparatuz, 2014an sektoreak susperraldia izango du, BPGd % 1,6 haziko da eta egoera are hobetagoa izango da 2015ean, % 2,8ko bariazio batekin.

- Industrian jaitsiera handienak “Koke-fabrikak eta petrolio finketa” azpisektorean nabaritu ziren, epealdiaren amaieran Balio Erantsi Gordinak oso datu ezkorra (% -29,8) erakusten zuelarik, aurreko urtean gainbehera askoz ere handiagoa izan ondoren (% -52,7), neurri batean, 2010ean izandako hazkunde handiaren erruz.
- “Erauzketa-industria” jarduerak, 2009. urteaz geroztik atzeraldi nabarian dena, eta “ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak” izeneko jarduerak oso emaitza kaskarrak erakusten dituzte aztertutako azken urtean.
- Euskadiren industriaren errealitatean “Metalurgia eta produktu metalikoak” izeneko jarduera ere erabakigarria da. Bada, jarduera horrek 2008. eta 2009. urteetan izan zuen atzeraldirik nabariena eta, hurrengo bi urteetan hazkundetasak positiboak izan arren, ez du lortu jaitsieraren aurreko egoerara itzultzerik.
- “Makineria eta ekipamendua” eta “Garraiorako materiala” dira 2009. urtean atzeraldia izan ostean, susperraldia izan zuten bi jarduera bakarrak, hurrengo

urteetan hazkunde-tasa positiboak izan zituztelarik. Hala ere, azken urteko saldo estuen ondorioz, etorkizunean izango duten bilakaera zalantzazkoa da.

*EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa jardueren arabera
Industria eta energia*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Erauzketa-industriak	%32,7	-%15,5	-%2,8	-%2,0	%6,1	%9,7	-%0,3	-%7,8	-%19,7	-%29,2	-%27,3
Elikadura, edari eta tabakoaren industriak	%3,0	%6,9	%20,1	%6,5	-%0,9	%3,3	-%1,5	-%3,8	%8,6	-%4,2	-%2,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak	%11,5	-%19,1	%3,3	-%4,6	%28,4	%10,0	%2,1	-%21,1	-%5,2	%12,1	-%20,7
Zura, papera eta arte grafikoak	%4,1	-%2,8	%0,2	%5,2	%8,2	%4,1	-%4,4	-%12,2	-%3,2	%7,5	-%3,2
Koke-fabrikak eta petrolio finketa	-%45,9	%40,3	%117,3	%49,5	-%31,9	-%7,8	-%41,3	-%10,7	%55,0	-%52,7	-%29,8
Kimika-industria	%10,0	%5,5	-%1,3	%8,1	%5,2	-%13,4	%0,9	-%13,7	%2,4	%3,7	-%3,1
Farmazia-produktuak	%11,6	%6,9	-%0,2	%10,3	%3,8	-%19,1	%3,0	-%13,5	%13,4	%28,5	-%5,5
Kautxu, plastiko eta beste material ez metalikoak	-%1,0	%5,2	%2,5	%11,7	%0,1	%1,2	-%0,2	-%21,6	%8,1	%3,3	-%0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	%3,7	%0,3	%11,7	%5,3	%9,1	%12,8	-%2,5	-%34,1	%5,8	%3,5	-%4,3
Produktu informatiko eta elektronikoak	%1,5	%1,1	%3,0	%5,7	%10,4	%3,1	%2,8	-%16,0	%13,9	%3,9	-%0,8
Material eta ekipamendu elektrikoa	-%2,7	%3,2	%5,6	%4,0	%5,2	-%0,4	%6,4	-%12,5	-%0,4	%0,5	-%4,4
Makineria eta ekipamendua	%1,9	%1,0	%4,3	%5,5	%8,0	%4,3	%1,7	-%6,3	%3,9	%9,4	%0,8
Garraiorako materiala	%4,1	%10,9	%4,2	-%3,8	%3,8	%9,0	%2,8	-%17,5	%8,0	%5,1	%0,5
Altzariak eta bestelako enbriak	%5,4	%0,9	%0,1	%9,4	%4,7	%0,6	-%3,3	-%9,3	%4,8	-%10,2	-%10,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	%4,2	%8,2	%22,1	%20,4	%17,0	%3,5	%23,6	-%6,8	-%4,6	%3,4	-%4,4
Ur hornidura eta saneamendua	%4,7	%4,6	%6,6	%9,9	%10,3	%5,5	%4,1	-%2,4	%12,7	%2,0	-%5,2
Guztira	%2,4	%3,0	%9,3	%7,7	%5,8	%5,7	%0,9	-%19,0	%4,5	%1,9	-%3,5

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

“Merkataritza, konponketak, ostalaritza eta garraioa” izeneko sektorean hazkundera mantendu egin da urtez urte, krisiaren efektuei muzin eginez. Dena den, azken urteotan, hazkundera askoz ere apalagoa izan da.

“Ostalaritza” jarduerak erakusten du portaera baikorra Balio Erantsi Gordinaren bilakaerari dagokionez, sektoreko gainerako jarduerekin alderatuta. Hala, krisialdian hazkunde nabarmena izan zuen. Aitzitik, “garraioa eta biltegiatzea” jardueran emaitzak okerragoak izan ziren, 2010. eta 2012. urteetan bariazio negatiboak izan zirelarik, nahiz eta 2009. eta 2011. urteetan tasak positiboak izan, egoera oraindik 2008az aurretiko urteetakoak izan gabe.

*EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa jardueren arabera
Merkataritza, konponketak, ostalaritza eta garraioa*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Merkataritza; ibilgailuen konponketa	%7,1	%6,6	%7,9	%5,7	%7,8	%6,2	%4,7	-%1,9	%1,4	%2,1	%1,3
Garraioa eta biltegiatzea	%5,1	%4,9	%5,9	%5,3	%8,1	%6,8	%4,1	%0,8	-%3,0	%3,5	-%1,6
Ostalaritza	%6,3	%6,2	%5,5	%7,1	%6,8	%9,5	%4,5	%3,9	%8,0	%3,7	%4,0
Guztira	%6,4	%6,0	%6,9	%5,9	%7,7	%7,0	%4,5	%0,0	%1,6	%2,8	%1,2

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

“**Informazio eta komunikazio zerbitzuak**” sektorean merkataritzan ematen den joera bera errepikatzen da, hazkunde etengabe baina oso motel batekin 2008az geroztik, azken urtean saldo negatiboa erakusten duelarik.

Telekomunikazioen jarduera da urte guztietan bariazio positiboak erakusten dituen bakarra, nahiz eta 2007az geroztik atzeraldian egon.

Informatika-jardueretan gainerako jardueretan baino nabariagoak dira krisiaren ondorioak. Hala, aztertutako epealdia zeroz azpiko emaitzekin amaitu da, nahiz eta datua ez horren kezagarria izan “edizioa, irudia, irratia eta telebista” jarduerarekin alderatuz, azken hori baita sektorearen Balio Erantsi Gordinaren bariazioan emaitza kaskarrenak erakusten dituena.

*EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa jardueren arabera
Informazio eta komunikazio zerbitzuak*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Telekomunikazioak	%4,2	%5,9	%6,6	%7,3	%7,8	%4,6	%4,1	%1,6	%0,8	%2,0	%1,3
Edizioa, irudia, irratia eta telebista	%3,9	%5,0	%2,7	%7,3	%1,9	%2,9	-%1,8	-%6,8	%1,7	-%0,6	-%7,8
Informatika	%7,2	%7,7	%8,4	%6,7	%11,4	%12,1	%7,9	%3,9	%0,6	%3,6	-%0,4
Guztira	%4,8	%6,1	%6,1	%7,1	%7,4	%6,2	%4,0	%0,7	%0,9	%2,0	-%0,8

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

“**Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alkairu eta -zerbitzuak**” da 2008. urtera arte portaera baikorrena erakusten duen sektorea. Urte horretatik aurrera, ordea, atzeraldia oso bortitza da, hazkunde-tasa askoz ere apalagoekin, eta bariazio negatibo batekin 2010. urtean, hurrengo urteetan susperraldirako joera izan arren.

Jarduera ezberdinei dagokienez, 2008. urtera arte hazkundera mantentzen da guztietan, neurri txiki edo handiagoan. Urte horretatik aurrera aldeak nabariagoak dira.

“Higiezin jarduerak” da hurrengo urteetan hazkunde positiboa erakusten duen bakarra, gorabeherak izan arren; “aholkularitza eta jarduera teknikoak” izeneko jardueran ikusten da erreakziorako gaitasun handiena 2009an izandako behaldi bortitzaren ostean; “finantza-jarduerak eta aseguruak” eta “beste jarduera profesional batzuk” jarduerak dira egoera okerrenera erakusten dutenak, inflexio-puntuaren ostean susperraldi txiki batekin, egonkortu gabe, hala ere.

*EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa jardueren arabera
Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alkairu eta -zerbitzuak*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Finantza-jarduerak eta aseguruak	%3,4	%5,5	%5,0	%6,7	%11,5	%9,4	%6,1	-%1,5	-%6,1	-%1,5	%2,7
Higiezin jarduerak	%6,2	%7,7	%8,8	%7,7	%8,4	%5,4	%8,4	%6,9	%1,2	%3,7	%2,0
Aholkularitzak eta jarduera teknikoak	%6,7	%8,8	%8,9	%7,8	%8,9	%10,1	%9,8	-%1,1	%3,1	%5,9	%2,5
Ikerketa eta garapena	%7,0	%8,1	%7,5	%5,6	%9,0	%10,6	%11,1	-%0,1	%7,2	%5,1	-%1,7
Beste jarduera profesional batzuk	%7,2	%8,6	%9,3	%6,9	%8,9	%9,9	%9,6	-%1,0	-%4,5	%3,4	-%3,3
Laguntza-zerbitzuak	%7,1	%9,0	%9,2	%7,8	%9,1	%9,7	%9,0	-%1,7	%4,0	%3,5	-%3,6
Guztira	%5,6	%7,4	%7,7	%7,4	%9,5	%8,0	%8,1	%1,8	-%0,2	%2,7	%1,4

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” da krisiaren aurrean gehien indartzen den sektorea. Hala, 2012. urtean soilik izan zuen bariazio negatiboa Balio Erantsi Gordinari dagokionez, aurreko hiru urteetan hazkundea dezente apaldu bazen ere.

Sektore horren barruan portaerak oso ezberdinak dira eremuaren arabera, guztiek baterako joera argi bat erakutsi gabe. Gainera, bakoitzari so ere ez da bilakaera argirik antzematen. Edozein kasutan, egoera okerragotik abiatu arren, “etxeko jarduerak” jarduerak gaitasun handiagoa erakutsi du krisialdian, “Aisialdi eta kultura jarduerak” jarduerarekin gertatzen den bezala. Bestalde, “herri administrazioa eta defentsa” “hezkuntza” eta “osasun jarduerak” jarduerak balio negatiboetan amaitu zuten 2012. urtea. Horrela, sektorearen ekarpenean duten garrantzia dela medio, urte horretan sektoreak orokorrean bariazio negatiboa izan zuen.

*EAEko balio erantsiaren (BEGd) bariazioa jardueren arabera
Zerbitzuetako beste jarduera batzuk*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012
Herri administrazioa eta defentsa	%6,1	%4,6	%5,1	%6,0	%6,3	%6,3	%9,0	%0,6	%0,7	%2,7	-%4,7
Hezkuntza	%5,8	%5,9	%4,7	%6,6	%7,0	%9,4	%6,4	%8,6	%3,8	-%0,4	-%2,5
Osasun jarduerak	%6,8	%4,5	%5,6	%7,0	%7,8	%11,1	%10,5	%7,0	%2,6	%0,9	-%1,4
Gizarte zerbitzuetako jarduerak	%9,2	%7,7	%5,7	%5,7	%8,2	%10,4	%8,8	%7,9	%1,8	%1,7	%0,6
Aisialdi eta kultura jarduerak	%5,8	%5,9	%4,7	%2,1	%9,5	%8,6	%3,3	%8,9	%8,8	%5,4	%2,4
Beste zerbitzu batzuk	%6,5	%6,7	%6,7	%7,7	%6,8	%4,5	%3,8	%5,9	%0,9	%3,6	%1,5
Etxeko jarduerak	%6,2	%3,5	%3,3	%13,0	%7,3	%3,5	%4,5	%6,3	%0,2	%13,1	%0,9
Guztira	%6,3	%5,2	%5,1	%6,6	%7,2	%8,4	%7,9	%5,7	%2,5	%2,0	-%1,9

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz; Kontu Ekonomikoak

I+G erako jardueretako joerak Euskadin: enplegua eta gastua

Gaur egun, eztaba daezina da berrikuntza dela bultzatu beharreko ekonomia baten ardatza – “uste da herrialde aberatsek aberatsak izateagatik inbertitzen dutela ikerketan, errealitateak dioenez, ordea, aberatsak dira ikerketan inbertitzen dutelako”-; ikerketak patenteak dakartza, hortik enpresak sortzen dira eta, horren ondorioz, aberastasuna.

I+G sektorearen entitateak, alde batetik, kezkatuak azaltzen dira egungo egoera ekonomikoa dela eta. Baina, beste alde batetik, Euskadin sektorea krisialditik eta murrizketatik at mantentzeko egin den ahalegina aitortzen da. Ikuspegi hori indartu egiten da Espainiak bizi duen egoerarekin alderaketa egiten bada. Hala, Espainian aurrekontu asko desagertu egin dira eta Euskadin, apustuari eutsi zaionez, ez da beharrezkoa izan deskapitalizatzea eta ezagutza sortzeko dauden azpiegiturak desmuntatzea.

Bere biziraupenaren mendekotasuna handia da eta, etorkizunerako aurreikuspenak gobernuaren legealdiaren iraupenera murrizten dira. Horrenbestez, politikariei I+G sektorea hastapenetik inbertsioa dela, eta ez gastua, sinets dezatela eskatzen zaie. Horrela, inbertsioa mantendu egin behar da denboran, aldaketa politikoetatik harago, eta gero eta kopuru handiagoan.

Ildo horretatik, Eustat erakundearen datuek I+G arloko gastu publikoa, Barne Produktu Gordinaren gaineko portzentaje modura, goranzko joerarekin mantendu dela erakusten dute, modu nabariagoan krisialdiaren lehen urteetan, agian data horietan Barne Produktu Gordinak jaitsiera izatean bere garrantzia erlatiboa areagotzeak eraginda.


I+G arloko Gastu Publikoa Barne Produktu Gordinaren % modura

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Kontsultatutako entitateen barruan, I+G arloko gastua, funtsean, sektore publikotik dator. Aitzitik, sektore pribatua uzkurrago agertzen da epe ertain eta luzerako proiektuetan inbertsioak egiteari dagokionez, berehalako emaitzak bilatzen baititu. Baina, beren prozesu, produktu edota zerbitzuetan I+G arloa txertatu dutenek egoera hobea dute krisialdian.

Hori dela eta, I+G arloko entitateetatik eta herri-administrazioetatik enpresetan ikerketaren presentzia areagotzeko apustua egiten da, enpresa txiki eta ertainetan ahalegin berezia eginez, horiek baitira gure ekoizpen-ehundurako protagonista nagusiak.


Europarekin alderatuz, Euskadin Barne Produktu Gordinaren gainean I+G arloan egiten den gastu osoa Belgikan edo Herbehereetan egiten denaren parekoa da, eta Europako eta Espainiako batez bestekotik gorakoa.



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

I+G arloko gastua, Barne Produktu Gordinaren gaineko portzentajeetan, etengabe areagotu da 2004-2011 bitartean. Azken urte horretan murrizketa apal bat hautematen da, 2012an maximo historikora iritsi arte. Gainera, 2010az geroztik, adierazle hori Europako batez bestekoaren gainetik kokatzen da.


I+G arloko gastu osoaren bilakaera (Barne Produktu Gordinaren %)



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen eta Eurostat Bulegoaren datuetatik abiatuz
1997-2004 urtetako datuak 2005eko BPGd oinarriaz kalkulatu dira; 2005-2012 urtetako datuak 2010eko BPGd oinarriaz kalkulatu dira.
2012ko Euskadiko datuak BPGd aurreratuz kalkulatu dira

Ikerketa eta Garapena sendotu egiten dira berrikuntzaren ardatz modura, osagai hori ez duten jarduera berritzaileen aurrean. Horrela, I+G arloko berrikuntzaren joera sendotu egiten da, gainerako berrikuntzaren kaltean, gero eta garrantzia gutxiago duena.

Enpresako Inbertsioen Adierazleak. EAE. 2005-2012




Iturria: Berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Euskadin sektore publikoan Ikerketa eta Garapenaren alde egiteari eta, horrez gain, berrikuntzarako azpiegitura eta sareak mantendu eta garatzeari esker, kontsultatutako teknologia-zentro gehienek beren langile-multzoa mantentzea lortu dute azken urteetan, egoera mantenduz edo, are, hazkunde apala izanik. Gainera, apustu hori zentro horien negozioarako estrategiaren parte ere bada.

Europarekin alderatuz eta kontuan hartuz I+G arloan ari den langile kopurua, okupatutako langile guztiekiko, Euskadi hirugarren postuan dago, Finlandia eta Danimarkaren ostean eta Europako batez bestekotik eta Espainiatik oso gora.

Ikertzaile kopuruari dagokionez, Euskadi laugarren postuan da, Portugalek hirugarren postua eskuratu ostean. Dena den, Europako batez bestekotik eta Espainiatik gora.


I+G arloan ari den biztanleria (%) okupatutako biztanleria osoarekiko, 2011



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz

Ikertzaileen bilakaera, okupaturako langile guztiekiko, goranzkoa izan da, baita krisialdian ere. Hala, 2010. urtean jaitsiera izan arren, hurrengo urtean berriro goranzko joerari heldu zitzaion.


I+G arloan ari den biztanleriaren (%) bilakaera okupaturako biztanleria osoarekiko



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Eustat erakundeak I+G arloan ari diren langileei buruz dituen datuen arabera, urtez urte goranzko joera mantendu egin da. Dena den, hazkundearen intentsitatea ez da egonkorra izan eta ez da joera zehatzik finkatu. Krisialdia hasi zen urtetik, 2007tik, 2009ra izan da hazkundera nabariagoa. Urte horretatik aurrera hazkundera hori nabarmen apaldu da.

I+G arloan ari diren langileen urtez urteko bariazioa EAEn.




Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Ikertzailearen irudia da I+G arloan Euskadik duen giza baliabide nagusia, langile guztien % 59,2 izanik. Langile teknikoak % 30,4 dira eta laguntzaileak % 10,3. Horrenbestez, I+G arloan aritzen diren 10 pertsonatik ia 9k, oinarrian, ikertzaile eta teknikari lanak betetzeko eskatzen den unibertsitate-titulu bat dute.

Dena den, kualifikazio gehiagoko mailetan, ikertzaileen kopurua jaitsi egin da 2008az geroztik, teknikarien kaltean (2008an ikertzaileak % 63,7 ziren eta teknikariak % 25,2). Laguntzaileen kasuan, berriz, egoera egonkorragoa da.


I+G arloan ari den langile kopurua osoa EAEn.



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Zientzia arloko diziplinei dagokienez, "ingeniaritza eta teknologiarekin" lotutako ikerketan ari da langile gehien (% 63,6). Portzentaje horretatik urrun (% 14,1), osasun zientziek garrantzia hartu dute. Ondoren, natura zientziak eta zientzia zehatzak (% 10,5) eta gizarte-zientziak eta humanitateak (% 9,5) daude. Azkenik, nekazaritza zientziena da langile gutxien baitaratzen dituen diziplina.

I+G arloan ari den langile kopurua osoa EAEn diziplina zientifikoaren arabera



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Urtez urteko langileen bariazioari dagokionez ere ez da joera zehatzik hautematen diziplina zientifikoaren arabera. Agian, ingeniarietza eta teknologiaren diziplina izan daiteke salbuespena, oinarri egonkor bat duena eta, non 2007an % 13ko igoera bat izan ostean, hazkunde hori jaisten joan den urtez urte, 2012an % 2ko hazkunde apala izateraino.

Aitzitik, gainerako diziplinetan joera gorabeheratsuagoa da, langile kopuruari dagokionez gorabeherak agertzen direlarik, urte bakoitzean garatutako proiektuen tipologia anitzaren ondorioz.

Langile kopuruan gertatzen den bezala, I+G arloko gastuari erreparatuz ere ikus daiteke I+G arloko jarduera asko pilatzen direla Ingeniaritza eta Teknologiaren diziplinan. Horrela, 2012. urtean gastu osoaren % 71,5 diziplina horretan ematen da, nahiz eta epealdiaren hasierarekin alderatuta portzentaje hori murriztu egin den, batez ere, zientzia zehatzen eta osasun zientzien onuran.


I+G arloko barne-gastuaren portzentajezko banaketa Euskadin diziplina zientifikoaren arabera

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Ingeniaritza eta teknologia	%79,3	%77,2	%77,2	%76,9	%75,4	%73,6	%72,2	%71,7	%69,7	%69,3	%71,7	%71,5
Zientzia zehatzak eta naturalak	%6,2	%9,7	%8,1	%9,6	%8,9	%12,0	%9,4	%11,9	%10,7	%11,9	%10,4	%10,0
Osasun zientziak (farmazia barne)	%5,5	%5,5	%5,5	%6,7	%8,0	%7,7	%10,5	%8,1	%10,0	%10,1	%9,3	%9,9
Gizarte-zientziak eta humanitateak	%5,9	%4,4	%5,0	%4,4	%4,1	%5,1	%4,2	%5,0	%6,2	%6,3	%6,1	%6,1
Nekazaritza zientziak (abelzaintza, basogintza eta arrantza barne)	%3,0	%3,1	%4,2	%2,4	%3,6	%1,6	%3,7	%3,4	%3,4	%2,3	%2,6	%2,5

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

I+G arloko inbertsioaren aldeko apustua agerikoa da hala eremu publikoan nola pribatuan, urtez urte egindako gastuaren gaineko bariazio positiboari dagozkion datuak aintzat hartuta, nahiz eta krisiak bere arrastoa utzi duen hazkunde horietan. Horrela, langile kopuruarekin gertatu bezala, 2007. eta 2008. urteetan gastuari dagokionez hazkundera nabaria da, eta 2009. urtean jaitsiera bortitza ikusten da. 2010. urtean arnas apur bat hartu zen, izan ere, gastua berriro areagotu zen % 6,2ra arte. Haatik, hobekuntza hori puntuala da, hurrengo urteetan agertzen diren hazkunde-tasa apalek, zero ingurukoek, sektoreak bizi duen egoera zaila salatzen baitute.

I+G arloko gastuaren urtez urteko bariazioa Euskadin



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Gastuaren bariazioa diziplina zientifikoaren arabera aztertuta, joera ezberdinak ikusten dira, gorabehera bortitzekin, langileen kasuan gertatu bezala, "ingeniaritza eta teknologia" diziplinaren salbuespenarekin. Diziplina horretan jarraikortasun handiagoa izan du I+G arloak, eta 2008. urtera arte hazkundera ematen da bariazio jakin batzuekin, hain zuzen, urte hori eta aurrekoa direlarik hazkunderari dagokionez, balio handienak agertzen dituztenak. Hortik aurrera, ordea, krisiaren ondorioak antzematen dira. Horrela, 2009an gastua jaitsi egin zen, 2010ean berriro igo zen eta hurrengo urteetan berriro beherakada ikusten da.

I+G arloko gastuaren urtez urteko bariazioa Euskadin, diziplina zientifikoaren arabera



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz


Euskadin azken hamarkadan I+G arloaren alde egindako apustuan izandako aldaketa orokorki hartuta, I+G arloan hazkunde oso nabaria ikus daiteke zientziaren adar guztietan (nekazaritza zientzietan izan ezik, % 14,7ko hazkundearekin). Hazkunde nabarmenena osasun zientzietan (% 256,9) eta zientzia zehatzetan nahiz natura zientzietan (% 141,9) hautematen da. Horrek bioteknologien eta nanoteknologien bultzada islatzen du (RIS3 estrategian zehaztutako KET tresnetako bi). Gizarte-zientzietan ere areagotu egin da ikerketan egindako gastua (% 138,8), Ingeniaritza eta teknologian bezalaxe. Azken diziplina horren gastu-oinarria askoz ere handiagoa da eta, hala ere, igoera % 81,6koa da.

2008. urtera arte, I+G arloan gastua handiagoa izan da langile kopuruan baino, joera paraleloa eman delarik bi adierazleen artean (2005ean izan ezik).

Joera hori, ordea, irauli egin zen 2008an, I+G arloko langile kopurua gastua baino gehiago hazi baitzen. Horren azalpena, besteak beste, zera izan daiteke, 2009. urtean ikertzaile baino teknikari gehiago kontratatu zirela, soldata handiagoaz.

Azterketaren azken bi urteetan, langile kopuruaren hazkundera gastuaren gainetik kokatzen da, zeinaren hazkundera zerokoa den. Egoera hori ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak "Enpresa-lehiakortasuna eta Berrikuntza soziala. Estrategia-oinarriak eta Ekintza-ildoak" txostenean ikerketa arloko ekoizpena hobetzea ezinbestekoa dela adierazten du. Horretarako, "besteak beste, pertsonen kualifikazioa hobetzea, doktore kopurua areagotzea eta Unibertsitatearekin nahiz ikerketa arloko Europako espazioarekin lankidetzarako lotura sendoagoak finkatzea" proposatzen du.

I+G arloan ari diren langileen bariazioaren eta I+G arloan egindako gastuaren arteko harremana




Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

ENPLEGUAREN EGOERA EUSKADIN: BANAKETA SEKTOREKA

Enpleguaren bilakaera: populazio osoa eta goi mailako ikasketen jabe den populazioa


Euskadi lehen postuetatik urrun geratzen da 25-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazioari dagozkion adierazleei dagokienez. Suedia, Alemania, Danimarka eta Herbehereak agertzen dira Europako ranking horretako buruan. Hala ere, 2013an adin horretako biztanleriaren % 68,3 zegoen lanean gurean. Emaitza horrekin Europako batez bestekora hurbiltzen da eta Espainiako adierazlea gainditu egiten du.



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Euskadin okupazioari dagokionez beheranzko joera ikusten bada ere, joera hori egonkorragoa da Espainian baino eta Europako bilakaerara hurbiltzen da.


25-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazioaren bilakaera (%)



Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz


Prestakuntza hobea denean, lan-egoera hobetu egiten da. Horrela, goi mailako ikasketak dituzten 25-64 urte bitartekoen % 77,1 lanean da. Haatik, adierazle hori oraindik Europako lehen postuen azpitik dago oso eta batez bestekotik urruntzen da.

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren okupazioaren portzentajea (hirugarren mailako prestakuntzak dituzten 25-64 urte bitarteko pertsona laneratuak guztira/25-64 urte bitarteko biztanleria osoa), 2013



Krisiak hirugarren mailako hezkuntzaren jabe diren lan-egoeran ere badu eragina, nahiz eta eragin hori Espainian baino beranduago iritsi. Horrela, 2011-2012 urteetan izan zen jaitsiera nabariagoa, EB-28 barneko herrialdeetan ikusten den egonkortasunaren aurrean.

Hirugarren mailako prestakuntza duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera




Iturria: berezko sorkuntza, Eurostat bulegoaren datuetatik abiatuz. Hirugarren mailako prestakuntza hezkuntzaren nazioarteko sailkapen normalizatuaren arabera (H.N.S.N) 2007 (H.N.S.N 5 eta 6 hirugarren mailako heziketarako barneratzen da: Hauek eskatzen dituzten prestakuntza eta laneratzeko programak: Goi mailako lanbide heziketako titulazioa, unibertsitate-ikasketak, masterrak, arte eta ofizioen nahiz dantza eta musikako goi mailako graduondo eta ikasketak, hirugarren zikloko unibertsitate-ikasketak eta doktorego-programak.

Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuetan erreparatuz, unibertsitateko ikasketen jabe den biztanleriaren okupazioari dagokion emaitzak Eurostat erakundeak emandakoaren antzekoak dira, ezberdintasun txiki batzuekin (metodologia ezberdinek eraginda). Dena den, beste hezkuntza-maila batzuekin aldera daitezke datuen bilakaeran antzekotasunik dagoen ala ez jakite aldera.

Informazio-iturri horretatik abiatuz, argi geratzen da unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonak direla, Lanbide Heziketan titulatuak batera, okupazio-tasa handiena erakusten dutenak, gainerakoekin alderatuta.


25-64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio-koefizientearen bilakaera (%)



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Hala ere, krisiak goi mailako titulazioaren jabe direnen enplegarritasunean neurri txikiagoan eragin arren, kolektibo horretako langabezia-tasa 4,6 portzentajezko puntu areagotu zen 2007-2011 bitartean. Dena den, igoera hori txikiagoa da beste hezkuntza-maila batzuetako biztanleriarekin alderatuta.

25-64 urte bitarteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Lanean den biztanleria sektore ekonomikoetan nola banaturik dagoen ezagutzerakoan, Eurostat erakundearen datuekin Euskadi eta Europar Batasunaren arteko alderaketa egin daiteke okupazio hori baitaritzen duten sektoreei dagokienez. Datu horietan erreparatuz, antzekotasunak ikusten dira EB-28 barneko herrialdeen batez bestekoarekin. Espainiarekin alderatuz, berriz, aldeak nabarmenak dira.

Horrela, Europar Batasunarekin antzekotasunik handiena eta, aldi berean, Espainiarekin ezberdintasunik handiena “Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektoreak duen garrantzia gailenean ikusten da, izan ere, Espainian merkataritza, garraioa eta ostalaritza metatzen da eskulan gehien.

Euskadi Espainia nahiz Europar Batasunetik urruntzen da industriak, enplegu-emaila modura, duen garrantziari dagokionez.

Enpleguaren banaketa sektoreka, Eustat (okupatutako biztanleria osoa)()*


	2008			2013		
	EB-28	Espainia	Euskadi	EB-28	Espainia	Euskadi
Zerbitzuetako beste jarduera batzuk	%28,6	%7,3	%25,3	%30,4	%8,2	%31,1
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	%23,6	%33,5	%24,1	%23,7	%35,5	%23,6
Industria eta energia	%18,9	%15,8	%23,8	%17,3	%13,7	%20,5
Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak	%14,8	%27,3	%16,0	%16,0	%32,2	%16,6
Eraikuntza	%8,3	%12,0	%9,2	%6,9	%6,0	%6,5
Lehen sektorea	%5,2	%4,0	%1,6	%4,9	%4,3	%1,6

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

(*) Datuak ez dira erabat alderagarri LMZk emandako datuekin, izan ere, Eurostat erakundeak informatika-jarduerak nahiz edizio eta telekomunikazioak enpresa-zerbitzuetan barneratzen ditu. Aitzitik, LMZn telekomunikazioen jardura (merkataritza, garraioa, ostalaritza eta komunikazioak) sektorearekin lotzen da 2009az aurreko Jarduera Ekonomikoen Saikapen Nazionalan (JESN).

Haatik, krisialdiaren urteetan (2008-2013) enpleguaren bariazioaren datuek Euskadiren egoera okerragoa dela erakusten dute EB-28 barneko herrialdeekin alderatuta, sektore guztietan.

Enpleguaren bariazioa sektoreka 2008-2013




Eustat erakundearen datuen arabera, 2011. urtera arte "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" zerbitzuaren azpisektoreak bairatzen ditu okupatutako pertsona gehien eta, ondoren, "merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioa eta komunikazioak" eta "industria eta energia" azpisektoreek.

Okupatutako biztanleria laneratzeko sektore bakoitzak duen gaitasunari dagokionez mugimenduak argiak dira. Hala, "industria eta energia" sektorean kontrataziorako gaitasuna galdu du 2001az geroztik. Horrenbestez, eskulanari dagokionez ez dela horren intentsiboa pentsa daiteke, egungo ekonomia-krisitik harago doazen arrazoiak direla medio (teknologia sartzea, deslokalizazioa edo beste zenbait faktore).

"Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" zerbitzuak bere garrantzia mantentzen du enplegu-emaila modura krisitik harago, "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektoreak bezalaxe, nahiz eta azken kasu horretan neurri txikiagoan. Aitzitik, "eraikuntza" arloak garrantzia galdu du etengabe atzeraldia hasi zenetik.

Bestalde, "Informazio eta komunikazio zerbitzuak" zerbitzua egonkor mantentzen da enplegu-emaila modura.

Enpleguaren banaketa sektoreka




	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Lehen sektorea	%2,8	%2,7	%2,6	%2,6	%2,4	%2,2	%2,1	%2,1	%2,1	%2,1	%1,9
Industria eta energia	%26,1	%25,8	%25,5	%25,1	%24,4	%23,9	%23,7	%23,1	%21,6	%21,2	%20,9
Eraikuntza	%8,5	%8,8	%9,1	%9,3	%9,5	%9,6	%9,8	%9,3	%8,9	%8,3	%7,6
Merkataritza, garraioa, ostalaritza	%22,4	%22,2	%22,2	%22,2	%22,5	%22,4	%22,3	%22,4	%22,4	%22,4	%22,8
Informazio eta komunikazio zerbitzuak	%2,2	%2,2	%2,2	%2,2	%2,2	%2,2	%2,2	%2,3	%2,3	%2,3	%2,2
Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak	%12,4	%12,5	%12,8	%13,1	%13,3	%13,6	%13,7	%13,8	%14,2	%14,5	%14,5
Zerbitzuetako beste jarduera batzuk	%25,6	%25,7	%25,6	%25,6	%25,9	%26,0	%26,2	%27,0	%28,5	%29,3	%30,2

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Jarduera-eremuen banakapena kontuan hartuz ikus daitekeenez, txikizkako merkataritza, osasun jarduerak, hezkuntza eta beste zenbait enpresa-jarduera dira eskulan gehien baitaratzen dutenak, osoaren herena baino gehiago hartuz.


Okupaturako biztanleriaren banaketa jardueraren arabera, 2011



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz


Sektore guztiak aintzat hartuta, 2008. urtera arte langile-multzoa urtez urte areagotuz joan dela ikus daiteke urtez urteko bariazioan. Urte horretan jaitsiera hasi zen eta 2009. urtean nabarmendu zen nagusiki beheranzko joera. 2011. urtera arte jarraitu zuen joera horrek, nahiz eta apalago izan.

Sektoreak guztira



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Langileen bariazioa sektore ezberdinetan (2001-2011)



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Sektore ezberdinak kontuan izanik, enpleguaren bilakaeran aldeak agerikoak dira. **Lehen sektorean** ez da joera argirik ikusten. Dena den, soldatapekoen kasuan jaitsiera nabaritu zen urteetan bariazioa handiagoa da enplegua hazten den bi urteetan baino (2004 eta 2008).

“**Industria eta energia**” jardueran enplegua apur bat igotzen da (2005ean izan ezik) 2008. urtera arte. Ondoren, 2009. urtean galdu ziren enplegu gehien, % 9,6ko bariazio negatibo batekin.

Industria-jarduera bakoitzean eskulanari dagokionez izandako mugimenduei erreparatuta, 2008tik aurrera, oro har, langile kopurua murriztu egin da. Jaitsiera hori nabariagoa da "erauzketa-industria", "kautxu, plastiko eta beste material ez metalikoak", "metalurgia eta produktu metalikoak", "zura, papera eta arte grafikoak" eta "altzariak eta bestelako manufakturak" jardueretan.

"Ur hornidura eta saneamendua" da krisiaren aurrean enpleguari dagokionez joera onena erakusten duen jarduera, "Koke-fabrikak eta petrolio finketa" jarduerarekin batera.

Langileen bariazioa jarduera ezberdinetan Industria eta energia

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Erauzketa-indutriak	-%0,7	%2,7	%3,9	-%13,5	-%0,1	%0,9	%1,3	-%7,1	-%9,7	-%17,3
Elikadura, edari eta tabakoaren industriak	%0,5	%1,5	%1,0	%3,1	-%1,6	-%0,7	-%2,8	-%0,8	%2,5	-%2,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak	-%1,6	-%3,4	-%2,4	-%3,9	%1,1	-%2,3	-%13,4	-%6,6	-%5,0	-%6,2
Zura, papera eta arte grafikoak	%0,9	%2,3	-%1,0	-%0,2	%1,9	-%0,7	-%3,3	-%10,5	-%6,1	-%4,6
Koke-fabrikak eta petrolio finketa	%0,7	%0,7	%9,8	%9,3	%5,3	%5,3	%3,1	%4,1	%0,8	-%0,2
Industria kimikoa / 8 produktu farmazeutiko	%0,0	-%2,8	-%0,9	%2,3	%1,5	-%1,1	-%2,6	-%8,2	-%3,0	-%5,6
Kautxu, plastiko eta beste material ez metalikoak	%0,8	%0,6	%1,5	%1,7	-%0,8	-%2,2	-%0,3	-%13,4	-%2,8	-%0,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	%2,6	%1,7	%1,8	-%1,0	%1,3	%5,2	-%2,9	-%12,2	-%4,9	-%3,2
Produktu informatiko eta elektronikoak	-%2,0	-%1,2	%0,6	%2,1	-%0,1	%3,0	-%4,1	-%5,1	-%0,9	%0,9
Material eta ekipamendu elektrikoa	-%1,7	-%1,4	%0,5	%0,0	%2,4	-%2,7	%0,1	-%9,0	-%3,1	-%1,5
Makineria eta ekipamendua	%1,8	%0,4	%0,4	-%0,6	%1,3	%2,7	%0,0	-%7,9	-%1,9	-%1,9
Garraiorako materiala	-%0,4	%4,7	%0,6	-%3,8	-%2,5	-%0,1	%1,6	-%5,9	-%1,2	-%3,0
Altzariak eta bestelako manufakturak	%0,2	%3,0	%0,9	-%6,4	%0,1	%1,7	-%4,7	-%11,2	-%0,9	-%5,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	%1,5	-%5,8	%6,1	%6,2	-%2,8	-%1,4	%5,5	-%3,0	-%4,0	%0,2
Ur hornidura eta saneamendua	%2,4	%1,9	%2,4	%1,1	%5,2	%1,8	%2,4	-%1,7	%4,5	%10,2
Guztira	%1,1	%1,3	%1,0	-%0,7	%0,6	%1,8	-%2,0	-%9,6	-%2,9	-%2,5

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Inflexio-puntu hori, 2007-2008 artekoa, errepikatu egiten da **eraikuntzaren** sektorean. Gainera, kasu horretan bariazioak nabarmenagoak dira. Sektorea hazkundera zen enpleguaren ikuspegitik. Baina, 2001etik 2006ra emaitzak gero eta kaskarragoak ziren, nahiz eta 2007. urtean apur bat suspertu, enpleguan % 5,2ko igoera izanik. Hala ere, hurrengo urtean ia % 5 jaitsi zen berriro. Joera negatiboa mantendu egin zen eta bariazio negatiboko portzentajeak areagotu egin ziren 2011. urtera arte.

Eraikuntzan ez bezala, "**merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak**" sektorean langile kopuruak gora egin zuen pixkanaka 2001-2006 bitartean. Hortik aurrera, joera positiboarekin jarraitu arren, hazkundera moteldu egiten da, 2009. urtean jaitsiera nabarmenagoa izanik. Dena den, hurrengo bi urteetan badirudi egoerak hobera egin zuela.

Joera hori sektoreko jarduera guztietan errepikatzen da, eta ostalaritza izan zen krisialdian zehar enpleguari dagokionez portaera onena erakutsi zuen jarduera.

*Langileen bariazioa jarduera ezberdinetan
Merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Merkataritza; ibilgailuen konponketa	%2,0	%2,5	%4,2	%5,1	%1,5	%0,9	%0,2	-%4,0	-%0,3	%0,2
Garraioa eta biltegiatzea	%0,4	%1,6	%2,4	-%1,5	%2,4	%5,0	%2,3	-%5,6	-%2,5	-%0,5
Ostalaritza	%1,6	%2,1	-%0,3	%3,0	%4,8	%2,9	%2,2	-%0,2	%0,2	%2,1
Guztira	%1,6	%2,2	%2,9	%3,4	%2,3	%2,0	%1,0	-%3,5	-%0,6	%0,5

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

“**Informazio eta komunikazio zerbitzuak**” ere enpleguari dagokionez urtez urte gorantz doan sektorea da, 2009. urtera arte. Orduan beheranzko joera hasi zen, eta hurrengo urteetan ere joera hori mantendu egin zen, nahiz eta ez horren bizkor.

Informatika-jardueretan sortu ziren enplegu gehien 2008. urtera arte. Haatik, telekomunikazioen jarduerak eusten diote ondoen krisialdiari, izan ere, gainerako jardueretan baino enplegu gutxiago galdu zen.

*Langileen bariazioa jarduera ezberdinetan
Informazio eta komunikazio zerbitzuak*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Edizioa, irudia, irratia eta telebista	%4,2	%1,5	%3,3	%2,3	-%0,1	-%0,6	%0,1	-%4,4	-%1,4	-%5,0
Telekomunikazioak	%6,1	-%1,1	%0,9	%1,4	%4,6	-%1,4	%1,7	%0,6	%0,3	-%0,2
Informatika	%2,3	%3,4	%4,3	%3,2	%4,3	%6,3	%4,6	-%3,7	-%1,2	-%4,2
Guztira	%3,4	%2,1	%3,5	%2,7	%2,9	%3,2	%2,9	-%3,4	-%1,0	-%3,9

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorearekin batera “**Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alkairu eta -zerbitzuak**” sektorea da enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duena, izan ere, 2008. urtera arte % 3 eta % 5 arteko hazkundea izan zuen. 2008. urtea, neurri txikiagoan baina bariazioa artean positiboa izan arren, hurrengo urteetako emaitzen atarikoak da, izan ere, ordutik emaitzak kaskarragoak dira, nahiz eta aurrez aipatutako sektoreekin alderatuta, krisialdiari hobeto eutsi.

Jardueri dagokienez, aldeak nagusiki bi jardueratan ematen dira, kontrako joerekin. Alde batetik, “higiezin jarduerak” jardueretan beherakada nabarmena hautematen da azken urteetan, batez ere, 2008-2009 eta 2012-2011 urteetako bariazioek eraginda.

Kontrako aldean daude "Ikerketa eta Garapena" jarduerak. Horien kasuan, 2001-2006 epealdian dagoeneko % 17,5 hazi zen eskulana, eta hurrengo urteetan enplegu-emaile modura gorantz doaz. Hala, 2006-2011 bitartean hazkundera % 40,9koa da.

*Langileen bariazioa jarduera ezberdinetan
Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak sektorea*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Finantza-jarduerak eta aseguruak	-%0,4	-%0,4	%2,0	-%2,8	%2,2	%1,1	%0,2	%1,8	-%2,6	-%2,3
Higiezin jarduerak	%6,0	%5,0	%5,9	%4,9	%5,0	%5,9	-%2,1	-%11,0	-%1,5	-%10,3
Aholkularitzak eta jarduera teknikoak	%3,5	%4,6	%7,8	%6,0	%5,2	%4,3	%0,8	%0,4	%2,5	%0,6
Ikerketa eta garapena	%3,4	%4,7	-%0,2	%1,9	%6,8	%6,7	%8,5	%7,2	%6,8	%6,3
Beste jarduera profesional batzuk	%1,8	%5,3	%8,5	%2,5	%5,1	%3,2	%0,7	%0,3	-%1,6	-%0,9
Laguntza-zerbitzuak	%4,8	%7,8	%4,1	%5,2	%5,0	%4,3	%1,0	-%0,2	%0,9	-%1,5
Guztira	%3,3	%5,1	%5,0	%3,8	%4,7	%3,9	%0,9	%0,0	%0,8	-%1,1

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

"Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" da enpleguaren joerei dagokienez emaitza onenak dituen sektorea. Urtez urte hazkunderarekin lotutako emaitzak desberdinak izan dira sektore horretan, krisiaren aurreko erreakzio berantiarago batekin, 2008. urtetik aurrera enpleguarekin lotutako bariazioak positiboan mantentzen dira, intentsitate apalagoan izan arren.

Joera hori errepikatu egiten da sektoreko jarduera guztietan, "etxeko jarduerak" jardueretan izan ezik, non enplegua % 8,8 hazten den 2011n. Urte horretan jarduera guztietan bariazio negatiboa ikusten da, "hezkuntza" eta "osasuna" jardueretan izan ezik.

*Langileen bariazioa jarduera ezberdinetan
Zerbitzuetako beste jarduera batzuk*

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Herri administrazioa eta defentsa	%1,4	%1,5	%1,5	%1,0	%1,2	%2,2	%2,3	%1,0	%1,1	-%0,4
Hezkuntza	%1,5	%1,7	%1,0	%1,6	%3,1	%5,4	%4,1	%4,3	%1,4	%1,9
Osasun jarduerak	%1,7	%1,3	%1,9	%2,5	%2,2	%7,8	%5,9	%4,3	%1,4	%0,1
Gizarte zerbitzuetako jarduerak	%0,7	-%2,2	%6,8	%2,7	%4,0	%5,4	%4,5	-%1,6	%2,9	-%2,3
Aisialdi eta kultura jarduerak	%2,8	%4,3	%6,3	%2,3	%6,2	%1,2	%5,0	-%0,9	%5,2	-%1,5
Beste zerbitzu batzuk	%3,6	%3,1	%6,4	%6,7	%1,9	%1,7	%0,0	-%0,4	-%0,3	-%1,0
Etxeko jarduerak	%5,7	%4,6	%4,0	%6,7	%3,8	%1,0	%3,3	%2,2	%2,0	%8,8
Guztira	%2,5	%2,1	%3,0	%3,2	%2,9	%3,6	%3,6	%2,1	%1,6	%2,0

Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Barne Produktu Gordinaren bilakaeraren eta enpleguaren arteko harremana

Barne Produktu Gordinaren eta enpleguaren bilakaerari dagokion grafikoan beheranzko joera argia ikusten da 2007tik aurrera. Urte horretan bortizki eteten da 90eko hamarkadaren erdialdetik abiatutako hazkundera. Hala Barne Produktu Gordinean nola enpleguan atzeraldi larria nabaritu zen, 2009. urtean zero azpitiko zenbakiak izan arte. Hortik aurrera apur bat suspertu zen egoera eta Barne Produktu Gordinaren kasuan hazkunde-tasa positiboa ikusten da berriro, 2011. urtera arte mantenduko dena. Haatik, tasa hori oraindik apalegia da enplegu aldetiko hazkunde bat abiarazteko.


Barne Produktu Gordinaren eta enpleguaren arteko harremanari erreparatuz, 2007tik 2008ra Barne Produktu Gordinaren hazkundera % 4,2tik % 1,3ra igarotzen dela ikusten da, atzeraldian erakusgarri. Horrek bere eragina du enpleguan, izan ere, hazkundera % 2,8koa izatetik, soilik % 0,4koa izatera igarotzen da. Hala ere, oraindik positiboan. Hala ere, 2009an Barne Produktu Gordina % -3,9ra jaisten da eta portzentaje ia berdina ematen da enpleguan ere. Haatik, Barne Produktu Gordina suspertzen delarik, enplegua ez da neurri berean suspertzen. Aitzitik, negatiboan mantentzen da eta egoera hori errepikatzen da hurrengo urtean ere.

Hortaz, bi adierazleen arteko harremana ukaezina bada ere, adierazle bat bestearekin lotzeko bariazio-atalasetan zalantzak sortzen dira. Datu hori baliagarri izan daiteke jakiteko Barne Produktu Gordinaren zein hazkunde-mailatik aurrera sortzen diren enplegu gabiak, langabezia-tasa murriztea ahalbidetuz.

Eustat erakundeak 2012an egindako EAEren txosten sozioekonomikoan Okun legea aipatzen da, hazkunde ekonomikoaren eta langabezia-tasaren arteko harremana finkatzen duena. Horrela, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) Euskadirako berriki (2011) egindako estimazioen arabera, langabezia-tasa murrizteko Barne Produktu Gordina % 2,6an igo behar da gutxienez.

Txosten honetan kontsultatutako beste iturri bat BBVA bankuaren Ikerketa Zerbitzua izan da. Iturri horren arabera, % 1,7ko hazkunde-atalasearen gaineratik, Barne Produktu Gordina hazten den puntu bakoitzeko langabezia-tasa 0,6 puntu murriztuko litzateke.

Barne Produktu Gordinaren eta enpleguaren bilakaera EAEn (urtez urteko tasak, %)




Produktibitateak, langile bakoitzeko Balio Erantsi Gordinaren arabera neurtua, indize handiagoak eta gorakorak erakusten ditu "bitartekaritza finantzarioen jardueren, higiezin jardueren eta enpresa- alokairu eta -zerbitzuetako" jardueren kasuan, "informazio- eta enplegu-zerbitzuetako" jardurekin batera.

Aitzitik, produktibitate-indize apalenekin, lehen sektorea da enpleguari dagokionez jarduera intentsiboena duena, "zerbitzuetako beste jarduera batzuk" eta "merkataritza, ostalaritza eta garraioa" jardueren aurretik.

Edozein modutara, produktibitatearen bilakaera gorakorra eta jarraitua da jarduera guztietan, "industria eta energia" salbuetsita. Azken horretako indizeak behera egin zuen 2009an, hurrengo urteetan gorantz egin bazuen ere.

BEGd ekarpena (prezio arruntak-mila euro) /langileak



Iturria: berezko sorkuntza, Eustat erakundearen datuetatik abiatuz

Unibertsitate-tituludunen okupazioa sektoreka

Orain arte okupazioaren datuak sektoreka aztertu dira, orain arte kontratatzeko gaitasun handiena erakutsi duten eta langile-multzoak mantentzearekin lotuta krisiari hobeto eutsi dioten sektore eta jarduerak zein izan diren jakiteko xedez.


Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuekin harago jo dezakegu, banaketa biztanleriaren prestakuntza-mailaren arabera eginez. Horrela, sektore bakoitzak unibertsitate-tituludunen enpleguan zer-nolako portaera duen ezagut dezakegu.

LMZko datuen (eskaintza) eta Eustat erakundearen datuen artean ezberdintasunen bat egon daiteke, datuak modu ezberdinean neurtzen baitira. Haatik, lehenengoen datuekin joeren inguruko informazioa eskura dezakegu eta unibertsitate-tituludunen enplegu-maila diren sektoreen garrantzia ezberdina eta horien bilakaerari buruzko ideia bat egin dezakegu.

Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuek JESN 93 sailkapeneko datuak erakusten dituzte, 2009 baino lehenagokoak. Horrenbestez, Eustat erakundearen datuak soilik data horretatik aurrera izango lirateke alderagarri. Edozein kasutan, jarraian 2001-2011 bitarteko grafikoak barneratzen dira JESN 93 eta 2009-2011 epealdiko JESN 2009 datuekin. Horrela, egun ekoizpenaren sektorean bizi den errealitateari buruzko argazki errealagoa izan dezakegu.


Hala, biztanleria orokorrarentzat LMZn ematen diren datuetan Eustat erakundeak jasotako joera berak ikusten dira.

Langileen banaketa osoa sektoreka Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren arabera (JESN 93)



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentsuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Langileen banaketa osoa sektoreka Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren arabera (JESN 2009)




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Joera orokor horien aurrean, panorama oso bestelakoa da unibertsitate-tituludunen kasuan. Horrela, "beste enpresa-jarduera batzuk" sektorean lan egiten du ia erdiak, apur bat gora egiten duen joera batekin.

Bestalde, "finantza-bitartekaritza" jardueran barneratzen dira 2011n lanean ziren unibertsitarioen % 20,1, eta bere garrantziak gora egin du 2007. urtetik.


Adierazgarria da sektore ezberdinetan lanean diren unibertsitarioen garrantzia egonkorragoa dela lanean den biztanleria osoa aintzat hartzen denean baino.

Lanean diren unibertsitate-tituludunen banaketa osoa sektoreka Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren arabera (JESN 93)



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


Lanean diren unibertsitate-tituludunen banaketa osoa sektoreka Lan-merkatuari buruzko Zentsuaren arabera (JESN 2009)



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Unibertsitario gehien baitaratzen dituzten jarduerak-esparruei dagokienez hezkuntza nabarmentzen da, osasunaren aurretik. Bien artean lanean diren unibertsitario guztien herena baitaratzen dute.

Unibertsitate-tituludunen banaketa jardueren arabera LMZ 2009 (2011)




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Lanean diren pertsonen herena unibertsitarioak dira eta proportzio hori etengabe areagotu da 2001az geroztik. Lanaren kualifikazioa, oro har, sektore guztietan igo da, batzuetan beste batzuetan baino modu iraunkorragoan, bariozio txikiekin. Hori

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorean nabarmenagoa izan da, izan ere, sektore horretan 2001ean lan egiten zuten unibertsitarioak % 44,4 ziren eta 2011n erdia baino gehiago unibertsitarioa zen. Prestakuntza-mailaren araberako enpleguaren banaketaren joera hori 2007. urtetik aurrera ere mantendu egin da. Horrek zera esanahi du, langile-multzoa berregituratzen denean, unibertsitate-tituludunek berme gehiago dutela.

Lanean diren unibertsitate-tituludunen portzentajea, langile guztien gainean, sektoreka


JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

LMZko datuetatik abiatuz goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren enplegu bariazio-tasak lor daitezke. Dena den, zentsuan ez dago 2004. eta 2008. urteetako daturik, izan ere, datuak 2001-2003, 2005-2007 eta 2009-2011 bitartean jaso dira. Horrenbestez, ezinezkoa izango litzateke urtez urteko bariazioa aztertzea. Hori dela eta, falta den urte bakoitzaren batez bestekoa kalkulatzeko aurreko urteko eta hurrengo urteko datuak hartzea erabakitzen da. Horrela, serie historikoarekin jarraitzea ahalbidetzen da eta urtez urteko azterketa egin ahal izango da. Hori baliagarria da unibertsitate-tituludun guztien kalkulua egiteko nahiz unibertsitate-tituludunak ekoizpen sektoretan banatuta aztertzeko.

Horrela, emaitzek erakusten dutenez, sektore ezberdinetan lanean diren unibertsitarioen urtez urteko bariazioari so portaera ezberdina ikus daiteke, okupatutako pertsona guztien urtez urteko bariazioarekin alderatuta. Krisiaren aurretiko urteetan bilakaera hori ezberdina da, krisiari hobeto eutsiz. Horrela, lehen bariazio negatiboa 2010. urtean ematen da, baina neurri txikiagoan, eta susperraldi txiki batekin aztertutako azken urtean.

*Lanean diren unibertsitate-tituludunen bariazioa (2001-2011) JESN93***Guztira**

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Sektore ezberdinetan lanean diren unibertsitarioen urtez urteko bariazioari so ere portaera ezberdina da okupatutako pertsona guztien urtez urteko bariazioarekin alderatuta.

“**Industria eta energia**” sektorean bi urtez jarraian enplegua galtzen egon ostean, 2004-2007 bitartean hazkunda nabaritzen da. Dena den, azken urte horretan hazkunda nabarmena izan ostean, enplegua bortizki murrizten da bariazio negatiboekin. Joera horrek, gainera, 2011. urtera arte iraungo du.

2002-2003 bitartean “**merkataritza, ostalaritza, garraioa eta komunikazioak**” sektorean hazkunda nabarmena hautematen da unibertsitarioen enpleguari dagokionez, 2010. urtera arte moteldu egiten dena. Aipatu urtetik aurrera, sektorea unibertsitarioen enplegua galtzen hasten da.


“**Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alkairu eta zerbitzuak**” sektorea ere egoera negatibo batetik abiatzen da 2002an, hurrengo hiru urteetan susperraldia izaten du eta 2006. urtean jaitsiera ematen da hazkunda ia zerokoa izateraino. Gainera, egoera hori latzagoa da 2007an, izan ere, unibertsitarioen enplegua % 9,8 galtzen da. Haatik, badirudi momentuko egoera baino ez dela, izan ere, 2008an eta 2009an susperraldia adierazgarria da. Dena den, aztertutako azken bi urtetan berriro enplegua galtzen da, hazkunda berriro ia zeroraino jaitsiz. Horrenbestez, zilegi da hurrengo datua ere beheranzkoa izango ote den pentsatzea.

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorea da unibertsitate-tituludunen kontratazioa mantentzen duen sektore bakarra, urtez urte igoz baina bariazio ezberdinekin eta, 2006az geroztik askoz ere erritmo motelagoan.

Halaber, “eraikuntza” sektorean unibertsitarioen enpleguari dagokionez goranzko bariazioak ikus daitezke. Hala ere, gorabeherak ditu eta, horrela, 2010ean hazkundea zerokoa da (*).


“Informazio eta komunikazio zerbitzuak” sektorean unibertsitate-tituludunek garrantzia handia dute. Sektore horri dagozkion datuak JESN 2009 sailkapenean daude, 2009-2011 urte bitartekoak, berriz, Lan-merkatuari buruzko Zentsuan aurki daitezke. Bilakaerari buruzko datuetan erreparaturaz, neurtutako azken urtean enpleguaren jaitziera bortitza izan zela ikus daiteke (% 13,9), aurreko urtean % 1,1eko hazkundea izan ostean.

Lanean diren unibertsitate-tituludunen bariazioa sektore ezberdinetan (2001-2011)



(*) “Eraikuntza” sektorean lagina urria denez, urte bakoitzeko batez bestekoa 3 urtetako datuetatik ateratzen da, datuen egonkortasuna areagotze aldera

Lanean diren tituludunen bariazioa sektore ezberdinetan (2001-2011) JESN 2009




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Joerak kontratazioan

Langileen kontratazioari dagokionez Euskadiko enpresetan gaurdaino eta etorkizunera begira agertzen diren joeretan sakontzen jarraitze aldera, giza baliabideetako arduradunei zuzendutako inkesta erabili da azken 5 urtetan kontratazioak zein jardueretan egin diren eta datozen 5 eta 10 urtetarako espero den aurreikuspena zein den jakiteko xedez. Helburua eskaria ezagutzea izan da, lanpostu berriak sortzearen ondorioz hartutako langile berriei dagokiena zein langile-multzoetako errelebuek eragindakoa.

Gaurdainoko kontratazioaren joerari begiratzen badiogu, kontratazioa murriztu egiten dela ikus daiteke. Dena den, hori bi norabidetan ezberdindu daiteke: alde batetik, industriaren sektorean kontratazioa neurri handiagoan mantentzen da eta, beste alde batetik, unibertsitate-tituludunei dagokionez kontratazioa mantentzeko joera nabarmenagoa da.

Langileen kontratazioari buruzko azken 5 urtetako joera




Oinarria: 103 enpresa

Etorkizuneko kontratazioari begira, zalantza nabarmena da planteatzen den horizontea 10 urtekoa denean. Enpresek argiago dute aurreikuspenak epe laburragokoak direnean (5 urte).

Planteamendu horretan joerak aldatu egiten dira, hau da, alde batetik industriak kontratazioak mantentzeko joera du eta zerbitzuetako enpresetan, aldiz, susperraldiaren


zantzuak iragartzen dira, izan ere, kontratazioa areagotu dute, hala orokorki, nola, neurri txikiagoan, unibertsitate-tituludunen edota gradudunen artean.

Langileen kontratazioari buruzko datozen 5 urtetako aurreikuspena



Oinarria: 103 enpresa

Langileen kontratazioari buruzko datozen 10 urtetako aurreikuspena




Oinarria: 103 enpresa

Kontsultatutako langileak hautatzeko enpresen iritziz, etorkizun hurbilean, enpresen barnean tituludunen premia hurrengo ezagutza-adarretan pilatuko da:

ESPERIMENTALAK	Bio-osasuna
	Ingeniaritza kimikoa
	Ingeniaritza kimikoa (komertzialak)
	Ingurumen arloko ingeniartza teknikoa
	Ingeniari biologoak
	Ez daki
	Elikagaien teknologia
TEKNIKOAK	Ingeniaritza
	Ingeniaritza kanpoko merkataritzaz
	Industria-ingeniartza
	Informatika-ingeniartza
	Ingeniaritza mekanikoa
	Nanoteknologia-ingeniartza
	Telekomunikazio aeroespazialeko ingeniartza
	Makineriako 2 mailako teknikariak
OSASUNA	Erizaintza
	Erizaintza Geriatrikoa
	Ikerketa erradiologikoa
SOZIALAK ETA JURIDIKOAK	Zuzenbidea
	Ekonomiak
	Enpresaritza
	Psikologia
	Internet
	Lan-harremanak
	Soziologia
	Gizarte-komunikazioa
HUMANITATEAK	Ingeles-filologia

Bestalde, enpresen herenak beren enpresetan lanpostu berriak sortuko direla aurreikusten du, egoera hori ohikoagoa delarik industriaren sektorean.

15G. Etorkizunera begira, zure enpresan orain arte ez zeuden profilak betetzeko lanpostu berriak sortzea aurreikusten da?



Aurreikusten diren lanpostu berri gehienak kutsu teknologikokoak dira eta enpresen erdiak baino gehiagok lanpostu horiek unibertsitate-tituludunekin betetzea aurreikusten du:

Kutsu teknologikoko lanpostuak	Gainerako lanpostuak
<ul style="list-style-type: none"> • Laborategiko teknikaria • Ingeniari teknikoa • Ingeniaritza • Proiektuetako teknikaria • Informatikaria • Teknologia berriak • Ikerketa teknologia berrikin informatika-ingeniartzan • Kalitatea • Arkitektoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Erreportetan ezagutzak dituen ekonomialaria • Gizarte langilea

Tituludun berriak, nagusiki, arlo teknikokoak izango dira:

- Elikagaien zientziak
- Ingeniaritza
- Ingeniaritza orokorra
- Mekanika industrialeko ingeniartzan
- Informatika-ingeniariak
- Ingeniari mekanikoak
- Marketina
- Arkitekto tituludunak
- Telekomunikazioak
- Elektronika

Kontratazioan agertzen diren joerak, ezagutza-esparruaren arabera

Ezagutza-esparru bakoitzean eskatzen diren titulazioei dagokienez, jarraian esparru bakoitzaren ezaugarri nagusiak, horien bilakaera, oraingo egoera eta merkatuaren eskariarekin lotuta etorkizunera begira duten aurreikuspena azaltzen dira.


Ezagutza-diziplina bakoitzerako enpleguaren urtez urteko bariazioaren azterketari so, Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuak erabiltzen dira eta kasu honetan bi arazo daude:

- 2004. eta 2008. urteetako datuak falta dira: unibertsitarioei zegokion kasu orokorrean bezala, urte horietako datuak aurreko urtearen eta hurrengo urtearen batez bestekotik ateratzen dira. Horrela, kalkulua ezagutza-esparru bakoitzean lanean diren unibertsitario guztientzat egin daiteke.
- Haatik, ezagutza-esparru bakoitzean enpleguaren sektorekako kalkulua egiterakoan arazo gehigarri bat dago, hau da, lagin kopurua askoz ere murriztagoa dela, eta horrek datuak zalantzazkoak izatea dakar.

Hori ebazteko, alde batetik, laginketa egindako segidako hiru urtetako batez bestekoa ateratzea erabakitzen da, datu egonkorragoak izaten aldera. Horrela, esate baterako, 2003ko datuak 2002., 2003. eta 2004. urteetako batez bestekoaren ondorio dira. Eta, beste alde batetik, hiru urtean kontuan hartuta 200 inkesta baino gehiago ez dituzten sektoreak azterketatik kanpo uzten dira.

Ezagutza-esparrua: Titulazio teknikoak

Esparru teknikoko tituludunen enplegu-tasa % 90etik gorakoa da aztertutako urte guztietan, nahiz eta 2003. urtera arte bilakaera apala izan. Gero, 2005ean susperraldia ematen da eta joera hori hiru urtez mantentzen da, ondoren, 2007. urtetik aurrera, berriro jaisteko. Hala ere, beheranzko joera horrek ez du jarraipenik. Aitzitik, susperraldia nabarmena da 2011. urtera arte, enplegu-tasa % 95,7an kokatuz.




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Karrera teknikoetan titulaturako pertsonak baitaritzen dituzten jarduera-sektoreei dagokienez, industriaren sektorea da enplegu-emaila nagusia, garrantzia galtzen doan arren. Bestalde, "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektorea garrantzia hartzen ari da tituludun horien enplegu-emaila modura, "informazio eta komunikazio" zerbitzuek garrantzia handia dutelarik esparru honetan, jarduera horiek dagoeneko sektore berri modura hartzen dituen JESN2009 sailkapenaren arabera banaketa-grafikoan ikusten denez.


Esparru teknikoan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka

JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

*Esparru teknikoan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka
JESN2009*



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Sektoreekin lotutako jarduerak zehatzei dagokienez, "arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak", "hezkuntza", "eraikuntza" eta "informatikarekin lotutako jarduerak" dira esparru teknikoan unibertsitario gehien baitarazten dituzten jarduerak zehatzak, lehenengo bi jarduerak gainerakoek baino garrantzia gehiago dutelarik.

*Esparru teknikoan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jardueren arabera
JESN2009*

	2009	2010	2011
Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak	%6,3	%9,3	%11,7
Hezkuntza	%6,7	%7,8	%9,3
Eraikuntza	%8,4	%8,2	%9,2
Informatika-jarduerak	%8,7	%11,1	%9,1
Makineriaren fabrikazioa	%4,8	%4,2	%5,3
Herri administrazioa eta defentsa	%5,6	%5,7	%4,6
Ikerketa eta garapena	%3,0	%2,8	%3,2
Motordun ibilgailuen fabrikazioa	%2,9	%2,2	%3,0
Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa	%1,9	%2,1	%2,9
Handizkako merkataritza	%2,1	%2,2	%2,4
Gainerakoak	%49,5	%44,5	%39,1

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Enpleguaren bariazioari dagozkion grafikoek erakusten dutenez, esparru teknikoetan titulaturako pertsonen, unibertsitarioen kasuan bezala, 2006. urtea izan zuten okerrera, izan ere, jaitsiera bortitza izan zen eta, horren ondorioz, enplegu ugari galdu zen. 2007an susperraldi apala izan ondotik, 2008-2009 urteetan enplegua nabarmen hazi zen profil honen kasuan eta 2010. urtea zero inguruko hazkunde batekin amaitu zen, 2011n joera hori mantentzen delarik.

Lanean diren esparru teknikoko tituladunen bariazioa (2001-2011) JESN93
Guztira



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” eta “Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak” sektoreetan 2006an izandako beheranzko joerak eragin handia izan zuen. Dena den, bi kasuetan, ondoren susperraldi nabarmena gertatu zen, aztertutako azken urtean hazkundera apur bat jaitsi arren.

Aitzitik, “industria” eta “eraikuntza” sektoreetan bariazio positiboak izan ziren urte horietan, atzeraldiari hobeto eutsiz, zeina beranduago nabaritu zen, 2009an.

“Merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioa eta komunikazioak” sektorearen kasuan esparru teknikoko tituladunen enpleguak 2003-2006 bitartean izan zuen egoerarik makurrena. Ondoren susperraldi nabaria izan zen, 2009an amaitu zena hazkundera jaitsita. Gero, hurrengo urtean, enpleguak atzera egin zuen.

Lanean diren esparru teknikoko tituludunen bariazioa, sektoreka (2001-2011) JESN93




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Enpresei egindako inkestetan azterketa-oinarriak gutxi izan ziren eta, horren ondorioz, Humanitateak eta Osasuna esparruko datuak alde batera utzi behar izan dira. Dena den, ezagutza-esparruaren arabeko unibertsitate-tituludunen kontratazioan ematen diren joerei buruzko emaitzek azterketa kualitatiboa nahiz enpresa bakoitzaren barneko esparrutan agertzen den errealitatea berresten duen informazioa eskaintzen dute.

Horrela, kutsu teknikoko titulazioak dira datozen 5-10 urtetan kontratazioari dagokionez gehiago hazteko aukera dutenak, batez ere, espezialitate ezberdinetako ingeniarietako karreraren kasuan.

Iraganeko eta etorkizuneko joerak esparru teknikoko unibertsitate-tituludunen kontratazioan



Oinarria: langile-multzoan esparru teknikoko tituluduneh hornitutako 82 enpresa, iraganean edo orain



Oinarria: guztira 103 enpresa

Etorkizunera begira, ikuspegi kualitatibo batetik, ezagutza teknikoko esparruan profesional gehiago eskatuko direla aurreikusten da eta, horren ondorioz, etorkizunera begira, profesional unibertsitario kopuruak behera egingo du (hori Lanbide Heziketara ere heda daiteke).

Ustez, fabrikazio aurreratuarekin eta alderdi elektronikoarekin lotutako esparrutan sortuko da enplegu gehien.

Ildo horretatik, ingeniaritza da irteera profesionala izateko aurreikuspen baikorrena eskaintzen duen titulazioa. Espezialitate batzuetan behera egin arren, beste batzuetan gora egin du. Horrela egoera orekatu egiten da. Horrenbestez, oro har, bere bideragarritasuna zero ingurukoa da. Erabakigarritzat jotzen dira aplikazioen garapenera gehien bideratzen direnak: industrialak, telekomunikaziokoak, mekanikoak, elektronikoak, materialetakoak, fabrikaziokoak, informatikakoak.

Aipatutako beste esparru bat, RIS3 diseinuaren parte dena, osasunaren merkatua da, mediku-ekipamenduaren diseinuaren ikuspegitik. Esparru horretan Euskadik ez du kokapen egokia, merkatu zabala izan arren. Hala, esportatzaile izatera mugatzen da.


Beste zenbait titulaziotan, IKTekin lotutako zeharkako profil bat dutenak, talentu gutxiago izango dela aurreikusten da, esate baterako, informatikan, elektronika digitalean eta telekomunikazioetan.

Kontsultatutako entitateetako batek IKTak aipatzen ditu, eduki digitalen sortzaile izanik, hazteko aukera duen sektore baterako apustu modura.

Aitzitik, beste zenbait titulazio teknikok, esate baterako, arkitekturak edo meatzaritzak, hazkunde ekonomikoko garaian enplegarritasun handia zutenak, ez dute bultzada handirik izango etorkizun hurbilean.

Ezagutza-esparrua: Gizarte-zientzietako eta esparru juridikotako titulazioak


Esparru sozialean eta juridikoan titulaturako unibertsitarioen kasuan enplegarritasuna ez da esparru teknikoan prestatutako tituludunena bezain handia, 2006-2007 urteetan antzeko tasak erregistratu arren. Horrela, 2009an tituludun teknikoan antzeko jaitziera izan arren, esparru sozial eta juridikoko tituludunen kasuan joera beheranzkoa da.



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Karrera sozial eta juridikoetan titulaturako pertsonak baitaratzen dituzten sektoreei dagokienez, "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektoreak hartzen ditu haien erdiak, urtez urte sektorearen garrantzia areagotu egiten delarik. Sektore horretatik urrun daude gainerako sektoreak. Horrela, "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" eta "merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak" sektoreak dira, hurrenez hurren, esparru sozial eta juridikoetako tituludunak kontratatzeari dagokionez, bigarren eta hirugarren postuan kokatzen diren sektoreak.

Esparru sozial eta juridikoetan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Pol. Saila. Eusko Jaurlaritza

Esparru sozial eta juridikoetan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN2009



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

“Hezkuntza” eta “Herri administrazioa eta defentsa” dira esparru sozial eta juridikoetako tituludunen enplegu-emaila nagusiak, tituludun horien % 37,7 baitaratuz. Gainera, Hezkuntzaren kasuan garrantzia areagotuz doa eta Herri administrazioa eta defentsaren kasuan mantendu egiten da.


Esparru teknikoan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jardueren arabera JESN2009

	2009	2010	2011
Hezkuntza	%21,9	%23,0	%25,6
Herri administrazioa eta defentsa	%12,6	%12,0	%12,1
Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak, aholkularitza	%7,9	%8,1	%7,3
Txikizkako merkataritza	%6,9	%5,4	%7,0
Finantza-zerbitzuak	%5,2	%5,6	%5,6
Gizarte zerbitzuetako jarduerak	%4,1	%4,2	%4,3
Osasun jarduerak	%2,4	%2,9	%3,3
Ostalaritza	%2,3	%2,1	%2,3
Eraikuntza	%3,3	%2,3	%2,0
Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-funtsak	%1,5	%1,2	%1,9
Gainerakoak	%31,9	%32,9	%29,1

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

2001-2005 epealdian hazkunderako urteak izan ziren esparru sozial eta juridikoetan titulaturako pertsonen enpleguari dagokionez. Ondoren, joera hori hautsi zuen jaitziera bat etorri zen, 2010. urtean enplegua galdu arte. Ondoren, nolabaiteko susperraldia izan zen, 2011. urtean % 2,4ko hazkundera izan zelarik.

Lanean diren esparru sozial eta juridikoko tituludunen bariazioa (2001-2011) JESN93
Guztira




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Sektoreen arabera, joera ezberdinak ikusten dira halako profila duten tituludunen enpleguari dagokionez. Horrela, "industria eta energia" sektoreak hiru urtez segidan jaitzieran izan ondoren, hurrengo hiru urtekoan susperraldia izaten du eta, ondoren, aztertutako azken bi urtetan, berriro jaitziera dator.

Aitzitik, "merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak" sektorek 2003. urtea halako tituludunei enplegua emanez hasten du. Hazkunde hori apalduz doa, 2007an atzeraldian sartu arte. Daturik makurrena 2009an erregistratzen da eta, haren ostean, nolabaiteko susperraldia nabari da.

"Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektorean industrian agertzen den joeraren kontrakoa ikusten da. Horrela, hiru urtez hazkundera izan ondotik, 2006-2008 bitartean jaitziera izaten du eta, hurrengo urteetan, suspertu egiten da. Haatik, aurreko sektoretan bezala, 2010. urtea enplegua galduz amaitzen da.


“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorea da esparru sozial eta juridikoetako tituludunen enplegua mantentzen duen sektore bakarra, Hezkuntzak eta Herri Administrazioak profil horretako enpleguaren euskarri modura duen garrantzia dela medio. Hala ere, hazkundera etengabe jaisten da 2009. urtera arte, eta 2010. urtean igoera apal bat ematen da.



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Karrera sozial eta juridikoetako tituludunen kontratazioari dagokionez enpresei egindako kontsultetan mantentzeko joera ikusten da, kontratazioa apur bat areagotuz. Dena den, 10 urterako aurreikuspen batean zalantza handi samarra da.

Unibertsitate-tituludunen enplegu-tasaren bilakaera esparru sozial eta juridikoetan



Oinarria: langile-multzoan esparru sozial edo juridikoetako tituluduneh hornitutako 88 enpresa, iraganean edo orain

Base: total empresas, 103.

Elkarrizketatutako unibertsitarioek, azterketa kualitatiboa gehiago sakonduz, ikuspegi ezberdinak agertzen dituzte esparru sozial eta juridikoetako titulazioetarako.

Horrela, Zuzenbidea eraldatutako titulazio modura agertzen da eta gaur egun beste ezagutza-esparru batzuekin uztartu behar da. Horrenbestez, gradu bikoitzak azaltzen dira, espezializazio zabalagoa eta diziplinartekoagoa izateko aukera ekarri duena (batez ere, Zuzenbidearen graduari dagokionez): zuzenbidea-ingeniaritza, zuzenbidea-nazioarteko harremanak, zuzenbidea-enpresa, etab.

Enpresarekin zerikusia duten titulazioen kasuan, balio segurutzat hartzen dira, izan ere, nolabaiteko proportzionaltasuna ikusten da tituludunen eskaintza eta merkatuko eskaria aintzat hartuta. Horren ondorioz, enplegarritasunaren indizeak handiak dira.

Hezkuntza da denboran egonkorren mantentzen den titulazioa, unibertsitarioen artean oso estimatua dena, izan ere, titulazio horren enplegarritasuna handia da haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Hazkundera espero da 80ko hamarkadan lanean hasi ziren profesionalen txanda hartu behar duen belaunaldi berriak eraginda. Dena den, hazkundera hori murrizketen eta lanpostuak amortizatzeko premia izatearen ala ez izatearen baitan egongo da. Gainera, kontuan hartu behar da, eskariaren aldaketak eraginda (jaiotze-tasa etengabe jaisten ari da), lanpostu horietan birdoiketak izango direla.

Bestalde, gizarte hezkuntza eta gizarte-lana beherakada nabarmena izan duten titulazioak dira, 5 urteko krisialdiaren eta baliabide publikoetako murrizketen ondorioz. Hala ere, medikuntzan gertatzen den bezala, biztanleria zahartzen ari denez, eta mendekotasuna, pertsona desgaituak eta immigrazioa kontuan hartuta, hazkundera egotea espero da, izan ere, arazo sozial horiek gurean daude oraindik eta, sarritan, lehen baino biziago.

Psikologiako titulazioaren kasuan, duela hamarkada bat eskaria areagotu egin zen, giza adimena ezagutzeko interesak edota introspektorako irrikak eraginda. Haatik, gaur egun egoera ez da horren samurra, enpresa-munduan sartzeko zailtasunak dituen esparru bat delako, izan ere, enpresa-mundu hori gizatiartu egin da enpresa- eta ekonomia-ikasketetan coaching, mentoring edota lidergoaren kontzeptuak txertatu direlako.

Orobat, osasunaren esparruan sartzeko ere zailtasunak ditu, izan ere, medikuntzan ere, nolabait, "psikologia" txertatu da.


Soziologian eta politikekin lotutako titulazioen kasuan, ez da langabezia-tasa murrizterik lortu. Unibertsitatetik aipatzen denez, titulazio horiek beharrezkoak dira zinez, izan ere, gizarteari buruzko ikuspegi sakonago bat ematen dute. Haatik, enpresa eta instituzioetara begira dagoen (prozesuak eta balioak gizatiartzeko premiaren ikuspegitik) diskurtsoari ez zaio halako garrantzirik ematen enpresa-munduan. Funtsezko arazoa zera da, kompetentzia ukiezina ematen dutela, neurtzen eta zenbatzen zaila dena. Hortaz, enpresa-plangintzetatik at geratzen dira.

Irteera profesionalari so, esparru anitz hartzen ditu, izan ere, titulazio horien pentsamendu-ildoak oso interesgarriak dira enpresa eta instituzioek izaten dituzten arazoetarako: Nazioarteko harremanean oso baliagarria da kultura aniztasunerako gaitasuna, giza izaeraren ezagutza edota hizkuntzen ezagutza. Bestalde, profil oso baliagarria da teknologia hizkuntzen eta komunikazioaren eremuarekin, ekonomiarekin edota instituzioekin uztartzeko.

Ezagutza-esparrua: Osasun zientziak

Osasunaren ezagutza-esparruan titulaturako pertsonen kasuan enplegu-tasa % 95,8koa izan zen 2011n. Esparru horretan enpleguaren bilakaerak joera positibo iraunkorra erakusten du 2003-2007 bitartean, epealdi horretan tasa ia 5 puntutan areagotzen delarik. Urte horiek igarota, enplegu-tasa portzentajezko ia 3 puntutan jaitsi zen 2011. urtera arte.


Unibertsitate-tituludunen enplegu-tasaren bilakaera osasunaren esparruan



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturtatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” jardueretan lan egiten dute osasun arloko tituludun gehienek, gainerako jardueretatik oso urrun, eta denboran bariazio txikiak erakusten dituen joera batekin. “Merkataritza” jarduerak halako tituludunen % 10a baitaratzen du, jarduera farmazeutikoaren ondorioz, eta bilakaera apur bat aldakorra erakusten du.

Osasunaren esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturtatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Osasunaren esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN2009



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Zehatz-mehatz osasun arlokoak diren jarduerak dira esparru horretan enplegu-emaile nagusiak (ia % 70). Dena den, 2009az geroztik garrantzia galdu dute.

Esparru teknikoan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jardueren arabera JESN2009


	2009	2010	2011
Osasun jarduerak	%73,5	%70,3	%69,6
Txikizkako merkataritza	%8,4	%11,9	%12,7
Gizarte zerbitzuetako jarduerak	%3,1	%3,2	%3,6
Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-funtsak	%1,1	%2,9	%3,3
Herri administrazioa eta defentsa	%0,5	%0,8	%2,9
Hezkuntza	%3,2	%3,5	%2,1
Ostalaritza	%1,2	%1,0	%0,9
Etxeko jarduerak, etxeko zerbitzua	%0,4	%0,8	%0,9
Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioa	%0,0	%0,0	%0,7
Beste jarduera profesional batzuk, zientifikoak eta teknikoak	%1,2	%1,0	%0,6
Gainerakoak	%7,5	%4,5	%2,4

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatetik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Osasunaren esparruan titulaturako pertsonen enpleguari buruzko datuetan 4 urtero inflexio-puntu bat izaten da, bariazio negatiboekin, emaitza gogorrenak 2003. eta 2007. urtean pilatuz. Ateraldi horien ondoren hazkunde garaiak etorri ohi dira, urtez urte intentsitatea galtzen dutenak.

Lanean diren osasunaren esparruko tituladunen bariazioa (2001-2011) JESN93



Guztira



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektoreak osasun zientzietan titulaturako pertsonen enpleguari dagokionez duen garrantzia handiaren ondorioz, hain zuzen, sektore horrek adierazten ditu joera orokorrak, nahiz eta 2008. eta 2009. urteetan hazkundera handiagoa izan. Ondoren, ordea, jaitsiera nabariagoa izan zen, oro har, sektore guztiekin alderatuta.

Bestalde, merkataritzaren jardueran enpleguaren hazkunderak behera egingo du 2003. urtetik aurrera. Horrela, 2008. urtetik enplegua galtzen hasten da, hurrengo urteetan susperraldia izateko.




Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Ikuspegi kualitatibo batetik, medikuntza unibertsitarioen artean gehien eskatzen den titulazioen artean dagoela aipatzen da, historikoki enplegarritasuna handia izan delako. Biztanleria zahartzen ari denez, eskariak gora egiten jarraituko duela espero da, krisiaren ondorioz murrizketak aplikatu arren.

Ezagutza-esparrua: Zientzia Esperimentaletako titulazioak

2005. urtean enplegarritasunak gora egiten du berriro, kasu honetan, zientzia esperimentaletako tituludunen artean, enplegu-tasak % 95ean mantenduz. Haatik, 2009. urtean beheranzko joera abiatzen da. Horrela, aztertutako azken urtean tasa % 91,2koa da.


Unibertsitate-tituludunen enplegu-tasaren bilakaera zientzia esperimentalen esparruan



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


Sektore enplegu-emaileri dagokienez, zientzia esperimentaletako tituludunak hainbat sektoretan banatzen dira, "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" izanik enplegu-emaile nagusia. Dena den, sektore horretan gorabeherak izaten dira urteetan zehar. Horrela, 2010etik 2011ra beheranzko bilakaera ikusten da, "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektoreak garrantzi gehiago hartzen duen bitartean.

Zientzia esperimentalen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Zientzia esperimentalen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN2009



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza da, berriz ere, enplegu-emaila nagusia unibertsitate-profil honen kasuan. Hala ere, 2009az geroztik garrantzia galtzen du nabarmenki. Aitzitik, Ikerketa eta Garapena jarduerak presentzia gehiago hartzen dute, aztertutako hiru urtetan garrantzia bikoiztuz.

Horrenbestez, pentsatzekoa da zientzia esperimentaletako tituludun gero eta gehiagok egingo duela Ikerketa eta Garapena jardueren aldeko hautua irakaskuntzaren aldean.


Zientzia esperimentalen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jardueren arabera JESN2009

	2009	2010	2011
Hezkuntza	%30,4	%27,3	%21,9
Ikerketa eta garapena	%5,8	%7,3	%10,2
Txikizkako merkataritza	%6,4	%6,7	%6,9
Ostalaritza	%5,3	%3,9	%6,1
Herri administrazioa eta defentsa	%5,5	%7,0	%3,9
Beste elikadura-industria zenbait	%0,8	%1,7	%3,1
Informatika-jarduerak	%0,4	%0,4	%3,1
Biltegiatzea eta garraioarekin lotutako jarduerak	%1,9	%2,1	%3,0
Osasun jarduerak	%4,6	%2,5	%3,0
Arkitektura eta ingeniartzako zerbitzu teknikoak	%1,4	%1,2	%2,6
Gainerakoak	%37,6	%40,0	%36,3

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodaturatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


Zientzia esperimentaletako tituludunen kasuan, 2005. urtean hazkunderako joera hautsi egiten da jaitsiera apal batekin, 2006. urtean egoera are gehiago okertuz. Dena den, hurrengo urtean susperraldia nabaria da, eta aztertutako epealdiko enplegu aldetiko hazkunde handiena erregistratzen da. Haatik, 2008. eta 2009. urteetan ez da hazkunderari eustea lortzen eta epealdi horretan lanpostuak galtzen dira. 2010. urtean egoera hori gainditu eta enplegua sortzen da, baina, hurrengo urtean, berriro atzeraldia dator.

Lanean diren Zientzia esperimentalaren esparruko tituludunen bariazioa (2001-2011) JESN93



Diziplina esperimentaletako tituludunen artean “Zerbitzuetako beste jardura batzuk” da sektore enplegu-emaila nagusia. Hala ere, gorabeherak ematen dira hemen ere, eta 2005. eta 2010. urteetan enplegua galtzen da.

Zerbitzuetako beste jardura batzuk




Titulazio zehatzei dagokienez, kualitatiboki, kimiken titulazioak energiaren sektorearen barnean garrantzia izango duela aipatzen da. Era berean, biologian hazkundera agerikoagoa izatea aurreikusten da, bioteknologiaren sektoreari esker.

Ezagutza-esparruak: Humanitateetako titulazioak

Humanitateetan titulaturako pertsonen % 93ko enplegu-tasa izan zuten 2011n. Enplegu-tasaren hazkunde hori aurrez hasi zen gainerako esparruetan, hain justu, 2002an. Horrela, 2006. urtean % 97,8ko enplegu-tasa erregistratu zen. Hala ere, ordutik jaitsiera etengabea izan da urtez urte.

Unibertsitate-tituludunen enplegu-tasaren bilakaera Humanitateen esparruan



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza


“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorea da humanitateen esparruko unibertsitate-tituludunen enplegu-emaila nagusia. 2007-2009 bitartean jaitsiera izan ostean, sektoreak garrantzia berreskuratu du kontratazioari dagokionez.

Humanitateen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN93



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Humanitateen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN2009



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Hezkuntza da, berriro ere, unibertsitate-tituludunen artean enplegu gehien ematen dituen jarduera, oraingoan Humanitateen esparruan. Horrela, unibertsitario horien ia erdia hartzen ditu jarduera horrek eta 2009az geroztik garrantzia areagotuz doa.


Humanitateen esparruan titulaturako pertsonen enpleguaren banaketa jarduera-sektoreka JESN2009

	2009	2010	2011
Hezkuntza	%42,3	%42,8	%48,4
Herri administrazioa eta defentsa	%8,5	%9,4	%6,3
Sormen-jarduerak, artistikoak eta ikuskizunak	%4,3	%5,1	%4,7
Beste jarduera profesional batzuk, zientifikoak eta teknikoak	%3,3	%4,6	%4,1
Jarduera asoziatiboak	%2,7	%2,1	%3,4
Txikizkako merkataritza	%7,2	%4,9	%3,0
Enpresei laguntzeko jarduerak	%1,3	%2,3	%2,7
Osasun jarduerak	%2,6	%2,9	%2,5
Publizitatea eta merkatu-ikerketak	%0,8	%2,3	%2,4
Zinemagintza, bideo eta telebistako jarduerak	%1,3	%1,6	%1,9
Gainerakoak	%25,5	%22,2	%20,5

Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

Oro har, 2007. urtea da enpleguari dagokionez jaitsiera bortitzena izan duena. Haatik, humanitateetako tituludunen artean aztertutako azken bi urtetan nabaritu da batez ere atzeraldia, enplegu asko galdua.


Lanean diren Humanitateen esparruko tituludunen bariazioa (2001-2011) JESN93
Guztira



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

“Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorea bakarka hartuta, joera argiagoa da. Horrela, 2005az geroztik enplegua etengabe jaitsi da, aztertutako azken urtean zero azpitiko datuetara iritsi arte.

Zerbitzuetako beste jarduera batzuk



Iturria: Berezko sorkuntza, Lan-merkatuari buruzko Zentzuko mikrodatuetatik abiatuz. Enplegu eta Gizarte Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

EUSKADIN TALENTUARI DAGOKIONEZ DAUDEN PREMIEN INGURUKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

2020an beharko diren goi mailako pertsona tituludunen (GT) hurbilketa egiterakoan, definizio matematiko batetik abiatu behar gara:

Beharko diren GT berri kopurua = Merkatutik irtengo diren GT kopurua + 2020an lanean izango diren GT kopurua - 2012an lanean diren GT kopurua.

Merkatutik irtengo diren goi mailako tituludun kopurua


Hemen laneratutako biztanleriaren multzotik atera eta, adinagatik, jarduerarik ezaren multzoan barneratuko diren profesionalen kopurua kalkulatu behar dugu, izan ere, profesional horien lekua nolabait bete beharko da. Horrenbestez, lanean den biztanleriaren piramide soziodemografikoa aztertuta egin ahal izango da hurbilketa.

Aitzitik, lan-bizitza aktiboa uzteko beste zenbait arrazoi bilatzen saiatzea alferrikako lana izango da.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eraturako Lan-merkatuari buruzko Zentsura joko dugu, 2020an 65 urtetik gora izango duten unibertsitate tituludunen artean lanean den pertsona kopurua kalkulatzeko, hori baita erretirorako gutxi gorabeherako adina.

Lan-merkatuari buruzko Zentsuan xehetasunezko datuak 2011. urtera arte baino ematen ez direnez, ezinbestekoa da estimazio horietatik, 2014. urtera arte lan-merkatutik irtengo diren pertsona kopurua kentzea. Proiekzio horiekin, egun lanean diren eta unibertsitateko titulazioa duten 26.548 pertsonen 2020. urtean erretirorako batez besteko adina gaindituko dutela kalkula daiteke.

*EGUN LANEAN ARI DIREN ETA 2020AN ERRETIRORAKO BATEZ BESTEKO ADINA GAINDITUKO DUTEN
PERTSONEN KALKULUA, EZAGUTZA-ESPARRUAREN ARABERA*




2020an lanean izango diren unibertsitateko tituludun kopuruaren kalkulua

Mendebaldeko ekonomietan egun bizi den egoera ekonomiko zailak, eta bilakaera teknologikoa nahiz horrek produktibitatean izan ditzakeen ondorioak (esate baterako, eskulanaren premiarik eza) ezagutzeko zailtasunak eraginda, oso zaila da epe ertain eta luzera enpleguaren bilakaerari buruzko estimazio bat egitea. Eta datu hori erabakigarria da beharko diren profesional kopuruaren estimazio kuantitatibo bat burutzeko, hori baita abiapuntua.

Edozein kasutan, BJA (Biztanleriaren gaineko inkesta Jardueraren Arabera) inkestako denbora-serie ezberdinak aztertuta, eta hainbat instituziotatik aurreikusitako agertokiak aintzat hartuta, ontzat eman dezakegun agertoki modura, esan dezakegu enpleguaren galerari dagokionez inflexio-puntu gaudela, eta pixkanaka izan arren, 2020. urtera arte lanpostuak sortzeko prozesua indartu egingo dela. Agertoki horretan, eta 2018. urtetik aurrera, lanean izango liratekeen pertsona kopuruak, krisiaren aurretiko garaian zeudenen kopurua gaituko du.

Laneratutako pertsona kopuruaren bilakaera, eta 2014. urtetik aurrerako aurreikuspena barne



Lan-merkatuari buruzko Zentsua (LMZ) oinarritzat hartuta, eta 2001. urteaz geroztik, aztergarria da egun dauden (eta iraganean zeuden) 100 enplegu bakoitzeko zenbat betetzen ote diren unibertsitateko titulazio duten pertsonekin, sektoreka eta jardueradarren arabera ere hainbat banaketa egin daitezkeelarik. Dena den, objektatu daiteke lan-merkatua kualifikazio gaineratiko duten profesionalak xurgatzen ari dela eta,

horrenbestez, ondoriozta daiteke GT horiek betetako lanpostu guztiak ez datozela guztiz bat titulazioarekin; horren aurka esan daiteke merkatuak eskuragarri dauden baliabide onenak hautatzen dituela, are gehiago egun bizi dugun egoeran. Horrela, irteera profesional gehien dituzten karrerei buruzko txostenaren arabera, graduondoko ikasketak dituzten langileak eta unibertsitate-tituludunak dira gehien eskatzen direnak (% 60) eta, era berean, horiek dira Estatuko lan-merkatuan ondoen ordainduta daudenak.

Hortaz, Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuetara itzuliz, 2001-2011 epealdian, batez beste, euskal ekonomian lanean ziren 1000 pertsonako 275,5 unibertsitate-tituludunak ziren. Horietako gehienak arlo SOZIAL eta JURIDIKOETAKO ezagutza-esparrukoak.

SEKTOREAN LANEAN ZIREN EZAGUTZA-ESPARRU BAKOITZEKO UNIBERTSITATE-TITULUDUNAK, LAN-MERKATU OSOAN LANEAN ZIREN 1000 PERTSONAKO

2001-2011 batez bestekoa	LEHEN MAILAKOA/ ERAUZKETAKOAK	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	MERKATARI- TZA ETA ENPRESETA- RAKO ZERBITZUAK	BESTE ZERBITZU BATZUK	GUZTIRA
Teknikoak	1,15	21,80	4,96	25,06	9,58	62,55
Sozialak eta juridikoak	0,64	15,10	2,83	55,18	64,43	138,19
Humanitateak	0,10	1,61	0,24	5,75	19,06	26,77
Osasuna	0,10	0,95	0,10	5,45	27,37	33,97
Esperimentalak	0,17	2,89	0,17	4,83	5,97	14,03
Guztira	2,17	42,36	8,30	96,27	126,41	275,50

Haatik, errealitate hori eraldatuz joan da pixkanaka. Horrela, 2001-2011 bitartean, eta berriro Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako Lan-merkatuari buruzko Zentsuko datuetatik abiatuz, ikus daiteke, hamar urtetan, lanean ziren Goi Mailako Tituludunen kopurua 1000tik 234 izatetik, 1000tik 314 baino gehiago izatera pasa dela. Ezagutza-esparru guztiak hazi badira ere, esparru teknikoa eta osasun orokorraren esparrua modu adierazgarrian hazi dira.

SEKTOREAN LANEAN ZIREN EZAGUTZA-ESPARRU BAKOITZEKO UNIBERTSITATE TITULUDUNAK, LAN-MERKATU OSOAN LANEAN ZIREN 1000 PERTSONAKO

Mila pertsona	2001						2011					
	LEHEN MAILAKOA/ ERAUZKETAKOAK	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	MERKATARITZA ETA ENPRESETARAKO ZERBITZUAK	BESTE ZERBITZU BATZUK	GUZTIRA	LEHEN MAILAKOA/ ERAUZKETAKOAK	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	MERKATARITZA ETA ENPRESETARAKO ZERBITZUAK	BESTE ZERBITZU BATZUK	GUZTIRA
Teknikoak	0,97	20,06	3,85	20,79	6,97	52,64	1,09	25,68	7,00	30,68	13,91	78,36
Sozialak eta juridikoak	0,43	16,56	1,84	49,53	51,18	119,54	0,32	14,25	2,95	56,56	77,85	151,94
Humanitateak	0,20	1,66	0,28	5,28	16,20	23,61	0,01	1,60	0,13	6,11	20,81	28,65
Osasuna	0,15	1,11	0,06	3,17	22,34	26,84	0,00	0,83	0,03	7,30	32,48	40,63
Esperimentalak	0,14	2,63	0,13	3,91	4,93	11,74	0,36	2,56	0,07	6,60	5,62	15,20
Guztira	1,88	42,01	6,16	82,68	101,62	234,36	1,77	44,91	10,18	107,26	150,67	314,79

Horrenbestez, ezinbestekoa da aurreikuspenetarako ereduak aplikatzea, aurreko hamar urtekoan azaldutako joeretan oinarritzat hartuta, 2020an profesionalen eskaria nola egituratuko den ulertzen saiatzeko.

Azterketa horretatik abiatuz, une honetatik 2020. urtera bitartean unibertsitate-tituludunek lan-merkatuan parte hartzeko dinamikan sakonduko dela ondoriozta daiteke, aipatu urtean lanean izango liratekeen 1000 pertsonako 410 unibertsitate-tituludunak izanik.

2020AN SEKTOREAN LANEAN IZANGO DIREN EZAGUTZA-ESPARRU BAKOITZEKO UNIBERTSITATE-TITULUDUNAK, LAN-MERKATU OSOAN LANEAN IZANGO DIREN 1000 PERTSONAKO

Mila pertsona	LEHEN MAILAKOA/ ERAUZKETAKOAK	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	MERKATARITZA ETA ENPRESETARAKO ZERBITZUAK	BESTE ZERBITZU BATZUK	GUZTIRA
Teknikoak	1,01	32,78	9,97	43,18	20,14	107,08
Sozialak eta juridikoak	0,72	16,14	5,75	63,04	101,88	187,54
Humanitateak	0,00	1,83	0,31	9,81	27,79	39,75
Osasuna	0,01	0,47	0,01	11,15	43,85	55,49
Esperimentalak	0,76	3,10	0,24	8,73	7,77	20,60
Guztira	2,50	54,33	16,29	135,90	201,43	410,45

Horrek zera suposatzen du, 2011. urtearekin alderatuta, gutxi gorabehera goi mailako titulazioa duten 119.270 pertsona gehiago izango direla lanean, erretiroetatik edo bizitza aktibotik irteteetatik izan daitekeen ordezkapenen premia kontuan hartu gabe. Adar soziala eta juridikoa nagusiak izaten jarraitzen duten arren, balio absolutuetan, titulazio teknikoaren eskaria lehenesten da industria-sektoretan ez ezik, zerbitzuen sektorean edo eraikuntzan.

SEKTOREAN LANEAN IZANGO DEN EZAGUTZA-ESPARRU BAKOITZEKO UNIBERTSITATE-TITULUDUN KOPURUAREN BILAKAERA ABSOLUTUARI BURUZKO ESTIMAZIOA

2020-2011 bitarteko aldeak	LEHEN MAILAKO/A-ERAZKETAOKAK	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	MERKATARI TZA ETA ENPRESETA RAKO ZERBITZUAK	BESTE ZERBITZU BATZUK	GUZTIRA
Teknikoak	0,00	9,03	3,50	14,80	7,26	34,59
Sozialak eta juridikoak	0,42	2,96	3,03	10,72	29,87	47,00
Humanitateak	-0,01	0,36	0,19	4,15	8,55	13,24
Osasuna	0,01	-0,29	-0,02	4,39	13,81	17,90
Esperimentalak	0,43	0,73	0,18	2,62	2,58	6,54
Guztira	0,86	12,79	6,87	36,69	62,06	119,27

Horrenbestez, lan-merkatuaren joeraren ondorioz inibertsitate-tituludun kopuruaren igoera aintzat hartzeaz gain, 2020. urtean erretiroa hartzeko batez besteko adina gaitutako duten pertsonak ordezkatzeko premia gaineratuta, une honetatik 2020 bitartean goi mailako 145.820 tituludun laneratuko dira, gehienak adar sozial eta teknikokoak.

TALENTU-PREMIA ABSOLUTUAK 2020AN

	2020an erretiroaren batez besteko adina gaitutako duten pertsonak	Profesionalen igoera absolutua 2020an	Eskari osoa
Teknikoak	5.167	34.591	39.758
Sozialak eta juridikoak	9.423	46.997	56.420
Humanitateak	3.248	13.242	16.490
Osasuna	7.449	17.903	25.352
Esperimentalak	1.261	6.540	7.801
Guztira	26.548	119.272	145.820

Unibertsitate-tituludunekin lotutako eskaintza/eskariaren estimazioa 2020an

Behin unibertsitate-tituludunen eskaria eskuratuta, urtez urteko eskaintzaren kalkulua burutzen da 2020. urtera arte, Euskadin dauden tituludunen eta entitate enplegu-emaileek egingo duten eskariaren arteko doikuntza ezagutzeko xedez.

Horretarako, balizko bi egoera ekonomiko hartzen dira kontuan:

1-Agertoki kontserbadoreagoa, laneratutako pertsona kopurua egonkortu egiten da kolektibo horretan, unibertsitate-tituludunen presentzia areagotu egiten da, azken urteetan ikusitako joerekin bat etorritik.

2-Enplegu-hazkundera erakusten duen agertokia. Laneratutako pertsona kopurua areagotu egiten da pixkanaka, 2020 inguruan maximo historikoak berreskuratzeraino. Laneratutako pertsonen serie historikoaren azterketa (1985etik), bere bilakaera ziklikoa eta Eusko Jaurlaritzak edota BBVA bankuaren Ikerketa Zerbitzuak 2014. eta 2015. urterako Barne Produktu Gordinaren hazkunderari dagokionez egiten dituzten aurreikuspenak hartzen dira abiapuntu modura. Iturri horien arabera, 2015ean ekonomiaren hazkundera % 1,7 ingurukoa izango da, eta enplegua % 0,7 haziko da.

Goi mailako tituludunen eskaintza eta eskariari buruzko estimazioa egiteko aldaera hauek hartzen dira kontuan:

- Hiru euskal unibertsitateetako gradudun kopurua erreferentziazko urtean.
- Erreferentziazko urtearen aurreko urtearen amaieran zegoen langabetu kopurua (erretiroaren batez besteko adina gainditzen dutenak kenduta: 67 urte osasunaren esparruko profesionalen kasuan eta 64 urte gainerako profesionalen kasuan.
- Erreferentziazko urtean erretiroaren batez besteko adina gainditzen duten pertsonak: 67 urte osasunaren esparruko profesionalen kasuan eta 64 urte gainerako profesionalen kasuan.
- Profesionalen igoera absolutua erreferentziazko urtean (ezberdina planteatutako agertokiaren arabera).

1-Agertoki kontserbadorea


Tituludun guztiak aintzat hartzen dituen eskaintza eta eskariari buruzko kalkuluetan urteetan zehar eskaintzari dagokionez superabita erakusten dute (unibertsitate-tituludunak gehiago dira hutsik dauden lanpostuak betetzeko behar direnak baino), nahiz eta urteen poderioz desoreka hori murrizten joan (2015ean gaineratikoa 21.131 izanik eta 2020an 13.916 izanik).

Baina, datuen jatorriari buruzko aldaera ezberdinak aztertuz ikus daitekeenez, enplegua sortzearekin lotutako joerak mantentzen direla adierazten duen agertoki kontserbadoreenean ere, eskatutako profesional kopurua urtez urte areagotzea aurreikusten da, enplegu berriak sortzen direlako edota erretiroa hartu duten pertsonak ordezkatu behar direlako eta, 2016. urtetik aurrera lan-merkatuan sar daitezkeen unibertsitario kopurua apalagoa izango da eskari hori betetzeko behar den kopurua baino.

Horrenbestez, agertoki kontserbadore batean profesionalen superabita, nagusiki, langabezia diren pertsona kopuruagatik ematen da, eskaera igota ere, 2020. urtean

oraindik guztiak laneratu ezingo direlarik, nahiz eta joerek adierazten dutenez, hori hurrengo urteetan gerta daitekeen.

Unibertsitate-tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa




Ezagutza-esparruak aintzat hartuta, ageriko aldeak ematen dira. Alde batetik, Humanitateen esparrua eta Osasunaren esparrua dira 2020. urtean tituludun kopuruari dagokionez defizita izango duten ezagutza-esparru bakarrak. Gainerako, esparruetan superabita izango da oraindik.

Esparru teknikoan gradudun kopurua ia berdin mantentzen da urtez urte, eta langabetuen kopurua nabarmenki murrizten da.


Beraz, enplegua areagotzea aurreikusten duen agertoki kontserbadore honetan ere, non tituludun kopuru gaineratiko argi batetik abiatzen den, hurrengo bosturtekoan zehar esparru teknikoan tituludunekin lotutako eskaintza eta eskaria elkarrengana hurbilduko dira etengabe, gehienbat eskaintza jaitsi egiten delako. Horrenbestez, urte gutxiren buruan halako titulazioak dituzten profesionalen defizita izatea gerta daiteke.

Esparru teknikoko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Esparru Esperimentaletako tituludunei dagokienez, kasu honetan ere eskaintza eta eskaria elkarrengana hurbiltzen dira neurri batean, baina ez esparru teknikoan bezala, izan ere, 2015. urtearekin alderatuta eskariaren kasuan bariazio apalak ematen diren arren, eskaintza, apur bat murrizten den arren, maila altuetan mantentzen da, bai gradudunen ikuspegitik eta baita langabetu kopuruaren ikuspegitik ere.


Esparru Esperimentaletako tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Osasunaren esparruari dagokionez, 2015ean tituludun kopurua gaineratiko izan ondoren, 2019. urtean egoera irauli eta profesionalen defizita ematen da. Langabetu kopurua murriztean eta gradudun kopurua mantentzean, eskaintza osoa murriztu egiten da pixkanaka. Eskariaren aldetik, batez ere erretiroa hartzeko adinean diren pertsonak ordezkatzeko premia larria nabarmentzen da. Horren ondorioz, profesional gehiago behar dira eskari hori betetzeko.


Hala ere, osasun arloko profesionalen kasuan, neurri handi batean, enplegu publikoko eskaintzaren baitan daude laneratzeko aukerak. Horrenbestez, zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak hartzen dituen erabakiek baldintzatuko dute etorkizuneko agertokia zein izango den.

Osasunaren esparruko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Humanitateen esparruan osasunaren esparruan gertatzen denaren antzekoa gertatzen da. Horrela, 2019. urtetik aurrera esparru horretan profesionalen defizita izango da, batez ere, langabetu kopurua murriztu egingo delako eta gradudun kopurua, berriz, mantendu. Horren ondorioz, eskaintza jaitsi egingo da, eskaria, bariazio apalekin, areagotu egiten den bitartean.

Humanitateen esparruko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa




Esparru sozial eta juridikoetan egoera erabat ezberdina da aurreko ezagutza-esparruekin alderatuta.

Esparru horretan tituludunen eskaintza osoa maila altuetan mantentzen da, izan ere, gradudun kopuruaren nahiz erabilgarri diren langabetu kopuruaren bilakaeran bariazio apalak baino ez dira hautematen. Bestalde, eskaria areagotu arren, tituludun guztiak hartzetik oso urrun dago. Horrenbestez, eskaintza eta eskariaren arteko balantzea antzeko mailetan mantentzen da urtetan zehar, tituludunen superabit nabarmen batekin.

Hala ere, aipatu behar da esparru sozial eta juridikoan izaera anitzeko titulazio ugari barneratzen direla, enplegarritasunari dagokionez oso maila ezberdinak agertzen dituztenak. Hortaz, titulazioen gaineko azterketa eginez gero, elkarren aurkako agertokiak azalduko lirateke (dena den, laginak oso gutxi liratekeenez, titulazioen araberako azterketa hori ez da egingarria).

Esparru sozial eta Juridikoetako tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Ñabardura gisa, adierazgarria da tituludunen eskaintza zenbatzerakoan biztanleria aktiboa hartzen dela kontuan (langabezian diren pertsonak + titulazioa lortu berritan, unibertsitate-irten ondoren, lanpostu berrietan edo erretiroa hartzen duten pertsonen utzitako lanpostuetan sartzen diren pertsonak). Hortaz, kalkulatzeko ezinezkoa izateagatik, azterketatik kanpo geratzen dira, jarduerarik gabe egonik, enplegu hutsak betetzeko dagoen tituludunen eskaintza horretan sartzeko moduan egotera pasatu ahal diren pertsonak.

Jarduerarik gabe egonik, 24 urtetik gora eta 65 urtetik behera duten unibertsitate-tituludunak aintzat hartuta (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan-merkatuari buruzko Zentzuari kasu eginez), 2001-2011 bitartean batez bestekoa 40.000 pertsonakoa da.


Agertoki kontserbadore batean pertsona horiek laneratuz jarduera-tasa areagotzea eskatuko luketen esparruak Osasunaren eta Humanitateen esparruak izan arren, enpleguaren sorrerarekin lotutako agertoki baikor batean, premia hori ezagutza-esparru guztietara hedatuko litzateke modu nabarmenean.

2-Langile kopuruaren hazkunde orokorraren agertokia Euskadin

Enplegua sortzearen hipotesian oinarritutako agertoki ez horren kontserbadore batean, unibertsitate-tituludunen gaineratikoak 2017. urtera arte iraungo zukeen, urte horretan eskaintza eta eskaria bat etorriko lirakeelarik. Horrek ez du esanahi sortutako enplegua erabat beteko litzatekeenik.

2018. urtetik aurrera egoera irauli egingo litzateke, profesionalen eskaria handiagoa izango litzatekeelarik erabilgarri dagoen profesional kopurua baino. Horrenbestez, hiru urtez segidan profesionalen defizita emango litzateke, batez ere, eskaria pixkanaka areagotzeagatik, erabilgarri dauden profesional kopuruarekin bete ezin dena.


Unibertsitate-tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Unibertsitate-tituludun guztiekin gertatzen den moduan, 2017. urtetik aurrera **esparru teknikoan** ere tituludunen eskaintzaren superabiteko egoera irauli egiten da, eta 2018-2020 bitartean profesionalen defizita ematen da.

Eskaintza eta eskariaren arteko tarte hori, nagusiki, betetzeko dauden enplegu kopuruaren hazkunde nabarmen batetik eratortzen da, profesional kopurua egonkortu egiten den bitartean, hutsik geratzen diren lanpostu horiek bete ezin direlarik.


Esparru teknikoko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Esparru Esperimentaletan, tituludunen eskaintza beherantz joan arren, beste urtebetez profesional kopurua handiagoa da enpleguaren eskaria betetzeko beharrezkoa dena baino, batez ere, dagoen langabetu gaineratikoagatik (horri lan-merkatuan barneratzen diren tituludun berrien kopuru egonkorra gaineratu behar zaio).


Haatik, 2018. urtetik aurrera, enplegu kopuruaren hazkundera nabariagoa da eta tituludun kopuruak beherantz jarraitzen du, egonkortu arte. Egoera horretan 2019. eta 2020. urteetan profesionalen defizit nabarmena ematen da.

Esparru Esperimentaletako tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa




Osasunaren esparrua da, enpleguaren sorrera ezaugarri duen agertoki baikor batean, proiektatutako urte guztietan zehar profesionalen defizita agertzen duen ezagutza-esparru bakarra, izan ere, pixkanaka enplegu kopurua areagotu egiten da, langabezia dauden tituludun gaineratikoak eta ikasketak amaitu ostean lan-merkatuan barneratzen direnak baitaratuz.

Osasunaren esparruko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa




Humanitateen Esparruari dagokionez, 2017. urtetik aurrera tituludun eskaintzaren defizita ematen da eta egoera hori 2020. urtera arte mantentzen da. Horrela, arrakala sakona hautematen da, alde batetik eskaria areagotu egiten delako eta, beste alde batetik, erabilgarri dagoen tituludun kopurua nabarmen jaisten delako: langabezia kopurua beherantz eta lan-merkatuan barneratzen den gradudun berrien kopurua egonkor.

Humanitateen esparruko tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



Profesionalen eskaria nabarmen hazi arren, 2015. urtetik enplegua hazten ari delako, 2018. urtera arte ez da profesionalen defizitik emango **esparru sozial eta juridikoetan**. Eskaintzak hobeto eusten dio langabezian pertsona ugari dagoela eta tituludun berrien birjarpena egonkor mantentzen delako proiektatutako urteetan zehar.

Esparru sozial eta Juridikoetako tituludun guztien eskaintza/eskariari buruzko proiektzioa



UNIBERTSITATE-TITULUDUNEI ESKATUTAKO GAITASUN ETA TREBETASUNAK

Enpresa eta teknologia-zentroetako Giza Baliabideetako sailletako arduradunei eta adituei egindako elkarrizketetan titulazio jakin batzuen premiatik haragoko arrazoien inguruko kezka handiagoa hautematen da, enpleguetan erakutsi beharreko gaitasun eta trebetasunekin lotutakoa. Gaur egun, eta epe labur eta ertainera, enpresetan elkarrizketatutako gehienen ustez, unibertsitateko titulazioetako eskaintzaren eta ekoizpen-ehunduratik egindako eskariaren arteko doikuntza egokia izango da.

Haatik, unibertsitateetan eta administrazioetan adierazten dutenez, Euskadiko oraingo eta etorkizuneko langileek titulazioarekin zerikusia duen berezko ezagutzatik haragoko trebetasun eta gaitasunak garatu beharko dituzte ezinbestean. Enpresek, beren eskari zehatzetatik eratoritzen denez, berretsi egiten dute hori. Gogoeta hori, gehienbat, herrialdeak bizi duen zalantzazko egoeraren ondorio da, epe luzeko helburu zehatzak zehaztea zailtzen duena. Egoera horretan, gero eta garrantzitsuagoa da pertsonak abileziak, kompetentziak, trebetasunak, gaitasuna eta ikuspegia gaineratzea.

Lanarekiko jarrera aldaketa batez hitz egiten da, izan ere, zalantzazko egoera bat bizi duen sistema ekonomiko baten aurrean gaude, etorkizunerako ikuspegia lausotu egiten duena. Horrenbestez, langileen jarrera aldatu egin behar da, gure gizarteak erosotasunean bermatuta egoteari utz diezaion, besteren konturako lan finkoa, eta baldintza jakin batzuekin, bilatu gabe.

Unibertsitatea dagoeneko gai horiek lantzen ari da eta bere hezkuntza-sisteman txertatu ditu; dena den, hori ikusgarri egingo duen pentsamolde aldaketa oraindik berandutu egingo da, sendotu arte bederen:

- Gaitasunak: taldeko lana, egokitzapena ingurunera, lidergoa, komunikazioa, proiektuen kudeaketa, bezeroekiko harremana, pertsonen multzoa; sormenerako eta hobekuntzarako gaitasuna.
- Trebetasunak eta balioak: merkatuari begira, hartzaile batentzako zerbait garatzeko (ez ekoizpen zientifikorako ikertzaileak), berrikuntzara begira, lorpenera begira, kalitateari begira, konpromisoa, ahalegina, ekimena, jarduteko grina, malgutasuna eta baretasuna ekiteko garaian eta nolabaiteko profil ekintzailea hautagaien artean: sortzeko, arriskatzeko edota porrot egiteko pentsamendua duten pertsonak.
- Elkarrizketatutako enpresak zehatzagoak dira eta hizkuntzak menderatzeko gaitasuna gaineratzen dute (hirugarren eta laugarren hizkuntza planteatzen dute), eta malgutasun geografiko batekin, munduari so, sarritan atzerrian esperientzia izatearekin lotzen dena. Azken hori hainbat enpresek babesten dute, izan ere, beren Giza Baliabideak atzerriko proiektuetan murgiltzeari dagokionez nagikeria hautematen baitute.

EUSKADI TALENTUA ERAKARRI ETA ATXIKITZEKO POLO MODURA

Euskadi bizitzeko leku erakargarria dela uste dute elkarrizketatutako pertsona guztiek eta hori erabakigarria dela irizten dute talentua erakartzeari dagokionez, izan ere, profesionalki mugitzeko erabakia "familiar" hartzen da. Zentzu horretan Euskadi oso ongi kokaturik dagoela uste dute, izan ere, ingurune sozial atsegina eskaintzen du, era guztietako zerbitzuz hornitua. Bestela esanda, bizi-kalitatea eskaintzen du, nahiz eta ezinbestekoa den dinamikak abiarazteko ahalegin bat egitea etortzen diren pertsonak sozialki integra daitezen. Aniztasunaren aurrean burua zabalik mantendu behar da, bestela oso zaila baita talentua atxikitzea.

Talentua erakarri eta atxikitzeke lan-jomuga izateari dagokionez, iritzia anitzagoak dira elkarrizketatutako pertsonen artean.

Talentua erakartzeari dagokionez:

- Erakargarria da, izan ere:
 - ✓ ekoizpen-eredu oso finkatua dago, industria-sektore sendo batekin, gainerako ekonomia elikatzen duena. Gainera, epe ertain eta luzera programaketa oso erakargarria da.
 - ✓ Gaur egun, gainera, egoera politikoa egonkorra da.

Unibertsitate eta ikerketa-zentroek emandako datuek talentua erakartzeko jomuga erakargarria dela berresten dute, izan ere, bertako Giza Baliabide eta ikasleen artean nazionalitate ugari dago.

- Erakargarritasunerako oztopoa da:
 - Munduan ez du ikusgaitasunik.
 - Espainiari lotua dago, ez du berezko markarik.
 - Berezko hizkuntza ez dago beste batzuekin konektatua.
 - Industria-ehundura tamaina txikiko enpresez osatzen da, kontrataziorako gaitasun eskasarekin.


Talentua atxikitzeari dagokionez: alde batetik euskal identitatea zentzu horretan mesedegarria dela uste da, izan ere, lurraldearekiko eta familiarekiko atxikimendua dago eta emigratzen duten pertsona gehienak itzuli egiten dira.

Hala ere, egun bizi dugun egoera ekonomikoa dela medio, itzulera hori, epe labur edo ertainera, zaildu egiten da.

Ikerketari dagokionez, erakarpen edo atxikipenak edota ikertzaileen itzulera ez du horrenbesteko zerikusirik egoera ekonomia orokorrarekin edo bizitzeko ingurunearen egokitasunarekin, baizik eta pertsonen behar beste apeta eskaintzearekin, soldatetik harago. Hau da, proiektu interesgarria eta ikerketa-ildo taxuzkoak, ikerketa-taldeak eta abangoardiazko ekipamendu eta azpiegitura zientifikoak eskaini behar dira, eta epe ertain eta luzera karrera profesional batekin lotutako ilusioa hedatu behar da.

Kuantitatiboki Euskadi bizitzeko leku erakargarria dela berresten da, baina badira desadostasunak lan-jomuga izateari dagokionez, nagusiki zerbitzuetako enpresen eta eraikuntza enpresen artean.

Euskadik bizitzeko eta lan egiteko leku modura duen erakargarritasunari buruz enpresek egindako balioespena



Oinarria: 103 enpresa

ONDORIO NAGUSIAK

Aztertutako emaitzak aintzat hartuz, jarraian atera diren ondorio nagusiak azaltzen dira, hala unibertsitate-tituludunen eskaintzaren ikuspegitik nola lan-merkatuan, haiekin lotuta, egiten den eskariaren ikuspegitik.

TALENTUAREN ESKAINTZATIK ABIATUTA

Ezagutzan intentsiboa den gizartea

Euskadiko ikasleria osoa kontuan hartuta, % 63,3ak goi mailako prestakuntza dauka (2001ean % 46,3), EB-28 barneko herrialdeen batez bestekotik oso gora (% 46,8).

Euskadi EB-28 barneko herrialdeen batez bestekotik gora aurkitzen da 24-64 adin-tarteari dagokionez, izan ere, adin horretako biztanleriaren % 47,5ak goi mailako prestakuntza du (2013). Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2011-2014 Unibertsitate Planean 2014. urterako ezarritako helburua (% 45) gainditzen du eta 2020. urterako helburura hurbiltzen da (% 50).

Biztanleria osoa kontuan hartuta, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen portzentajea % 65,6 areagotu da 1991-2001 epealdian, nahiz eta 2001-2011 bitartean hazkundera % 20,1era murriztu. Lanbide Heziketan kontrako joera ikusten da, izan ere, lehen epealdian hazkundera % 10,8koa izan ostean, bigarren epealdian hazkunde hori bikoiztu egiten da (% 21,6).

Horrenbestez, unibertsitatea da oraindik lehenesten den aukera derrigorrezko ikasketak amaitu ondotik, nahiz eta garrantzia erlatiboa galdu, Lanbide Heziketaren alde. Badirudi irteera profesional zuzenagoa bilatzea lehenesten dela unibertsitate-prestakuntzaren kaltean. Hori agerian geratzen da 2009az geroztik unibertsitateko matrikulazioek izandako beherakada ikusten badugu, aldi berean, Lanbide Heziketan ikasle kopuruak gora egiten jarraitzen duen bitartean.

Dena den, Lanbide Heziketak nahiz unibertsitateak gora egin dute derrigorrezko ikasketak amaitu ondorengo aukera modura. Horri esker, eskola uztearen tasak jaitsi egin dira eta % 8,8an kokatzen dira, EB-28 barneko herrialdeen batez bestekoaren azpitik (% 11,9) eta Espainiako batez bestekotik are urrunago (% 23,5).

Euskadiren aldeko egoera horrek bi ondorio ditu:

- Prestakuntza Euskadiko ekoizpen-ehunduraren errealitatera egokitzen da, ekonomia aurreratu horretan balio erantsi gehiagoko ondareen ekoizpenerako garapena hautematen da, non teknologiaren garrantzia gero eta handiagoa izango den eta gero eta enplegu kualifikatuagoak beharko diren, prestakuntzarik gabeko pertsonak kanpoan geratuko direlarik. Berez, errealitate hori gero eta hurbilago dago, izan ere, 2005ean enplegu ez kualifikatuak % 30,9 ziren eta 2011n portzentaje hori % 19,3ra murriztu da.
- Biztanleria gero eta prestatuagoa dago, baina horrek ondorio negatibo bat ere badu, hau da, gaineratiko kualifikazioaren agerpena, unibertsitarioak kualifikazio gutxiagoko lanpostuetan laneratzea ekarriko duena. Lan-merkatuari buruzko Zentzuan 2011. urterako ematen diren datuen arabera, kualifikaziorik gabeko enpleguaren % 10 goi mailako hezkuntza duten pertsonak betetzen dute, eta Lanbideren datuen arabera, 2008. urteko promozioan titulazioa lortu zuten hamar pertsonatik bi baino gehiagok ez ditu eskatzen zen unibertsitate-tituluarekin bat datozen funtzioak betetzen. Etorkizunean zenbaki horiek gora edo behera egingo dute, goi mailako hezkuntzak erakusten duen joeraren arabera.

Euskadin etorkizunean prestakuntza arloan izan dezakegun argazkiarekin jarraituz, Eustat erakundeak eskola-adin hori (18-23 urte) duen biztanleriari buruz egindako proiektioek adierazten dutenez, unibertsitario kopuruak jaisten jarraituko du 2020. urteari begira, nahiz eta hurrengo datari so (2026) egoerak berriro onera egingo duen. Haatik, hazkunde hori unekoa izango da, izan ere, prestakuntza egingo duen biztanleria jaitsi egingo dela aurreikusten da eta horrek, etorkizunera so, unibertsitarioen harrobiak ere behera egitea eragingo du

Eta gogoeta horretan aurkitzen da arazoaren muina: demografiaren jaitziera, izan ere, prestakuntzan erreparatzen badugu, Euskadiren kasuan emaitza positiboak ikus ditzakegu. Ezagutzan intentsiboa izango den gizartea izango da gurea. Hala, unibertsitateak eta Lanbide Heziketak gero eta garrantzi gehiago dute eta, derrigorrezko hezkuntzaren ostean gero eta apalagoa da eskola uztearen portzentajea. Historia eta aurreikuspenak argiak dira: 2001ean lanean ziren pertsona guztien % 23,4 goi mailako tituludunak ziren; 2011n portzentaje hori % 31,4koa zen eta, joerari erreparatzen badiogu, 2020. urtean portzentaje hori % 41ekoa izango da.

Hala ere, datuen irakurketa horien garrantzia erlatiboa aintzat hartuz egiten badugu, irakurketa engainagarria da, izan ere, galdera ez da soilik prestakuntza-mailaren araberako banaketa egokia ote den eta ezagutza gero eta gehiago izateko moduko bilakaera ematen den, era berean, galdetu behar dugu oinarria, biztanleriaren datuak, aldi berean, areagotzen ari ote diren. Hau da, prestatutako biztanleria ote dugun galdetu behar dugu, baina, aldi berean, biztanleri hori kopuruari dagokionez nahikoa den galdetu behar dugu.

Hor irekitzen da eskulanaren iraunkortasunari buruzko eztabaida eta hor aurkitzen dira iritzi ezberdinak.

Ukaezina da demografia jaisten ari dela eta biztanleriaren piramidearen iraulketa errealitatea dela. Errealitate horrek ekoizpen-sisteman eragiten du zuzenean, ez soilik pensio-sistemen iraunkortasunari dagokion erronkaren ikuspegitik, baita ekoizpen-ehunduraren ikuspegitik ere:

- 2012an emakume bakoitzeko seme-alaben batez besteko kopurua 1,35ekoa izan da, belaunaldiaren berrikuntzarako atalasetik (2,1) urrun.
- Biztanleriaren saldo erreala 2001ean 2,8koa zen eta 2012an -3,5ekoa (mila biztanleko).
- Euskadiren egoera larriagoa da Espainian edo European baino, 19 urte bitarteko pertsonen portzentaje apalenarekin eta 64 urtetik gorako biztanleriaren portzentaje handienarekin.
- 2001. urtetik, Euskadin adin nagusiko biztanleriaren zenbakiak gainditu egiten dituzten biztanleria gazteenari (19 urte artekoa) dagozkion zenbakiak. Egoera hori ez da eman Espainian, ezta EB-28 barneko herrialdeetan ere.
- Etorkizunera so egoerak okerrera egingo du: jaiotze-tasaren jaitsiera gainditzen zaila den arazoa da. Gainera, arazoa areagotu egingo dela dirudi, Eustat erakundearen biztanleriari buruzko proiektzioen arabera. 2020. urteari begira Euskadik biztanleriaren % 2,4 galduko du eta hurrengo bost urtetan beste % 4 gaineratu beharko zaio portzentaje horri. Horrek esanahi du gizartea pixkanaka zahartu egingo dela. Horrela, 2020. urtean 65 urtetik gorako biztanleria % 10 haziko da, eta bariazio hori bikoiztu egingo da hurrengo 5 urteetan. Pertsona gazteenek ez dute zahartze

hori orekatuko. Aitzitik, gazteen kopurua mantendu egingo da 2020. urtera arte eta hurrengo bosturtekoan % -4,5 jaitsiko da.

- 64 urtetik gorako pertsonen enpleguan utzitako hutsunea bete dezakeen biztanleriari dagokionez, dagoeneko sisteman dauden pertsonekin beteko dira hutsuneak eta pertsona kopuru horrek ere behera egingo du, 2020. urtera bitartean % -7,3 jaitsiz eta 2020-2025 bitartean % -5,7 gehiago jaitsiz. Horrenbestez, belaunaldien arteko errelebua ez da modu orekatuan emango. Berez, birjarpen-tasak okerrera egingo du; gaur egun, 15-64 urte bitarteko 3,16 pertsona daude lan-merkatutik ateratzen den 64 urtetik gorako pertsona bakoitzeko (2002an 3,9). Egoera horrek okerrera egingo du etorkizunean. Hala, lan-merkatutik ateratzen den pertsona bakoitzeko laneratzeko adinean izango diren 2,5-2,09 pertsona izango dira (biztanleriaren balizko agertoki hobea edo okerragoa izan, Eustat erakundeak egindako proiektzioaren arabera).

Haatik, kontsultatutako adituen gogoetetan bi iritzi kontrajarri agertzen dira. Horrela, enpleguari dagokionez, emaitza demografikoak bi ikuspegitatik behatzen dira:

- Ezkorragoa: pertsonen defizita errealitatea da dagoeneko, krisiak utzitako ondorioen eraginez ezkutuan mantendu arren. Susperraldi ekonomikoa egiazkoa izan eta enplegua sortzen denean, eskulan gutxiegi egongo da lan-merkatutik aterako diren pertsonen lanpostuak betetzeko.
- Baikorragoa: demografiaren jaitsierak lan-merkatuan eragin dezakeen arazoaz jabetu arren, arazoa oraindik ez da eman eta oraindik denbora igaroko da hori gertatu arte, hainbat arrazoi direla medio: ekonomiaren susperraldi egiazkoak enplegua berreskuratzeko denbora beharko da oraindik (batzuen ustez hori ez da gertatuko 2020-2025 bitartean). Gainera, teknologiaren aldeko joeraren ondorioz, eskulanaren premia murriztu egingo da.

Edozein kasutan, hala kontsultatutako adituen iritzietan nola egindako ikerketetan, gogoeta egiten da aldaketa demografikoak lan-merkatuan izan ditzakeen eraginak arintzeko gauzatu beharreko ekintzen inguruan:

- Lan-merkatutik at geratzen den biztanleria berreskuratu egin behar da: jarduerarik ezan geratutako biztanleria, prestakuntza eta enplegurik gabe dagoen biztanleria, iraupen luzeko langabetuak, erretiroa hartzeko adinaren atzerapena, enplegu beterako itzulera, lanaldia luzatzea, etab.

- Eskulana erakartzea: unibertsitarioen talentua erakartzea, etorkinak.
- Giza kapitala areagotzea: eskola-porrotaren mailak murriztea; hezkuntza ez derrigorrezkoari dagozkion ikasketak egiten dituzten ikasleen portzentajea areagotzea; lanean etengabeko prestakuntza-prozesuetara bideratutako denbora eta baliabideak areagotzea; langabetuak prestatzera bideratutako lan-merkatuko politika aktiboak garatzea.
- Ekoizpen-ereduaren egitura eraldatzea: Kapitalaren stocka areagotzea, ezagutza sortzera bideratutako baliabideak areagotzea, ekoizpen-faktoreen produktibitatea areagotzea

Aurrekoak biztanleriaren formakuntza-mailari dagokionez zer-nolako joerak eman diren eta emango diren azaltzen duen argazkia erakusten du. Dena den, unibertsitate-tituludun kopurua ezagutzea bezain garrantzitsua izango da jakitea tituludun guztiek eskuratutako ezagutza egokia izango den gaur egun eta etorkizunean ekoizpen-ehunduran dauden eta egingo diren premiak asetzeko. Zentzu horretan, unibertsitate-karreraren hautaketari dagokion argazkian, historikoki, gizarte-zientzien eta juridikoen aldeko joera ikusten da gainerako ezagutza-esparruen aurrean urtez urte, kutsu teknikoko karreretan ematen den matrikulazioa bikoiztuz.

Belaunaldi gazteenen kasuan, karrera teknikoek garrantzia gehiago hartu zuten krisialdiaren ondotik, eta karrera sozial eta juridikoek behera egin zuten. Dena den, azken urteetan, joera historikoa berreskuratu da.

Matrikulazioei buruzko datu berrienetan erreparatzen badugu, titulazio sozial eta juridikoen nagusitasuna berresten da, gainerakoetatik urrun, nahiz eta datuak nabarmen apalagoak izan. Jaitsiera hori, hala ere, kezkarriagoa da karrera teknikoen kasuan, izan ere, 7 ikasturtetan portzentajezko 5 puntu galtzen dira, beheranzko joera etengabe batean murgildurik.

Matrikulazioen bariazioa aintzat hartuta, jaiotze-tasaren eragina ukaezina da, izan ere, ikasle kopuruaren galera ezagutza-esparru guztietan ematen da. Salbuespena osasunaren esparrua da, oro har, ez baita galera hori hautematen, eta gizarte-zientzien eta juridikoen kasuan ere bada galerarik gabeko ikasturte bat. Osasunaren esparruan urtez urte ikasle kopuruak gora egin du, etengabe.

TALENTUAREN ESKARITIK ABIATUTA

Joera ekonomikoak eta enplegu orokorrarekin eta unibertsitatekoarekin lotutako joerak.

Osasun arloan ematen den matrikulazioaren hazkundera gertaera positiboa da eskariaren ikuspegitik, izan ere, etorkizunean halako lanen premia izango dela aurreikusten da, biztanleria zahartzen ari delako. Estimazioen arabera, esparru horretan 25.000 izango lirateke enplegua aurkituko luketen profesional berriak.

Osasun esparruak RIS3 estrategian barneratzen dira, lehentasun hauek ezartzen dituenak:

- Fabrikazio aurreratua
- Energia
- Biozientzia-osasuna binomioa
- Lurraldearekin lotutako nitxoak: Hiri-plangintza eta -birsorkuntza, ekosistemak, aisia eta entretenimendua

Bestalde, Gai Sozioekonomikoetarako Lehendakariaren Aholkularitza Kontseiluak, 2010ean egindako txosten batean, hurrengo sektore estrategikoak zehazten ditu hazteko aukera handia duten sektore modura, hautemandako makrojoerekin lotuta: osasun-zerbitzuak, energia, gizarte-zerbitzuak, IKTak eta elektronika nahiz biozientziak.

Horrenbestez, itxuraz, argi dago osasun arloko ezagutza-esparruek eta esparru teknikoek eginkizun gailena izango dutela Euskadiren garapen estrategikoari begira. Gainera, kontsultatutako adituek hala berresten dute, ezagutza-esparru hauek lehenesten dituztelarik: energia, eraikuntza iraunkorra, industria, mugikortasuna, osasuna eta IKTak.

Hala ere, etorkizunean esparru teknikoetan eta osasunaren esparruetan tituludun gehiago beharko diren arren, ez da aiantzi behar honakoa:

- Herrialde bat ez da soilik ekoizten duen hura. Horrela, badira enpresentzat sostengua dakarten zerbitzuez gain, bestelako zerbitzu batzuk, esate baterako, gizarte-zerbitzuak, kultura-zerbitzuak eta aisiarekin lotutakoak, eta horiek gabe herrialdeak ez luke zentzurik izango.

- Ez da ahantzi behar enplegu-emaille erabakigarri gisa azaltzen diren hiru sektoreak: administrazioa, hezkuntza eta osasuna. Belaunaldien arteko errelebua hur-hurreko premia da eta, horretarako, ezagutza-esparru ezberdinetatik talentudunak behar dira. 2011ko azterketa oinarritzat hartuta, 2020. urtean 55-64 urte bitarteko pertsonen portzentajea % 41,8koa izango da Herri-administrazioaren kasuan, % 33,1ekoa Hezkuntzaren kasuan eta % 34,7koa osasunaren kasuan.

Jarduera horietan eskulanaren egiazko premia zehazte aldera, birjarpenerako dauden aukera errealak hartu beharko lirateke kontuan, murrizketek eta lanpostuen amortizazioek baldintzatuta daudenak. Hezkuntzaren kasuan, gainera, eskariaren araberrako birdoiketaz hitz egin beharko genuke, eskaria atzeraldian baitago.

Ekonomiarekin eta enpleguarekin lotuta orain arte hautemandako joerei dagokionez, 2012. urtea Barne Produktu Gordinaren jaitsiera batekin amaitzen da, 2009an izandako jaitsiera bortitzaren ostean bi urtez susperraldia bizi ondotik. Aurreikuspenek diotenez, 2014. eta 2015. urteetan Barne Produktu Gordinak gora egingo du (% 1 eta % 1,7% haziz, hurrenez hurren).

Enpleguari dagokionez, kasu honetan ere 2009. urtea inflexio-puntua da, enpleguaren galera adierazten duten tasa negatiboekin, 2011. urtera arte jarraitzen dutenak, nahiz eta modu apalagoan izan.

Atzeraldia Barne Produktu Gordina jaitea dakar. Horrela, BPGd horretan 2007an % 4,2ko hazkundea izan zen eta 2008an % 1,3koa. Horrek bere eragina du enpleguan, izan ere, aipatu urteak aintzat hartuta, lehenengoan hazkundea % 2,8koa zen eta bigarrengoan % 0,4koa. 2009an Barne Produktu Gordina % -3,9ra jaitsi zen eta, horren ondorioz, enplegua antzeko tasa negatiboetan kokatu zen. Barne Produktu Gordinean 2010etik 2011ra susperraldia izan zen, bariazio-tasa positiboekin. Enpleguan, aldiz, ez zen joera horri eman, eta zenbaki negatiboekin jarraitu zen. Kontsultatutako iturrien arabera, Barne Produktu Gordina % 2,6tik gora hazten denean hasiko da enplegua sortzen. Horrenbestez, arestian Barne Produktu Gordinari buruz egindako aurreikuspenak kontuan izanik, hori ez da gertatuko 2015. urtera arte.

Barne Produktu Gordinean eta enpleguan ematen diren joerak nabarmen aldatzen dira ekoizpen-sektoreen arabera, eta horiek etorkizunean izango diren markak baldintza ditzakete:

Industria eta energia

- **BEGd:** 2012an Balio Erantsi Gordinaren % 23,3 suposatzen du, beheranzko joera batekin. Balio Erantsi Gordinaren urtez urteko bariazio-tasek goranzko joera erakusten zuten etengabe, 2009an atzeraldia izan arte. Ondoren, hurrengo urteetan susperraldia gertatu zen, 2012an eten zena.
- **Balio Erantsi Gordinari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** Makineria eta ekipamendua eta Garraiorako materiala.
- **Enplegua:** langileen % 20,9 baitaratzen du, nahiz eta garrantzia galduz joan. 2007-2011 bitartean enplegua galtzen da, 2009. urtean, gainera, nabarmen.
- **Enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** ur hornidura eta saneamendua eta Koke-fabrikak eta petrolio finketa.
- **Unibertsitarioen enplegua:** industria da unibertsitate-tituludunen hirugarren enplegu-emaila, nahiz eta azken urteetan garrantzia galduz joan. 2004-2007 bitartean hazkundera izan ostean, unibertsitate-tituludunen artean enplegua galtzen hasten da, 2011. urtera arte. Urte horretan, unibertsitarioen arteko enplegu-eskaintzaren % 14,3 suposatzen zuen. Edozein kasutan, 2020. urtera arte esparru teknikoko tituludunen eskariari dagokionez, bigarren jarduera-adarra izango da.

Eraikuntza

- **BEGD:** 2012an Balio Erantsi Gordinaren % 7,2 suposatzen du, beheranzko joera batekin. Urtez urteko bariazio-tasek beheranzko joera etengabea erakusten dute, 2008az geroztik atzeraldian.
- **Enplegua:** % 7,6 suposatzen du, 2008az geroztik garrantzia galtzen duelarik. Bariazio-tasa negatiboak 2008az geroztik, 2011n emaitza kaskarrena erregistratu.
- **Unibertsitarioen enplegua:** eraikuntzak unibertsitarioen % 3,4 laneratzen du, azken urteetan enplegu osoaren ekarpenari dagokionez beheranzko joera erakusten duelarik. Unibertsitarioen enpleguari dagokionez goranzko bariazioak ikus daitezke. Hala ere, gorabeherak ditu eta, horrela, 2010ean hazkundera zerokoa da. Etorkizunera so, joera hori mantenduko da. Sortzen diren 1000 lanpostuko 6,87 izango dira unibertsitate- tituludunentzat eraikuntzaren sektorean. Unibertsitarioen artean adar teknikoetan sortuko dira, gehienbat, enpleguak, eta baita esparru Sozial eta Juridikoetan, neurri txikiagoan izan arren.

Merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak

- **BEGD:** Balio Erantsi Gordinaren % 20, urtez urte hazkundera jaitziz, nahiz eta hazkunde-tasa positiboetan mantendu.
- **Balio Erantsi Gordinari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** ostalaritza.

- **Enplegua:** enpleguaren % 22,8 suposatzen du, denboraren ekarpen hori mantenduz. 2009an enplegua galtzen da eta hurrengo urteetan susperraldia ematen da.
- **Enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** ostalaritza.
- **Unibertsitarioen enplegua:** unibertsitarioen arteko enpleguaren % 12 eskaintzen du, nahiz eta urtez urte joera hori jaisten joan.

2002-2003 urteetan enpleguak gora egin zuen eta hortik aurrera nabarmenki jaisten da hazkunde hori 2010. urtera arte. Ordutik sektore horretan unibertsitarioei eskainitako enplegua galtzen da.

Informazio eta komunikazio zerbitzuak

- **BEGD:** BEGd osoaren gaineko ekarpena % 3,6koa, denboran mantentzen dena. Urtez urteko hazkundera jaisten doan arren, 2012. urtera arte tasa positiboetan mantentzen da. Aipatutako urtea da atzeraldia erregistratzen den lehen urtea.
- **Balio Erantsi Gordinari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** telekomunikazioak.
- **Enplegua:** urteetan zehar enpleguan egindako ekarpena %2tik gora mantentzen da. 2009. urtetik aurrera enpleguaren bariazio-tasa jaitsi egiten da, gorabeherekin.
- **Enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** telekomunikazioak.
- **Unibertsitarioen enplegua:** lehen sektorearekin ondotik, unibertsitate-tituludunen arteko enpleguan ekarpen apalena egiten duen sektorea da, % 4,9 batekin. Gainera, aztertutako azken urtean portzentaje hori jaitsi egiten da. 2011. urtean enpleguaren urtez urteko bariazioa bortizki jaisten da, aurreko urtean hazkunde apala erregistratu ondotik.

Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak

- **BEGD:** BEGd orokorrean ekarpen handiena egiten duen sektorea da (% 25,6). Gainera garrantzia areagotuz doa. 2008. urtera arte portaera onena erakusten duen sektorea da. Urte horretan atzeraldia bortitza gertatu zen eta 2010ean bariazio negatiboa eman zen, hurrengo urteetan bariazio positibora itzuli arren.
- **Balio Erantsi Gordinari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** higiezin jarduerak eta aholkularitza eta jardura teknikoak.
- **Enplegua:** enpleguaren % 14,5 eskaintzen du eta garrantzia, pixkanaka, areagotuz doa. 2008az geroztik urtez urteko hazkundera jaisten ari da. Horrela, 2011. urtea bariazio-tasa negatiboaz amaitu zen.
- **Enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** Ikerketa eta Garapena.
- **Unibertsitarioen enplegua:** unibertsitarioen arteko enpleguaren % 17 suposatzen du eta bere ekarpenak goranzko joera erakusten du azken urteetan, apala bada ere.

2006 urtean hazkundera zerokoa izan zen. Horren ostean unibertsitarioen arteko enplegu asko galdu zen, 2008an enplegua berreskuratu arren. Haatik, urte horretatik aurrera hazkundera behera egin zuen berriro, 2011. urtean hazkundera zerokoa izatera itzultzen den arte.

Zerbitzuetako beste jarduera batzuk

- **BEGD:** BEGd orokorrean % 19,5ko ekarpena erregistratzen da, 2004. urtetik goranzko joera erakusten duelarik. Sektore hau da krisiaren aurrean sendoen agertzen dena, nahiz eta azken hiru urteetan hazkunde-tasak jaitsi. Horrela, 2012an atzeraldia izan zen Balio Erantsi Gordinari dagokionez.
- **Balio Erantsi Gordinari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** etxeko jarduerak eta Aisialdi eta kultura jarduerak.
- **Enplegua:** enplegu-emaila nagusia da, izan ere, enpleguen % 30,2 suposatzen du eta bere ekarpenak goranzko joera etengabea erakusten du. Urteetan zehar portaera onena erakutsi duen sektorea da eta krisiaren ondorioak beranduen pairatu dituena. Ondorio horiek 2008. urtetik aurrera nabarmentzen dira, izan ere, enpleguari dagozkion bariazioak positiboan mantendu arren, zenbaki apalagoak erregistratzen dira.
- **Enpleguari dagokionez portaera onena erakusten duten jarduerak:** etxeko jarduerak, hezkuntza eta osasuna.
- **Unibertsitarioen enplegua:** unibertsitarioen enplegu-emaila nagusia da, izan ere, unibertsitarioen arteko enpleguaren % 46 suposatzen du eta, gainerako enpleguekin alderatuta, bere garrantzia gorantz doa. Unibertsitate-tituludunen kontratazioa mantentzen duen sektore bakarra da, urtez urte igoz baina bariazio ezberdinekin eta, 2006az geroztik askoz ere erritmo motelagoan.

Unibertsitarioen enpleguaren joerak ezagutza-esparruen arabera

Badirudi argi dagoela zenbat eta prestakuntza-maila handiagoa izan orduan eta handiagoak direla enplegarritasunerako aukerak. Horrela, 2011n unibertsitate-ikasketak zituen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren % 81,6a enplegu baten jabe zen. Biztanleria osoaren batez bestekoaren (% 70,1) gainetik, beraz. Bestalde, laneratutako pertsonen herena unibertsitarioak dira eta proportzio hori etengabe areagotzen da 2001az geroztik.

Formakuntza gehiago izateak, enplegarritasunerako aukerak areagotzeaz gain, krisiaren aurrean sendotasuna eskaintzen du, izan ere, langabezia-tasetan 2007. urtetik goranzko joera ikusten den arren, hazkunde hori apalagoa da gainerako hezkuntza-mailetan baino.

Krisialdian ekoizpen-ehundurako langile-multzoan halako berregituraketa bat ematen da. Dena den, badirudi, berregituraketa horrek ez duela horrenbesteko eraginik unibertsitate-tituludunen artean, izan ere, beren garrantzia mantentzen edo areagotzen dute gainerako prestakuntza-mailekin alderatuta sektore guztietan, "lehen sektorea" eta "merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak" sektorea salbuetsita.

2015-2020 epealdirako eskaintza eta eskariari buruz egindako proiektioek erakusten dutenez, agertoki kontserbadore bat hartuta, unibertsitate-titulazioa izango duten profesional gehiago izango da erabilgarri (gradudun berriak + langabetuak) hutsik geratutako lanpostuak baino. Haatik, desoreka hori murriztu egingo da pixkanaka (2015ean gaineratikoa 21.131 izanik eta 2020an 13.916 izanik), nagusiki, tituludunen eskaintza jaistearen ondorioz.

Aitzitik, enpleguaren sorrera erakusten duen agertoki bat hartuta, unibertsitate-tituludunen eskaintzak eta eskariak 2017an bat egingo dute eta, orduetik aurrera, unibertsitate-tituludunen defizita izango da, batez ere, pixkanaka eskaria hazi egingo delako, erabilgarri izango diren profesional kopuruarekin, dagoeneko beheranzko joeran, bete ezingo dena.

Hala ere, ñabardura gisa, adierazgarria da kalkulu horietan ez dela kontuan hartzen jarduerarik gabe dagoen biztanleria, profesionalen aldetiko defizita (25-64 urte bitarteko 40.000 unibertsitate-tituludun inguru) gertatzean lanera daitekeena.

Hala ere, hezkuntza-mailen arabeko joera ezberdinetan gertatzen den bezala, ezinezkoa da unibertsitarioez orokorki hitz egitea, izan ere, enpleguaren adierazleak eta ekoizpen-sektore ezberdinekin lotutako joerak aldatu egiten dira ezagutza-esparruaren arabera:

Esparru teknikoa

- **Enplegu-tasa:** 2007. urtearen ondotik enplegu-tasa jaitsi egiten da, nahiz eta azken urteetan susperraldia izan, 2011n okupazioa % 95,7koa izanik. Horrela, 2006an enplegua galdu ostean, hurrengo urteetan enplegua berreskuratzen da, batez ere, 2008an eta 2009an. Haatik, hurrengo bi urteetan enplegua bortizki jaisten da, azkenean, esparru teknikoko tituludunen kasuan enpleguaren hazkundea zerokoa izan arte.
- **Enplegu-emaile nagusiak:** industria-sektorea da enplegu-emaile nagusia (% 30 baino gehiago), nahiz eta datuek beheranzko joera erakutsi. Ondoren daude "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" eta Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektoreak, antzeko garrantzia dutenak eta azken urteetan enplegu-emaile modura garrantzia irabazi dutenak. Bestalde, "Informazio eta komunikazio zerbitzuak" sektoreak ere garrantzia erdietsi du

enplegu-emaile modura, izan ere, esparru teknikoko 10 tituludunetik bat baitaratzen du.

Jarduera zehatzei dagokienez, hauek nabarmentzen dira: "arkitektura eta ingeniartzako zerbitzu teknikoak", "hezkuntza", "eraikuntza" eta informatika-jarduerak", esparru teknikoan tituludun gehien baitaratzen dituztenak izaki.

- **Hazkunde-tasak sektoreka:** "Industria eta energia" sektoreak, esparru teknikoko enpleguari dagokionez, hazkunde-tasa erakusten du. Gainera, krisialdiaren aurrean sendo mantendu da, azken bi urtetan egoerak okerrera egin duen arren, zero hazkundera iritsi arte.

"Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" eta "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektoreek susperraldi handiagoa erakusten dute, 2006an esparru teknikoko tituludunen hainbat enplegu galdu ostean. Haatik, egoera baikor hori murriztu egiten da 2011n, enpleguaren hazkundera moteldu egiten delarik.

"Merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikaziok" sektorean enplegu teknikoa sortzen da 2003-2006 bitartean. Hala ere, hurrengo urteetan hazkunde hori jaitسي egiten da, atzeraldia erregistratzen duen urte batekin amaitu arte.

Eraikuntzan ematen den egoera industrian ematen denaren parekoa da. Krisialdiari bariazio positiboekin eusten dio eta azken urteetan enplegu teknikoa areagotu egiten da, hazkundera jaisten doan arren.

- **Etorkizunera begirako joerak:** enplegarritasunaren aurreikuspenak baikorrak dira 5 eta 10 urtera begira, batez ere, aplikazioen garapenera bideratuago dauden ingeniartzako karreren kasuan: industrialak, telekomunikaziokoak, mekanikoak, elektronikokoak, materialetakoak, fabrikaziokoak, informatikakoak. Ezagutza-esparru honetan ariko da unibertsitate- tituludun berrien % 27a.
- Tituludun mota honen **eskaintza eta eskariari buruzko proiektioari** erreparatu, agertoki kontserbadore batean, 2020. urtean oraindik tituludunen superabita izango da esparru honetan. Dena den, joerek erakusten dutenez, egoera irauli egingo da eta titulazio horietako profesionalen defizita izango da nagusi. Hazkunde ekonomikoko agertoki batean, egoera hori 2018. urtetik hasten da iraultzen, izan ere, enplegua nabarmen haziko da eta profesional kopurua egonkortu egingo da. Horrela, ezinezkoa izango da profesional kopuru horrekin hutsik geratutako lanpostuak betetzea.

Gizarte-zientzien eta arlo juridikoen esparrua

- **Enplegu-tasa:** 2007. urtetik aurrera enplegu-tasa jaitسي egin da (orduan % 97,1ekoa zen), eta ez da susperraldirik izan aztertutako azken urtera arte (% 91,9).

2006. urtea inflexio-puntua izan da gizarte-zientzietan eta ekonomian titulaturako pertsonen kasuan, izan ere, enpleguaren hazkundera jaitسي egin da 2009. urtera arte. Urte horretatik aurrera, gainera, enplegua galdu egin da. 2011. urtean enpleguak berreskuratu dira, % 2,4ko bariazio-tasa positibo batekin.

- **Enplegu-emaile nagusiak:** "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektorea da gizarte-zientzietan eta juridikoetan titulaturako pertsonen enplegu-emaile nagusia, haien erdiak hartuz, urtez urte sektorearen garrantzia areagotu egiten delarik. Sektore horren atzetik, nahikoa urrun, daude "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" eta "merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak" sektoreak.

Jarduera zehatzei dagokienez, "Hezkuntza" eta "herri administrazioa eta defentsa" dira tituladun hauen enplegu-emaile nagusiak, horien % 37,7 hartuz. Gainera, "Hezkuntza" jardueraren kasuan portzentajea areagotuz doa eta "herri administrazioa eta defentsa" jardueraren kasuan mantendu egiten da.

- **Hazkunde-tasak sektoreka:** "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektorea da arlo Sozial eta Juridikoetan titulaturako pertsonen enplegua mantentzen duen sektore bakarra. Dena den, hazkunde-tasa nahikoa apala da 2009. urtera arte, 2010. urtean zertxobait igo arren.

"Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektorearen kasuan 2008. eta 2009. urteetan gizarte-zientzietan eta juridikoetan titulaturako pertsonen enplegua berreskuratzen da. Haatik, 2010. urtearen amaieran enplegu aldetiko galera erregistratzen da tituladun hauentzat.

"Merkataritza, konponketak, ostalaritza, garraioak eta komunikazioak" sektorean egoera nahikoa kaskarra da, 2010. urtera arte enplegua galtzen baita. 2005-2008 epealdian enplegu-tasa hazi egiten da industria-sektorean gizarte-zientzietan eta juridikoetan titulaturako pertsonentzat. Horren ondotik, bi urtez jarraian, enplegua galtzen da.

- **Etorkizunera begirako joerak:** hurrengo urtetan enplegua mantentzeko joera izango da, kontratazioa apur bat haziko delarik. Dena den, zalantza handi samarra da 10 urterako aurreikuspen batean. Aurreikuspen hobeak: hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, gizarte hezitzaileen artean, enpresan eta zuzenbidean titulazio bikoitzekin. Laneratutako unibertsitate-tituladun gehienak baitaratzen dituzte oraindik, nahiz eta karrera teknikoekin alderatuta garrantzia galduz doazen. 2001ean laneratutako unibertsitate-tituladunen % 51 baitaratzen zuten. 2020. urtean portzentaje hori % 45ekoa izatea aurreikusten da.
- **Eskaintza eta eskariari buruzko proiektioei** erreparatuz, agertoki kontserbadore batean, tituladunen kopurua gaineratikoa izango da ezagutza-esparru honetan, eta ezingo ditu eskaintza baino askoz motelago hazten den eskariak baitaratu. Horrenbestez, tituladunen gaineratikoa areagotuz joango da. Enpleguaren sorrerarekin lotutako ikuspegi batetik, 2018. urtean baitaratuko luke eskariak une horretara arte legokeen tituladunen eskaintza: langabetu kopurua handia eta proiektatutako urteetan zehar egonkor mantenduko litzatekeen tituladun berrien birjarpena

Osasunaren esparrua

- **Enplegu-tasa:** 2007. urtetik jaisten doa, osasunaren esparruan tituladunen enplegu-tasa % 95,8 an kokatu arte.

Bariazio-tasan inflexio-puntuak ikusten dira 4 urtero, enpleguaren galerari dagozkionak. Atzeraldi horien ostean hazkundea dator, urtez urte apalduz doana.

- **Enplegu-emaile nagusiak:** logikoa den moduan, "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektorea da osasunaren esparruko tituludunen enplegu-emaile nagusia, sektore horretan barneratzen baitira osasun arloko jarduerak. Hala, enpleguen ia % 80a baitaratzen du sektore horrek. Askoz ere portzentaje apalagoaz (% 10 inguru), merkataritzaren sektorea da hurrengo enplegu-emaile nagusia.
- **Hazkunde-tasak sektoreka:** osasun jarduerak barneratzen dituen sektorea da osasun zientzietako tituludunen kasuan enpleguari dagozkion joerak adierazten dituen, 2008. eta 2009. urteetan enplegu gehiago sortu arren. Ondoren, hurrengo urteetan erregistratzen den jaitsiera sektoreko batez bestekoaren gainetik kokatzen da.

Merkataritzan, 2008. urtera arte egoera okerragoa zen, azken bi urteetan susperraldi zantzuak hautematen diren arren.

- **Etorkizunera begirako joerak:** medikuntza da unibertsitarioen artean gehien eskatzen den titulazioetako bat. Gainera, aurreikuspenek diote eskari hori areagotu egingo dela, biztanleria zahartzen ari delako. 2001ean unibertsitate-tituludunen % 11,5 hartzen zuen. 2020an portzentaje hori % 13,5koa izatea aurreikusten da.
- **Eskaintza eta eskariari buruzko proiektioek** erakusten dutenez, agertoki kontserbadore batean, 2019-2020 bitartean profesional kopuruaren superabita irauli eta horien defizita emango da, batez ere, erretiroa hartzen duten profesionalen plazak ordezkatu egin beharko direlako.
Hazkundea adierazten duen agertoki batean, eskaria (erretiroagatik eta enplegu berriak sortzeagatik) pixkanaka areagotu egingo da eta urtero erabilgarri dagoen profesional kopurua baitaratuko (2015. urtetik aurrera) du, are, profesional kopurua gaindituz.

Zientzia esperimentalen esparrua

- **Enplegu-tasa:** 2003. urtearen ondotik susperraldia izan eta gero, beherazko joeran da. Horrela, 2011n zientzia esperimentaletan tituludunen artean enplegu-tasa % 91,2koa da.

2007an tasa hori igo ostean, hurrengo bi urteetan enplegua galtzen da tituludun horien artean, ondoren nolabaiteko susperraldia etorri arren. Hala ere, aztertutako azken urtean, 2010ean, berriro bariazio-tasa negatiboak ikusten dira.

- **Enplegu-emaile nagusiak:** "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektorea da tituludun horien enplegu-emaile nagusia. Dena den, azken urteetan sektore horrek garrantzia galdu du, "Finantza-bitartekaritza, higiezin jarduerak eta enpresa-alokairu eta -zerbitzuak" sektorea indartu den bitartean.

Jarduera zehatzei dagokionez, hezkuntza da zientzia esperimentaletako tituludunen artean enplegu-emaile nagusia, nahiz eta beheranzko joera izan, jarduera ikertzaile gero eta handiagoak orekatua.

- **Hazkunde-tasak sektoreka:** Enplegu-emaile nagusian, hau da, "Zerbitzuetako beste jarduera batzuk" sektorean bariazio-tasa aldakorak erregistratzen dira

urteetan zehar, baina 2009. urtetik beheranzko joera nagusitzen da, 2010ean enplegua galtzen delarik.

- **Etorkizunera begirako joerak:** kimika eta biologia (bioteknologiaren sektoretik) dira, aurreikuspenen arabera, etorkizunera begira egoera onena biziko duten bi titulazioak. Etorkizunean, esparru horrek bere garrantzia mantenduko du laneratutako unibertsitateen artean, nahiz eta goi mailako tituludun berrien kasuan eskaria % 5,3koa baino ez izan.
- **Eskaintza eta eskariari buruzko proiektioetan** erreparatuz, agertoki kontserbadore batean, tituludun kopurua beharko den profesional kopurura hurbilduko da. Dena den, 2020. urtean, tituludun kopurua gaineratuko izango da oraindik (langabetuen artean baitaratutako kopuruagatik nahiz lan-merkatuan barneratutako gradudun berrien kopurua mantentzeagatik). Hazkundera adierazten duen agertoki batean, ordea, eskaria areagotzean eskuragarri dagoena baino profesional kopuru handiagoa beharko da. Horrenbestez, 2018. urtetik aurrera tituludunen defizita areagotu egingo da.

Humanitateen esparrua

- **Enplegu-tasa:** 2002. urtean tasa hori jaitsi ostean, humanitateen esparruko tituludunen artean enplegu-tasak gora egin zuen berriro, 2006. urtean % 97,8ra iritsi arte. Haatik urte horretatik aurrera, urtez urte tasa jaitsi egingo da etengabe, 2011n enplegu-tasa % 93koa izan arte.

2008. eta 2009. urtean enplegua berreskuratu ostean, azken bi urteetan enplegu askotxo galdu zen tituludun hauentzat.

- **Enplegu-emaile nagusiak:** “Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorea da enplegu-emaile nagusia (enpleguen % 70 baino gehiago). Gainera, azken urteetan bere ekarpena handituz doa.

Jarduera zehatzei dagokienez, hezkuntzaren arloan ematen dira tituludun horientzako enpleguen ia erdiak, eta azken urteetan bere garrantzia handituz doa.

- **Hazkunde-tasak sektoreka:** “Zerbitzuetako beste jarduera batzuk” sektorean bariazio-tasa positiboak ikusten dira. Dena den, tasa horiek jaitsi egin ziren etengabe 2005. urtetik aurrera. Horrela, 2010. urtean enplegua galtzen hasten da.
- **Etorkizunera begirako joerak:** ez dirudi enplegua berreskuratuko denik, izan ere, enpresa-ehunduraren aldetik ez dago langile-multzoetan tituludun horiek barneratzeko asmo handirik. Horrela, 2001ean laneratutako unibertsitateen % 10,1 ziren esparru horretakoak eta 2011n % 9,1ekoa zen portzentaje hori. Aurrera begira, 2020. urtean garrantzia hori mantentzea edo apur bat areagotzea aurreikusten da, esparru Sozial eta Juridikoetako titulazioen kuotak “lapurtuta”.
- **Eskaintza eta eskariari buruzko proiektioek** adierazten dutenez, agertoki kontserbadore batean, Osasunaren esparruan gertatu bezala, 2019-2020 bitartean Euskadin eskaria handiagoa izango da halako prestakuntza duen pertsona kopurua baino, nagusiki, tituludunen eskaintza jaitsi egingo delako. Gainera, eskaria ere hazi egingo da, nabarmen 2020an. Hazkunde ekonomikoko agertoki batean, tituludunen defizita nabaria izango litzateke 2017. urtetik.

Bibliografia

Bibliografia

Kontsultatutako datu-baseak:

- Eurostat
- Eustat
- EIN
- Gradudunen lan-egoerari buruzko estatistika Lanbide, Eusko Jaurlaritzaz
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren Lan-merkatuari (eskaintza) buruzko Zentsua
- Hezkuntza-sistema ez unibertsitatekoaren estatistikak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Ikasleen estatistika. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Kontsultatutako txostenak:

BizkaiLab. *La inserción laboral de los jóvenes universitarios: las oportunidades de empleo que el territorio histórico de Bizkaia ofrece a los nuevos egresados universitarios en este ámbito territorial, según la opinión de varios "expertos"*.

Bizkaia Talent: *Talentuaren mugikortasunari buruzko txostena. 2006, 2007, 2008 promozioak EHU, DEUSTU, MU*. Bilbo: Bizkaia Talent, 2013.

Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, KES (2011). *Hezkuntza Sistema, EAEko Jarduera sozioekonomikoen beharrei egokitzapena*. Bilbo: Euskal Kontseilu Ekonomiko eta Soziala.

European Centre for the Development of Vocational Training CEDEFOP. *Skill needs in Europe Focus on 2020* (2008). Luxembourg: Office for Official Publications of the European Communities, 2008.

Eustat - Estatistikako Euskal Erakundea. *EAEko Txosten Sozioekonomikoa (2012)*. Gasteiz: Estatistikako Euskal Erakundea.

Eusko Jaurlaritzaz, Lehendakaritzaz. *Euskadiko 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, oinarritzako ildo estrategiko eta ekonomikoak* (2014ko apirila).

Eusko Jaurlaritzaz, Lehendakaritzaz. *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015*. (2011ko abendua).

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Saila. *Industrializazio Plana 2014-2016*.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. *Koiunturaz 82. zenbakia* (2013ko martxoa). Gasteiz: Ogasun eta Finantza Saila.

Eusko Jaurlaritzaren *Enpresa Lehiakortasuna eta Berrikuntza Soziala: Estrategiaren oinarriak eta lan ildoak*. SPRI; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunerako Saila. *RIS 3 Euskadi. Euskadiren Espezializazio adimendunaren strategiaren oinarriak*.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. *Euskal ekonomiari buruzko urteko txostena 2012*. Gasteiz: Ogasun eta Finantza Saila.

Eusko Jaurlaritzaren Gai Sozioekonomikoetarako Lehendakariaren Aholkularitza Kontseilua. *Euskal Sektorerako Estrategikoak eta horien Etorkizuna (2020)*

Infoempleo eta Adecco. Infoempleo.com txostena 2011. *Enpleguaren eskaintza eta eskaria Espainian. 2013ko aurreikuspenak*.

Javier Ramos Salazar. *Lanbide Heziketa: malgutasuna eta aldaketara egokitzea. Euskadiko demografiari eta lan merkatuari buruzko azterketa (edukiaren zirriborroa: Lanbide Heziketako Nazioarteko V. Kongresuko txostena)* (2007) Gasteiz: Egailan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Sailaren Sozietate Publikoa.

ELGE. *Education at a Glance 2013, OECD indicators* (2013) OECD Publishing

Orkestra- Lehiakortasunerako Euskal Institutua. *Zahartze-prozesua eta Lan Merkatua Euskadin (2011)*. Donostia: Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila.

Orkestra- Lehiakortasunerako Euskal Institutua. *Euskadiko Lehiakortasunaren Txostena 2013. Etorkizuneko Ekoizpen Eraldaketa*. Donostia: Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila.

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). 2010-2011. *Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

